



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Batzar Nagusiak

Bizkaiko Batzar Nagusiak

2/2025 FORU ARAUA, apirilaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen.

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2025eko apirilaren 9ko Osoko Bilkuran onetsi dutela «2/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen», eta nik aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dudala, foru arau hori ezarri behar zaien herritar guztiek, norbanakoek eta agintariek, gorde eta gordearaz dezaten.

Bilbon, 2025eko apirilaren 11n.

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

**2/2025 FORU ARAUA, APIRILAREN 9KOA, BIZKAIKO LURRALDE
HISTORIKOKO TRIBUTU-SISTEMAREN BERRIKUSPEN FISKALERAKO
NEURRIAK ONARTZEN DITUENA****HITZAURREA**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren 2014ko eta 2018ko erreformen ebaluazio-txostenek, hurrenez hurren, zeinak Bizkaiko Batzar Nagusietan 2024ko urtarrilaren 15ean aurkeztu baitziren, agerian utzi zuten bi zerga horien bereizgarriak diren printzipioak finkatu direla Bizkaiko lurraldeko zerga-sisteman, eta zalantza barik berretsi zuten oinarri sendoa direla egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko fiskalitatearen ikuspegitik.

Era berean, txosten horiek egiaztatu zuten arestian aipaturiko bi zerga-tresnek berebiziko garrantzia dutela Euskadiko erakunde-maila guztien eskumeneko zerbitzu publikoak hornitzen dituen finantza-nahikotasunaren printzipioa bermatzeko.

Zehatzago esanda, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari gagozkiola, erreformek lagundu egin dute ekitatearen eta gehikortasun edo progresibitatearen printzipioak indartzen eta zerga-sistemaren barruan duten birbanaketa-funtzioa areagotzen. Sozietateen gaineko zergari doakionez, ordea, erregulazio berriak lagundu egin du enpresa-jarduera suspertzen, enpresa-sarea indartzen eta Lurralde Historikoko enpresen lehiakortasuna bultzatzen; horren haritik, aberastasuna ekartzeko eta enplegua sortzeko eragingailu bihurtu da.

Aurrekari horien gainean datza zerga-berrikuspena, zeinari ekin baitzaio honako foru-arau hau lantzeaz batera: arestian aipatu eta Bizkaiko zergapetze pertsonala bereizgarri duten printzipioak nabarmendu dira berrikuspen horretan, eta bestetik, Euskadiko politika publikoen helburuak lortzen ahalbidetzen duen fiskalitatearen diseinuan sakondu dugu, betiere arreta berezia jarrita finantza publikoen nahikotasunaren eta fiskalitateak hazkunde ekonomikoari egiten dion ekarpenaren arteko oreka egokia bermatzeko beharri, eta ez soilik gure lurraldeko zerga-sistemako bi tributu pertsonal nagusiez denaz bezainbatean, baita ere lehen aipatutako printzipioak zerga-sistema osoan finkatzeko beharrezko aldatetak ere aintzat hartuta, bai eta tokiko zergetan.

2023-2027 aldiko «Bizkaia Denontzat» deritzon Agintaldiko Plana betetzeko, asmoa da foru-arau honetan jasotako arauketak balio dezala, kalitatezko zerbitzu publikoak finantzatzeko diru-sarrerak lortzeko ez ezik, katalizatzaile gisa eragiteko, eta, hala, herri-tarrek gaur egun jasaten ari diren eraldaketa sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan diezaieten; horretarako, Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat datozen neurriak txertatu dira eta gure ehun ekonomikoari hazten laguntzen zaio.

Bizkaia gizarte irekia da, eta, beraz, eraldaketa biziki azkarrean dabilen munduaren erronka handiek eragina dute haren lurraldean.

Hasteko eta bat, biztanleriaren zahartzeari aurre egin behar zaio, aintzat harturik zahartzea egoera oso onuragarri baten zioz gertatzen ari dela, hau da, biztanleriaren osasun-baldintzen eta bizi-itxaropenaren gorakadaren zioz, baina jaiotza-tasaren beherakada izugarriaren ondorioz ere bai.

Era berean, jarduera ekonomikoen eta lehiakortasun-oinarrien eraldaketa bultzatzen jarraitu behar dugu, hau da, lehendik dauden gaitasunei lotutako dibertsifikazioa bultzatu behar da, bai eta berrikuntza ere ikuspegi orokor batetik, eskaria funtsezko elementu gisa txertatuz, jarduera ekonomiko berriak sortuz eta trantsizio energetiko-klimatikoak, teknologiko-digitalak eta soziodemografikoak dakartzaten sinergiak aprobetxatuz.

Beste alde batetik, esan barik doa larrialdi klimatikoaren eraginpean bizi garela, eta horrek gure ekoizpen- eta kontsumo-ereduak aldatzera behartu gaituela, jasangarriagoak izan daitezen. Zehazki, gizarte gisa dugun energia-eraginkortasuna hobetu behar dugu, eta energia garbiak eta berriztagarriak ekoitzi eta kontsumitu behar ditugu. Ildo horretan, beharrezkoa da hainbat sektoretan, hala nola industrian edo garraioan, deskarbonizazioa bultzatzea modu eraginkor eta ordenatuan, eta eskaria kontsumo-eredu jasangarrietarantz bideratzea.



Nolanahi ere den, Bizkaiak aurre egin beharko dien erronka eta trantsizio handiek desberdintasunak areagotu ditzakete, bereziki, trantsizio horien eta horien automatizazioaren eragin kaltegarriena jasaten duten gizataldeetan. Beraz, esandakoaren ondorioak aurreikusita, estrategia eta politika jakinak abian jarri behar dira lurraldean, Bizkaian bizi diren pertsona guztien ahalduntzea, gizarteratzea eta kohesioa bermatzeko. Hau da, pertsona bera eta haren beharrak izan behar dira zerga-berrikuspenaren ardatz nagusia, betiere arreta berezia jarrita gazteengan eta kalteberatasun-egoeran bizi diren pertsonengan.

Lehen aipatu ditugun gai guztiei fiskalitatearen ekinbidetik aurre egiteko xedez, zerga-berrikuspenarako arau-testu hau prestatu da, Euskadiko gainerako foru-erakundeekin harmonizatuta; araua 2025eko urtarrilaren 1ean hasiko da indarrean, oro har, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez edo, data horretatik aurrera hasten diren zergaldietan, sozietateen gaineko zergari dagokionez.

Aurrekoa finkatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema bidezko sistema solidarioa eta birbanatzailea izatea indartzeko hartu den konpromisoa betetze aldera, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen kalitatea ziurtatzeko bilketaren nahikotasuna bermatuta eta ehun ekonomikoa hazten laguntzen duen sistema gisa eratuta, 20 artikulua ageri dira foru-arau honetan, tituluka multzokatuta, bete nahi diren erronken arabera, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemako hainbat tributuri eragiten die.

Erronka horiek gure lurraldean sortzen ari diren gizarte-premia batzuekin lerrotuta daude eta honako hauek dira:

1. Familia, berdintasuna, kontziliazioa, emakumea eta gazteria: pertsona eta haren beharrak dira zerga-berrikuspenaren ardatz nagusiak, 36 urtetik beherakoengan, familia ugariengan, guraso bakarreko familiengan, desgaitasun edo mendekotasuna duten pertsonengan, bai eta etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimengan arreta berezia jarrita, eta era horretan, zerga-sistemaren barruan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ekitatearen, gehikortasunaren eta birbanaketa-funtzioaren printzipioak indartuz.
2. Etxebizitza: fiskalitatea baliatuz, etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatzen lagunduko dugu, bizi-aukera guztiak errespetatuz eta alokairu-araubidea indartuz.
3. Enpleguaren inguruko gizarte-aurreikuspena: fiskalitatea baliatuz, bigarren zutabea apurka-apurka finka dadin bultzatuko da, pentsio publikoen osagarri gisa, eta enpleguaren zein enplegatzailearen erantzunkidetasuna sustatuko da.
4. Trantsizio berdea: klima-aldaketari, ekonomia zirkularrari, mugikortasun iraunkorrari eta trantsizio energetikoari lotutako ingurumen-erronkei aurre egiten lagunduko dugu.
5. Gehikortasuna: ahalmen ekonomikoa erabiliko da, zerga-karga mugatzeko elementutzat eta errenta txikiak babesteko.
6. Ekoizpen-sarea babestea eta bultzatzea: dimentsio txikiko enpresa-eragileei erreparatuko diegu.

Ezin ukatuzkoa da aurre egin beharreko eremu gehiago egon daitezkeela eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Dekretuak dakartzan manuen arabera, 2024ko maiatzaren 20an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Interneteko atarian, aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea bete zen, ukitutako herritarrei eta eragileei aruaren balizko edukiari buruzko iritzia eskatzeko.

Lehen erronkari dagokionez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruan, ulertu behar da emakumeei tratamendu berezia eman behar zaiela, babes berezia merezi duen gizataldea den aldetik. Horretarako, jarduera ekonomikoa hasten duten emakumezko zergadunentzat jarduera ekonomikoen etekin garbi positiboaren gaineko murrizketa-ehunekoa 100eko 15 handitzea xedatu da. Era berean, kenkariaren ehunekoa 100eko 15era igoko da, 1.800 euroko muga ezarrita, eta 100eko 30 edo 100eko 40rainoko kenkaria baliatu ahal da langileek enpresan parte hartzeagatik eta mikroen-



presetan, enpresa txiki edo ertain sortu berrietan, enpresa berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotutako enpresetan inbertitzeagatik, hurrenez hurren.

Era berean, egungo gizartean sortuz doazen familia-unitate berriei ikusgarritasuna emate aldera, kontzeptua birmoldatu egingo da zergaren ondorioetarako, eta hauei guztiei lekua egingo zaie: guraso bakarra, adoptatzailea edo abegi-hartzaileak adingabeekin batera eta ordezkapen-ahalmena duen kuradoretza ezarrita duten adinekoekin batera osatzen dituzten familia-unitateak, eta, orobat, zergadunak edo zergadunek adingabeekin batera eta ordezkapen-ahalmena duen kuradoretza ezarrita duten adinekoekin batera osatzen dituzten familia-unitateak, baldin eta haien zaintza etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren zioz esleitu bazaio.

Arlo horretan, berebiziko garrantzia dauka xedapen honek: legezko banantzerik bada, edo ezkontza-loturarik zein izatezko bikoterik ez bada eta horretarako ebazpen judizialik eman bada, gurasoak edo adoptatzaileak edo abegi-hartzaileak eta ekonomikoki modu eskusiboan mendekoak diren pertsona guztiek osatuko dute familia-unitatea, bi gurasoekiko mendekotasun ekonomikoa dagoela iuris tantum presuntzioa aintzat hartuta; hori guztia pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauaren 98. artikulua testu berrian jasota baitago.

Zergaren kudeaketa erraztearen, eta, bestetik, familia-unitateen artean inolako be-reizkeriarik egon ez dadin, beharrezkotzat jo da baterako zerga-ordainketagatik 4.800 euroko murrizketa bakarra ezartzea, eta, hala, aldatu egin da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauaren 73. artikulua.

Beste alde batetik, nola eta norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri bihurtzea herritarren eskubidetzat eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko funtsezko baldintzat hartzen den, erakundeek eskubide hori bermatu behar dute, lan-arloko funtsezko araudiaren bidez ez ezik, fiskalitatearen bidez ere.

Aurrekoaren ondorioz, 83 bis artikulua berrian beste kenkari bat jaso da adingabeak eta mendetasun-maila edo desgaitasun-maila jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik. Zergaldi bakoitzeko 250 euroko kenkari horrek eskatzen du 12 urtetik beherako pertsona batekin edo gehiagorekin bizitzea, edo, bestela, % 65eko edo handik gorako desgaitasuna aitortuta du(t)en pertsona batekin edo batzuekin bizitzea edo mendekotasun-egoeran dagoen pertsona batekin edo batzuekin bizitzea, edo zergadunak berak edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak mendetasun- edo desgaitasun-maila horien arteko bat aitortuta izatea. Gainera, kontratatzearen ziozko ordainketak egiten dituen zergadunetako batek Gizarte Segurantzaren alta emanda egon beharko du, familia-etxe bateko enplegatzaile titular gisa, eta beharrezkoa izango da lehen aipatutako pertsonak zaindu ditzaketen pertsonak norberaren edo besteren konturako jarduera bat egitea. Kenkari hori 500 eurokoa izango da zaintzailea zaintzaren profesionaltzat hartzen bada, errege-lamenduz ezartzen diren betekizunen arabera.

Era berean, norberaren bizitza eta familia lan edo jarduera ekonomikoren batekin bateragarri bihurtzeko neurriak sustatzeko borondatearekin bat etorritik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauaren 83 ter artikulua berrian emakumeentzako 1.500 euroko kreditu fiskala sortzea arautu da jaiotzagatiko eta legez aitortutako adingabeak zaintzeagatiko baimenak amaitzen direnetik interesduna lan-merkatura itzultzen den arte igarotzen den geldialdi edo lanari uzten zaion urte bakoitzeko, gehienez ere, eta laguntza ehuneko 50 areagotuko da erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan, eta, hori guztia zenbait baldintza betetzen badira, bai jaiotzaren edo adopzioaren aurretik lan egin edo jarduera ekonomikoa garatzeari dagokionez, bai lan-merkatura berriro itzultzeari dagokionez. Kenkari hori interesduna lan-merkatura itzultzen den ekitaldian aplikatuko da, edo hurrengo bostetan, kuota nahikorik ez badago.

Era berean, beharrezkotzat jo da gizonezkoek gero eta parte-hartze aktiboagoa izatea norberaren bizitza, familia eta lana uztartu edo bateragarri bihurtzeko funtsezko legediak xedatzen dituen neurrietan. Horretarako, 200 euroko beste kenkari bat ezartzen da gizonezkoentzat bakarrik, jaiotzagatiko edo adingabeak zaintzeagatiko baimen ordainduak eta legez aitortuak amaitzen direnetik adingabeak 4 urte bete arte igarotzen den jardueraren geldiarazte- edo uzte-urte bakoitzeko.



Bestalde, familia-eremuan, errenta-maila txikiko zergadun alarguentzako kenkari berri bat ere sartzen da. Kenkari hori 200 eurokoa izango da 20.000 euroko edo gutxiagoko zerga-oinarria duten alarguentzat, eta zerga-oinarri hori handitu ahala modulatu da, 30.000 eurora iritsi arte. Pizgarri berri hori bateraezina izango da PFEZaren Foru Arauaren 83. artikuluan aurreikusitako adinagatiko kenkariarekin.

Pertsona fisikoen zerga-ordainketa pertsonalean islatu diren neurri horiek, kontziliazioa sustatzekoak, osatu egin dira pertsona juridikoen zerga-eremuan, sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren 66 sexies artikulua berria dela medio. Artikulu horrek kenkari berritzailea arautzen du, norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko neurri berriak ezartzen baititu, baina beharrezkoa izango da norberaren bizitza, familia eta lana bateagarri bihurtzeko neurri berriak zergadunaren Kontziliazio Planean jasota egon daitezzen, lege-esparruan nahitaez bete beharreko gutxienekoak gaindi ditzaten eta langile guztientzat eskuragarri egon daitezzen. Enpresek esparru horretan apurka-apurka egiten duten ahalegina saritzeko, bi zenbateko xedatu dira kenkarietan: bata kuota likidoaren ehuneko 5ekoa, 5.000 euroko muga ezarrita, aipatu den artikuluan bertan araututako neurriren bat jasotzen duen Kontziliazio Plana ezartzeko ekitaldian, eta bestea handiagoa, 100eko 15ekoa, 7.500 euroko muga ezarrita, lehen ekitaldian, gutxienez plantillaren herena arestian esandako neurriren bati atxikita baldin badago. Era berean, emakumeen eta 36 urtetik beherako pertsonen enplegua sortzea bultzatze aldera, beste kenkari bat sortzen da 66 decies artikuluan, hain zuzen ere, enplegua sortzea sustatzeari buruzkoan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66. artikuluan araututako kalitatezko enplegua sortzeagatiko kenkarirako aurreikusitako eskakizunen murrizketa batekin, baina, betiere, enplegu egonkorri eta kalitatezkoari eustearen baldintzapean.

Gure enpresa-ehunaren berezitasunak kontuan hartuta, aurreko kenkariak errege-lamendu bidez modulatu ahal izango dira, eta tratamendu hobek xedatu ahalko dira entitatearen tamainaren arabera.

Familia, lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteko esparruan, gogoan izan behar dugu nola telelanean aritzeko aukerak —urrutitik lan egiteko erak gora egin du enpresa-antolaketa tradizionalaren aldean, eta horrek, zalantzarik gabe, jardunbide berritzaileak eta malguagoak ekarri ditu halaberrez— antolamendu-aldaketak sustatu dituen enpresetan eta nola langileen prestakuntza eta enplegarritasuna indartu dituen. Hala eta guztiz ere, eragozpen batzuk ere sorrarazi ditu, hala nola ekoizpen-jardueraren kostu batzuk langileari egozteak, inolako konpentsaziorik eman gabe. Horregatik, legedia substantiboak arautu duenez, enpresak berak ordaindu edo konpentsatu beharko du urrutiko lana, eta langileak ezin izango ditu bere gain hartu laneko jarduerari lotutako ekipo, tresna eta baliabideei lotutako gastuak. Ildo horretan, alde batetik, tratamendu bat arautzen da lanaren ordainsari gisa langileari ematen zaizkion diru-zenbatekoentzat, hitzarmen kolektiboan itundutako kopuruetatik gorakoentzat (edo, hala badagokio, merkatu-balioa gainditzen duen kopuruentzat), eta, bestetik, arautu da ez dela inola ere lanaren gauzazko ordainketatzat hartuko enplegatzaileak langileen laneko jarduerari lotutako ekipoak, tresnak eta bitartekoak ematea telelaneko edo urruneko lan-modalitatea baliatzen denean; pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 17. artikuluan 2. apartatuan h) letra berria txertatu da horretarako.

Era berean, lehenengo erronka horren barruan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruaz denaz bezainbatean, eta gazteek gaur egun hainbat ikuspuntutatik duten egoera zaila kontuan hartuta, hala nola lan egonkorra eta ondo ordaindutakoa izatea edo etxebizitza duina lortzea, 35 urtera arte luzatu da pertsona batek tratamendu fiskal onuragarria baliatu ahal izateko adina.

Zerga-tratamendu onuragarri edo aldeko horrek, foru-arau osoan isla izango duen arren, lehenengo erronkari dagokionez, hau ekarriko du: kenkaria baliatzeko eskubidea sortzen den ekitaldian kuota nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren ondorengoan, ohiko etxebizitza alokatzearen eta ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkariak sortzen direneko zergaldiaren hurrengo bost urteetan amaitzen diren ekitalditako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira, betiere baliatzen diren ekitaldietan zergadunak 36 urte baino gutxiago baditu; hori guztia kontuan hartuz gerta litekeela urteen poderioz ahalmen ekonomiko handiagoa izatea, eta, hori dela eta, aurreko ekitaldietan sortuta-



ko eta aplikatu gabeko kenkariak xurgatzeko kuota nahikoa sortzea. Hala, tratamendu hori ahalbidetzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren VII. tituluan VII bis kapitulu berria txertatu da. Kapitulu horrek 93 bis artikulua berria jasotzen du, «Zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko araubide berezia» izeneko, eta, hala, foru-arau horren 99. artikulua osatu egiten da, h) letra gehituta haren 2. apartatuan, hartara baliatzeko dauden kenkarien aplikazioa arautzeko tributazio-araubidearen arabera, alegia, baterako tributazioaren edo banakakoaren arabera.

Fiskalitateak aurre egin beharreko bigarren erronka hau da: etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatzeko baldintzak sustatzeari lotutakoa da.

Etxebizitzari lotutako fiskalitatea edozein gobernuren politika ekonomikoaren ardatz nagusietako bat da. Azken hamarkadetan, neurri ugari baliatu dira etxebizitza eskuratzeko, dela jabetzan, dela alokairuan. Beste alde batetik, nabarmentzekoak dira azken urteetan merkatuan erabilgarri dauden etxebizitzaren parkea handitzeko legedian arian-arian txertatzen joan diren neurriak ere, hau da, zehapena edo, bestela, hutsik dauden etxebizitzaren jabeek ordaindu beharreko zerga-karga handiagotzea. Nolanahi ere den, beharrezkoa da sustapeneko neurri fiskalak areagotzea, etxebizitza duina izateko eskubidea bermatze aldera; izan ere, jakin badakigu neurri fiskalek lagundu egin behar diotela helburu horren aldeko apustu sendoa egiten duen funtsezko legediari. Etxebizitzari lotutako neurri fiskalek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta ondasun higiezinaren gaineko zergan izango dute eragina.

Lehenengoz eta bat, ohiko etxebizitzaren errentamenduari buruzko xedapenak aipatuko ditugu.

Horrela, errentatzaileari egotzi beharreko fiskalitateari eta kapital higiezinaren etekinen tratamenduari dagokienez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 32. artikuluan hainbat hobari-ehuneko arautu dira, etekin osoei gastu moduan aplikatzeko, errentan hartzen den etxebizitzaren tipologiaren arabera.

Ildo horretan, ehuneko 100eko 30 izango da etxebizitzaren behar iraunkorra asetzen duen errentamendua denean. Hobari-ehuneko horri gastu gisa gehituko zaizkio besteren kapital inbertituen interesen kopurua —alegia, etekinek jatorri dituzten ondasunak, eskubideak edo erabilera- edo gozamen-ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertituenak— eta gainerako finantzaketa-gastuak, eta munta handiko berritasun gisa, kreditu-aseguruen primen zenbatekoa, errentamendua dela-eta zergadunaren eskubide diren errenta ordaindu gabeen zenbatekoa berdintzen dutenak partez edo osoki, betiere 300 euroko mugaraino.

Bestalde, gastuen ehuneko 100eko 70 izango da, lehenengoz eta bat, Eusko Jaur-laritzaren programetatik edo autonomia-erkidegoetako, foru-aldundietako edo udaletako etxebizitza-plan eta -programetatik datozen kapital higiezinaren etekinei dagokienez; eta bigarrenik, etxebizitza-errentamendutik datozen kapital higiezinaren etekinei dagokienez, baldin eta errentamenduak behar iraunkor bati erantzuten badio, tentsio-eremutat deklaratu den bizitegi-merkatu batean kokatuta badago, eta lehen aldiz errentan ematen bada edo azken bost urteetan errentan eman ez bada, eta berriro errentan eman bada. Bi kasuetan, kengarriak izango dira, era berean, etekinen jatorri diren ondasunak, eskubideak edo erabilera- edo gozamen-ahalmenak eskuratzeko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesei loturiko gastuak eta gainerako finantzaketa-gastuak, eta bigarrenetan, gainera, aseguru-primen ziozko gastuak, lehen adierazitako baldintzetan. Era berean, tratamendu hori aplikatuko da, baldin eta errentatzaileak erreferentzia-indizeetara edo bitartekaritza publikoko prezioetara mugatu badu alokairu-errenta.»

Aurrekoaren osagarri eta behar iraunkorra asetzen duen etxebizitzaren errentamenduaren sustapenaren akuilu gisa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 63. artikulua aldatzen da, etekin horiek aurrezkiaren errenta osatzen dutenen artean sartzeko.



Erabilera iraunkorreko etxebizitzaren errentamendua sustatzeko ildo beretik, turismo-etxebizitzaren edo sasoiko etxebizitzaren errentatzaileak hobari txikiago bat izango du, etekin osoaren gaineko 100eko 20. Hala berean, inbertitutako besteren kapitalen interesak kengarriak izango dira eta etekin garbia zergaren zerga-oinarri orokorrean txertatuko da.

Alokairuan jartzen diren ohiko etxebizitzaren parkea sustatzearen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 87 bis artikuluko berriko errentamenduaren xede den etxebizitza birgaitzeko zenbatekoen 100eko 18ko kenkaria xedatu du, birgaitzea eskuratzeagatik kenkariari doakionez araututa dauden baldintzetan ulertuta, desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonen etxebizitzetako egokitzapen-lanak ere aintzat hartuta, urtean, gehienez ere, 3.000 euroko kenkari-muga ezarrita. Kenkari hori kapital higiezinaren etekin garbia 100eko 30eko eta 100eko 70eko hobari-ehunekoa erabiliz zehazten duten zergadunek baino ezin izango dute aplikatu, eta hobari horrek ez du gutxituko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 87.3 artikuluko xedatutako 36.000 euroko kreditu fiskala.

Tokiko tributazioaren arloan, errentatzailearen fiskalitateaz denaz bezainbatean, azken finean, aldatu egin da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren 10. artikuluko 5. apartatua, eta aukerako hobari bat ezarri da udalerrietan, zergaren kuota osoaren 100eko 99rainokoa, autonomia-erkidegoek, foru-aldundiek edo udalek sustatutako antzeko etxebizitza-plan eta -programetan lagatzen diren ondasun higiezinaren kasuan baliatzeko.

Hala azalduz etxebizitzaren errentatzailearen fiskalitatea, eta Lurralde Historikoko zerga-sistemaren berrikuspenaren xedea etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzea izanik, ezin da alde batera utzi, azken batean, eskubide horren titularrak den pertsona, hau da, errentaria.

Ildo horretan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 86. artikulua aldatzen da, eta tratamendu fiskal faboragarria merezi duten beste gizatalde kaltebera batzuk aintzat hartzen dira araudian. Horrela, ehuneko 35eko kenkaria baliatu ahalko dute ohiko etxebizitza alokatzearen zioz dena delako zergaldian ordaindu diren zenbatekoek, urtean 2.800 euroko kenkari-muga ezarrita, baldin eta, besteak beste, hauek eginak badira: familia ugariaren titular diren zergadunak, guraso bakarrak eta horien ondorengoek osatutako familia-unitate bateko kide diren zergadunak, 36 urtetik beherako zergadunak, % 65eko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta daukaten zergadunak edo mendetasun-graduren bat aitortuta daukatenak, eta etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimatzat jotzen diren pertsona zergadunak, edo adingabeekin batera edo ordezkapen-ahalmena duen kuradoretza (batzuen edo besteen zaintza etxeko indarkeriagatik edo genero-indarkeriagatik esleitu zaielarik) ezarrita daukaten adinekoekin batera familia-unitatea osatzen duten zergadunak.

Hala ere, etxebizitza duinaren bermea sustatzeak ez du alde batera utzi behar edozein zerga-sistema izan behar duen oinarrizko printzipioetako bat, hau da, ahalmen ekonomikoarena, zerga-karga modulatzeko baitu pertsonak karga horri erantzuteko daukan gaitasunaren arabera. Alde horretatik, kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da zergadunak likidazio-oinarri orokor bat izatea, eta, hala badagokio, beharrezkoa izango da aurrezkiaren likidazio-oinarri bat izatea, 68.000 eurokoa edo hortik beherakoa.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, esan beharrik ez dago eskuratutako eskubideekiko errespetuari eutsi behar zaiola beti; beraz, aurreko neurria 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatzen edo luzatzen diren errentamendu-kontratuak soilik aplikatuko da.

Bestalde, ohiko etxebizitza erosteari gagozkiola, arestian aipatu dugun ildotan, hau da, gaztetzat hartuko direla 36 urtetik beherakoak (lehen 30 urterainoko gazteak jotzen ziren halakotzat); 30 eta 35 urte bitartekoak osatzen duten gizatalde horrek 100eko 23ko kenkari-ehuneko areagotua baliatzea izango du, urteko 1.955 euroko muga ezarrita. Muga berri horiek ohiko etxebizitza alokatzeagatik kenkariaren ehuneko areagotuak baliatzea duten gizataldeei ere aplikatuko zaizkie, etxebizitza-kontuaren modalitatean erostegatik kenkariaren kasuan izan ezik.



Era berean, etxebizitza erosteko banku-kredituaren egungo egoera arintze aldera, eta nola, oro har, ez denez finantzaketarik ematen etxebizitzaren guztizko kostuagatik, beharrezkotzat jo da ohiko etxebizitzaren erosketa formalizatzen den zergaldiko gehieneko kenkariaren aurreko muga kentzea, soil-soilik 36 urtetik beherako zergadunentzat; hala, zergadun horiek aukera izango dute ordaindutako zenbatekoengatik kenkaria agortzeko kuota osoaren mugaraino. Hori guztia ahalbidetu da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 87. artikulua idazketa berria izango duelako aurrerantz.

Ohiko etxebizitza erosteari dagokionez, 10 urtera luzatu da etxebizitza-kontuan gordetako zenbatekoak erabiltzeko epea, baldin eta kontuaren titularrak, irekitzen denean, 36 urte baino gutxiago baditu. Hala, zergaren foru-arauaren xedapen gehigarri eta berri batean arautu denez, etxebizitza-kontua irekitzeko unean zergaduna 36 urtetik beherakoa bada eta 2024ko abenduaren 31n aurreko 6 urteko epea amaitu ez bazaio, ohiko etxebizitza erosteko gordailutu dituen zenbatekoak erabiltzeko epea 10 urtekoa izango da, kontu hori irekitzen den egunetik zenbatzen hasita. Kontzeptu horren ziozko kenkaria 100eko 23 da 36 urtetik beherako zergadunentzat, 1.955 euroko muga ezarrita dagoela.

Ohiko etxebizitzaren errentamenduaren kasuan gertatzen den moduan, betiere ahalmen ekonomikoaren printzipioa babestearren, ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria aplikatzeko beharrezkoa izango da zergadunak likidazio-oinarri orokor jakin bat izatea, eta, hala badagokio, beharrezkoa izango da aurrezkiaren likidazio-oinarri bat, 68.000 eurokoa edo hortik beherakoa. Muga hori kasu hauetan aplikatuko da: 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera erositako etxebizitzaren kasuan edo eskuratzearekin parekatutako eragiketen kasuan, data hori baino lehen etxebizitza eskuratu zuten pertsonen eskubideak errespetatze aldera.

Ohiko etxebizitza erosteari doakionez, orobat, aipatzekoa da zergaren foru-arauaren 49. artikulua ohiko etxebizitza eskualdatzetik eta berrinbertiztetik eratorritako irabaziei emango dien tratamendu berria. Horren harian, zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik lortu diren ondare-irabaziak ez dira zergapetuko, betiere etxebizitza aldatzea justifikatzen duen inguruabarren bat gertatzen bada. Foru-arauak aldaketa hori justifikatzen duten inguruabarren zerrenda ez-itxia jasotzen du, eta aukera ematen du zerrenda hori erregelamendu bidez handitzeko. Inguruabar horiek, esate baterako, honako hauek dira: eskualdatutako etxebizitza zergadunaren edo bizikideen familia-premietara ez egokitzea; lan-arrazoiak direla eta lekualdatzea edo lehen enplegua edo enplegu berria lortzea; ezkontzea edo izatezko bikotea eratzea, bai eta ezkontzako bantantzea edo izatezko bikotea azkentzea ere; etxebizitzaren ordainketa egitea eragozten duten inguruabar ekonomikoak edo antzeko beste inguruabar batzuk ere justifikatzeko modukoak izan daitezke.

Era berean, eskuratutako eskubideak babestearren, komeni da neurri horren aplikazioa mugatzea 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera erositako ohiko etxebizitzetara.

Aurreko guztiaren osagarri, eta ohiko etxebizitza erosteari gagozkiola, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko foru-arauaren 12. artikulua 10. apartatuan jaso den salbuespen berria nabarmendu behar dugu, eskudiruzko dohaintza jakin batzuen kariaz foru-arau honen bidez txertaturikoa. Ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurretikoek, ondorengoek edo hirugarren mailarainoko alboko ahaideek egin beharko dituzte hizpide darabiltzagun dohaintza horiek, ohiko etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko, eta dohaintza guztien gehieneko zenbatekoa 30.000 euro izango da. Salbuespena aplikatzeko, eskatuko da zergaren autolikidazioa aurkeztea eta dohaintzan emandako zenbatekoak etxebizitza erosteko —gehienez ere 2 urteko epean— erabili direla frogatzea. Gazteen gizataldearen aldeko zeharkako neurriekin bat etorriz, dohaintza-hartzaileak 36 urtetik beherakoa izan beharko du zergapeko egitatea gertatzen den unean.

Zuzeneko fiskalitateari eragiten dioten etxebizitzari buruzko xedapenak azalduta, zeharkako zergapetzeari doakionez, bi neurri jaso dira kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

Hasteko eta bat, zergaren foru-arauaren 13. artikulua c) letra aldatu da, betekizun hau kentzeko: alegia, eskuratzailak ohiko etxebizitza bera edo beste bat eskuratu



aurretik ez aplikatu izana 100eko 2,5eko tasa. Bigarrenik, errentamenduaren arloan, 46. apartatu berria txertatzen da 58. artikuluan, erabilera egonkor eta iraunkorrerako etxebizitza-errentamenduen salbuespena ezartzearen.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistemaren berrikuspenak hirugarren erronka bati egin behar dio aurre, alegia, gizarte-aurreikuspenari.

Arlo horretan, kontuan izan behar dugu lan-bizitzan metatu den aurrezkoa eskura izatea biziki lagungarria dela, inolako zalantzarik gabe, erretiroaren osteko edo beste egoera berezi batzuetako bizi-baldintzak hobetzeko, gizabanakoen gastu-premiei egoki erantzuten baitie. Beraz, aurrezpena sustatzea, zahartzaroari, gaixotasunei, desgaitasun- edo mendetasun-egoerei erantzuteko gizarte-aurreikuspeneko eskemak garatuz, zutabe garrantzitsua da herritarren ongizatea hobetzeko.

Bidenabar, abian jarritako erreformen eta pentsioen sistema publikoan beharrezko-tzat jotzen diren etorkizuneko beste erreforma batzuen helburua sistemaren iraunkortasuna bermatzea da, gure ordezen-tasa eta gure inguruko herrialdeetako bat etorriko direlakoan, gaur egungoa baino askoz ere txikiagoa izango baita. Hori dela eta, are garrantzi handiagoa izango du orduan plangintza pribatuak, pentsio publikoak ziurrenik betetzeari utziko dion eremu hori estali ahal izateko, eta, horren barruan, enpresen gizarte-aurreikuspenak.

Zuzenbide substantiboaren ikuspegitik hartu diren azken neurri arau-emaielen oinarria hau da: uste osoa dugu gizarte-aurreikuspen osagarria gazte-denborarik orokortzeak, ekarpen partekatuak eginda, eskubide ekonomiko nahikoak metatuko dituela etorkizuneko kontingentziei aurre egiteko. Horrez gain, prestazioak errenta gisa kobratzearekin bat datorren tributazioa kontuan hartzen badugu, benetako aurreikuspen-sistema osagarri bat, propioa eta ibilbide luzekoa, erdietsiko da.

Esandako guztia aintzat hartuta, eta erakunde eskudunek lehen aipatutako helburuak betetzeko zuzenbide substantiboaren aldetik gauzatu dituzten azken ekimenei erreparaturik, Bizkaiko Lurralde Historikoko fiskalitatearen arloan beharrezkoak diren neurriak hartuko dira bigarren zutabea apurka-apurka finkatzeko pentsio publikoen osagarri gisa.

Oro har, foru-arau honen III. kapitulua 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Hala ere, gizarte-aurreikuspeneko sistemetatik jasotzen diren prestazioei emango zaien tratamendu berria dela eta, egokitu egin behar dira entitate ordaintzaileek Foru Ogasunari tributuen arloan garrantzia duen informazioa emateko prozedurak. Horrenbestez, egokitzapen horiek errazte aldera, aurreikusi da gizarte-aurreikuspeneko sistemetatik jasotzen diren prestazioen tributu-tratamendua arautzen duten xedapenak 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko direla indarrean. Era horretara lortuko da jasotako informazioa tributuaren kudeaketa egokia egiteko beharrezkoak diren betekizunen arabera izatea.

Foru-arau honetako neurrien analisiari ekingo diogu. Haiek oro har ulerterrazagoak izan daitezken, eta kontuan edukita nola aldatzen duten orain artean indarrean egon den araubidea, ukitzen dituzten zergen arabera azalduko dira, eta zerga bakoitzaren barruan zerga-kargaren elementuak xehatuko dira. Hain zuzen ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen, batetik, prestazioen araubideari eragiten dioten neurriak daude, bestetik zerga-oinarriaren murriztapenen araubidea ukitzen dutenak, eta azkenik zergaren kuota osoaren kenkari berriei buruzkoak. Beste alde batetik, sozietateen gaineko zergen, kenkari berriak ezartzen dira zergaren kuota likidoan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen prestazioei emango zaion tratamendua dela eta, bereizketa bat egingo da: batetik, ekarpenen eta kontribuzioen zatia; bestetik, lortutako errentagarritasunaren zatia.

Horrenbestez, ontzat emanik egia dela aurrezki-produktu baten errentagarritasuna kapital-etekintzat jo behar dela, aldatu egin da zergaren foru-arauaren 37. artikulua, halakotzat jotzeko foru-arauaren 18. artikulua a) letran ezartzen diren prestazioak jasotzen direnean agerian jartzen diren errentagarritasuna, salbuespen batzuekin. Etekin mota horiek ezin izango dituzte baliatu Zergari buruzko Foru Arauaren 39.3 artikuluan aurreikusitako 100eko 60 edo 50eko integrazio murriztuko ehunekoak.



Aurrekoarekin estu lotuta, kontuan eduki beharko da prestazioa nola jasotzen den. Hain zuzen ere, kapital moduan jasoz gero, zergaren foru-arauaren 19.2.b artikuluan ezarri berri den integrazio-ehunekoa (100eko 70) kapital moduan jasotakoari soilik aplikatuko zaio, eta, are gehiago, ekarpenei eta kontribuzioei dagokien zatiari baino ez, aurreko arautegian ezarritako ildotik: zergaren gehikortasunak eduki litzakeen ondorio kaltegarriak murrizten ahalegintzea. Tratamendu horretatik kanpo geratuko dira Gizarte Segurantzaren prestazioak, funtzionarioen mutualitateen prestazioak eta hautazko sistema gisa funtzionatzen duten autonomoen mutualitateen prestazioak.

Aurrekoa gorabehera, zergaren foru-arauaren hogeita hamazortzigarren xedapen iragankor berriaren arabera, 2025eko abenduaren 31n indarrean dagoen arautegia aplikatu ahal izango zaio 2025eko abenduaren 31 baino lehen enpresek egindako ekarpenen eta kontribuzioen ondorioz kapital gisa jasotako prestazioen zatiari.

Beste alde batetik, prestazioa errenta moduan jasoz gero, eta ageriko asmoa errenta horiek pentsioen sistema publikoen benetako osagarri izatea dela, 38. apartatua erantsen zaio zergaren foru-arauaren 9. artikuluari; horren arabera, salbuesita geratzen da errenta modura jasotzen diren aurreikuspen-sistemen prestazioak. Aurreko kasuan bezala, horretatik kanpo geratzen dira Gizarte Segurantzaren prestazioak, funtzionarioen mutualitateen prestazioak eta hautazko sistema gisa funtzionatzen duten autonomoen mutualitateen prestazioak. Salbuespen hori aplikatzeko, ezinbesteko betekizunak dira, batetik, eraturako errenta biziartekoa izatea, edo, aldi baterako errenta bada, gutxienez 15 urteko iraupena izatea, iraupen hori bera ezartzen baitu legedia substantiboak prestazioa errenta-finantza gisa jaso ahal izateko, eta, bestetik, zenbateko konstantea izatea, arrazoi teknikoek edo finantzarioek zenbatekoari eragindako aldaketak gorabehera.

Ezarritako guztiarekin bat etorritik, eta sistema koherentea izan dadin, zergaren foru-arauaren 63. artikulua aldatzen da, aurreko errentagarritasun hori aurrezkiaren oinarrikoa dela adierazteko.

Aurreko guztia gorabehera, nahiz eta, arestian adierazi den bezala, aurrezpen-produktu baten errentagarritasunaren berezko izaera dela-eta errentagarritasun hori kapital-errendimendutzat hartu behar den, ez da ahaztu behar orain arte ez zegoela bereizketarik prestazioen tratamenduari dagokionez ekarpen eta kontribuzioen itzulketaren eta aurrezki-produktuaren errentagarritasunaren artean; izan ere, horrek guztiak tributuaren zerga-oinarri orokorrean txertatutako lan-etekin gisa tribututzen zuen. Aurrekoaren ondorioz, entitate ordaintzaileek, zenbait kasutan, ez dute eskura prestazioaren zati bakoitzari tratamendu fiskal berezia emateko behar duten informazioa. Hortaz, eta aipatutako entitateek eman beharrekoa den informazioan dagoen hutsune hori arintzeko, ezinbestekotzat jotzen da produktuaren errentagarritasun positiboa zehazteko kalkulu-metodo bat arautzea.

Berrogeita bigarren xedapen gehigarri berria informazioaren hutsunea betetzeko ezarri da, eta, horretarako, errentagarritasun positiboa zehazteko arau bat finkatu da, zeina aplikatuko baita baldin eta betebeharreko entitateak Administrazioari eman ez badio produktuaren errentagarritasunari edo, hala badagokio, jasotzaileak gizarte-aurreikuspeneko sisteman duen antzinasunari buruzko informazioa.

Horrela, horretarako baldintzak betetzen badira, aipatutako errentagarritasun positiboa honela kalkulatu da: 100eko 1eko portzentajea aplikatuko zaio aipatutako aurreikuspen-sistemako prestazioak jasotzen dituen pertsonak sistema horretan duen antzinasun-urte bakoitzeko jasotako prestazioaren zenbatekoari, 100eko 35eko mugarekin. Era berean, informazioa emateko betebeharra duten entitateak ez badute zerga-administrazioaren esku jartzen jasotzaileak gizarte-aurreikuspeneko sisteman duen antzinasunari buruzko informazioa, errentagarritasuna kalkulatu da jasotako prestazioaren zenbatekoari 100eko 25eko portzentajea aplikatuta.

Beste alde batetik, zerga-oinarri orokorraren murriztapenak direla eta, zergaren foru-arauaren 71. artikulua aldatzeko bi alderdi dauzka. Batetik, 1. apartatuaren b) letran ezartzen den 8.000 euroko mugaren barruan sartuko dira bazkideek, partaideek, aseguratuek eta mutualistek gizarte-aurreikuspeneko sistema horretara egindako ekarpenak, bai negoziazio kolektibo batean hitzartutakoak, bai langileen erabakien ondorioz-



koak. Horrenbestez, hemendik aurrera, hitzarmenetan adostutako ekarpenei, langileen erabakien ondoriozko ekarpenei ematen zaien tratamendua emango zaie.

Era berean, araudia aplikatzean nahi ez den egoerarik gerta ez dadin, ezartzen da ezen, enpresaburu indibidualak edo profesionalak gizarte-aurreikuspeneko planei edo mutualitateei, enpleguko pentsio-planei edo enpresako gizarte-aurreikuspeneko planei edo mendekotasun-aseguru kolektiboek —zeinetan aldi berean sustatzaile eta partaide baita, edo mutualista, hartzaile edo bazkide babesle eta onuradun baitira— egiten dizkien ekarpen propioak 8.000 euroko muga horren barruan sartuta daudela uler dadin, ekarpen horiek proportzionaltasun-maila jakin bat izan beharko dutela enpresaburu indibidualak edo profesionalak bere ardurapean dituen langileen alde egiten dituen kontribuzioekiko, soldata-portzentaje bat, proportzio ekonomiko bat edo antzeko beste inguruabar batzuk kontuan izanik.

Beste alde batetik, autonomoen aldeko aurreikuspen-sistemak abian jartzeko arrazoia da pertsona horiei aurrezteko aukera hobea ematea, orain arte banakako planetan baino ezin baitute inbertitu, eta horrek mugak dauzka. Hori dela eta, fiskalitateak urtean 4.000 euroko muga berri bat arautzen du enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen baturarako, sistema horietan partaide edo bazkide osoak norberaren konturako langileak edo autonomoak diren kasurako. Muga hori aplikatuko zaie, halaber, beren ardurapean langilerik ez duten autonomoek enplegu-aurreikuspeneko sistemei egiten dizkieten ekarpenei.

Nolanahi ere, bere hartan mantentzen da enpresek gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen eta kontribuzioen baterako muga bat: aurrerantzean, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, 10.000 euro urtean. Lehentasuna edukiko dute enplegu-sistemetara egindakoek. Ondorioz, 12.000 euroko baterako muga mantentzen da data horretara arte.

Berrikuntza berezia dago zergaren kuantan, zenbait kenkari arautzen baitira gehikortasunarekin ezarri ahal izateko enpleguko aurreikuspen-sistemak sistema publikoen osagarri gisa, eta horretarako VI bis kapitulua gehitzen zaio pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren foru-arauaren VII. tituluari. Horren barruan 91 bis eta 91 ter artikulua daude.

Neurri horien ardatz nagusiak enpresen gizarte-aurreikuspena eta negoziazio kolektiboa izango dira. Neurriok arrakasta edukiko badute, ezinbestekoa da langileek zein enplegatzaileak ardura hartzea eta denak izatea protagonista.

91 bis artikuluan arautzen da borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planetara egiten diren ekarpenengatik aplikatu daitekeen kenkaria. Kenkari-ehunekoak gehikorrak dira: langilea lanean ari den entitate osoaren urteko soldata gordinean ekarpen eta kontribuzio guztien zenbatekoak duen portzentajearen arabera aldatzen dira. Horren helburua argia da: sustatzea enplegatzaileek zein langileek arian-arian enpleguko aurreikuspen-sistemak ezartzea. Hain zuzen ere, behetik hasita, kenkaria 100eko 15ekoa izango da enpresaren ekarpenen eta kontribuzioen guztirako zenbatekoa urteko guztirako soldata gordinaren 100eko 3 edo gehiago eta 100eko 5 baino gutxiago bada; goitik, berriz, kenkaria 100eko 25ekoa izango da ekarpenen eta kontribuzioen zenbatekoa urteko guztirako soldata gordinaren 100eko 8tik gorakoa bada edo zergadunak 36 urte baino gutxiago badauzka zerga sortzen denean. Ekarpenen eta kontribuzioen guztirako zenbatekoa kontuan hartzeko arrazoia hauxe da: ikuspegi substantibotik ezinbestekoa da ekarpenak eta kontribuzioak batera biltzea aurreikuspen-sistema horietan.

Kenkariaren oinarrian honako ekarpen hauen batura da: zergadunak negoziazio kolektiboaren ondorioz egindako ekarpenak, zerga-oinarria murriztu dutenak. Gainera, kuota osoa nahikoa izan ez eta aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo bost zergaldieta-ko aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.

Aurrekoa gorabehera, berrogeigarren xedapen gehigarri berrian bost urterako araubidea ezartzen da, 2029ko ekitaldira arte (bera barne). Horren arabera, kenkaria 91 bis artikuluan ezartzen den bezala aplikatu ahal izango da, nahiz eta enpresak ordaintzen duen urteko guztirako soldata gordinaren estalduraren ehunekoak ez izan nahiko kenka-



ria aplikatu ahal izateko. Horren ildotik, zergaren kuotan 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango da enpresak egindako ekarpenen eta kontribuzioen guztirako zenbatekoa entitate enplegatzailearen urteko soldata gordinaren 100eko 3 baino gutxiago denean.

Azken batean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, eta enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sisteman partaide eta bazkide osoak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak badira edo beren ardurapean langilerik ez duten autonomoak badira, badago berariazko muga bat ezarrita sistema horietara egindako ekarpenengatik zerga-oinarri orokorrean aplikatu daitekeen murriztapenerako; bada, hori aintzat hartuta, 91 ter artikuluan berriaren kenkari bat ezartzen da halako aurreikuspen-sistemetara egiten diren ekarpenengatik: zergadunaren zerga-oinarria murriztu duten ekarpenen baturaren 100eko 10, orokorrean, edo 100eko 15, ekarpenak 36 urtetik beherako batek egin baditu. 91 bis artikuluan arautzen den kenkariarekin bezala, kuota osoa nahikoa izan ez eta aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo bost zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira.

Aurreko guztia gogoan hartuta, ez da ahaztu behar borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateen lehentasunezko aurreikuspen-planek gainera badaudela enpresen gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuk ere. Horregatik, berrogeita batgarren xedapen gehigarri berriaren honako hau ezartzen da xede bereko aurreikuspen-sistemen arteko diskriminaziorik ez gertatzeko: 91 bis eta 91 ter artikuluetan eta berrogeigarren xedapen gehigarrian arautzen diren kenkariak enpleguko beste aurreikuspen-sistema batzuetara egindako ekarpenei aplikatuko zaizkie, baldin eta, kasu bakoitzerako ezartzen denarekin bat etorritz, arautegi aplikagarrian aurreikuspen-plan horietarako ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Sozietateen gaineko zergara etorrira, zergaren kuota likidoan aplikatuko diren bi kenkari sortzen dira, foru-erakundeek enpresen gizarte-aurreikuspena arian-arian pentsioen sistema publikoaren osagarria bilakatzearen alde egin duten apustu sendoa berresteko. Izan ere, Aldundiak sustatu nahi du enplegatzaileek eta langileek batera jardutea gizarte-aurreikuspenean.

Kenkari horietako lehena 66 septies artikuluan arautzen da: kenkaria aplikatu ahal izango da enpresek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateen lehentasunezko aurreikuspen-planetara egiten dituzten kontribuzioengatik, baldin eta zergan langileei egotzi bazaizkie. Kenkari honetan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, ehunekoa enpresaren kontribuzioen guztirako zenbatekoaren eta enplegatzailearen guztirako soldata gordinaren arteko portzentajearen arabera izango da. Hain zuzen ere, behetik hasita, kenkaria 100eko 15 izango da enpresaren kontribuzioak, zergan langileari egotzitakoak, guztirako soldata gordinaren 100eko 1,5 edo gehiago eta 100eko 2,5 baino gutxiago badira; goitik, berriz, kenkaria 100eko 25 izango da kontribuzioak guztirako soldata gordinaren 100eko 4 edo gehiago badira edo zergadunak 36 urte baino gutxiago badauzka. Kasu honetan kontribuzioak baino ez dira hartuko kontuan kenkari-ehunekoa zehazteko, eta horren arrazoia honako hau da: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, egotzitako kontribuzioak gauzazko ordainsari modura kargatzen dira eta murrizketa eragin dezakete zerga-oinarri orokorrean; oster, sozietateen gaineko zergan enplegatzaileek egindako kontribuzioek baino ez dute eragina.

Beste alde batetik, enpresen gizarte-aurreikuspeneko beste sistema batzuk ere aintzat hartzen dira, eta horietarako kenkaria ezartzen da, aurrekoa baino txikiagoa, arlo honetako erreformari eutsi nahian: lortu nahi da enpresen gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egiten diren kontribuzioen zenbatekoa enplegatzaileak ordaintzen duen urteko oinarritzko soldataren zentzuzko ehunekoa izatea. Kasu honetan, 66 octies artikuluan berriaren ezartzen da zergan egotzitako kontribuzioen 100eko 10eko kenkaria aplikatu daitekeela, baldin eta horien zenbatekoa enplegatzaileak ordaintzen duen urteko oinarritzko soldataren 100eko 1,5 edo gehiago bada edo 36 urtetik beherako alde egindakoak badira.

Halaber, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren hogeita hamabigarren eta hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrietan aldi baterako araubidea ezartzen da 2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko



abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldietarako. Horren arabera, sistema arian-arian ezartzea lortu nahian, kenkari-ehuneko txikiagoak aplikatuko dira sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren 66 septies eta 66 octies artikuluetan kenkariak aplikatzeko ezartzen diren gutxieneko baldintzak betetzen ez direnean.

Azkenik, gizarte-aurreikuspenaren arauketarekin amaitzeko, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarri berriak sozietateen gaineko zergaren eremura dakar aurrean enpleguko lehentasunezko aurreikuspen-planei buruz ezarritakoa, baldintza horiek betetzen badituzte beren zehaztapenekin bat etorritz.

Laugarren erronka trantsizio berdea da.

Europar Batasunaren ingurumenaren arloko politikaren oinarritzko printzipioetako bat «kutsatzen duenak ordaindu behar du» da. Printzipio horren arabera, kutsatzen duenak bere kutsaduraren kostu guztiak ordaindu behar ditu, are kutsadura ez sortzeko eta kutsadura kontrolatzeko eta konpontzeko neurrien kostuak eta gizarteak jasaten dituen kostuak ere. Printzipio horrek pizgarriak ematen dizkie kutsatzaileei ingurumenari kalte ez egiteko, eta sortzen duten kutsaduraren erantzukizuna hartzera behartzen ditu. Gainera, horri esker zergadun guztiak ez baizik eta kutsatzen dutenek baino ez dituzte ordaintzen kutsadura konpontzeko kostuak.

Hala ere, neurri horiek zerga-kargaren zati bat gehien kutsatzen duten jardueretara lerratzen dutenez gero, osatu egin behar dira, eta lortzen diren diru-sarrerak beste era batera esleitzeko jarduketak baliatu, zerga-sistemaren oreka orokorra aldatzearren: esaterako, pizgarriak emanez jokabide ekologikoetarako, eta, horretarako, zerga-onurak ezarritu ingurumenekoak ez diren tributuen ordainketan.

Horren ildotik, foru-arau honetan ezartzen diren aldaketak lagungarriak izango dira klima-aldaketak, ekonomia zirkularrak, mugikortasun jasangarriak eta trantsizio energetikoak ingurumenerako ekarriko dituzten erronkei aurre egiteko, deskarbonizazio-prozesua bultzatuko baitute industrian eta garraioan eta eskaria kontsumo-eredu jasangarrietara bideratuko baitu.

Hala ere, energia ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren ereduak aldatzeko pizgarriak ezin dira izan sine die, batez ere kontuan hartzen bada helburu orokorra dela 2050erako lortzea karbono-neutraltasuna, hau da, berotegi-efektuko isurketak murriztea eta saihestea.

Aitzitik, pizgarriek mugaeguna eduki behar dute, hain zuzen ere administrazio publiko eskudunek prestatutako trantsizio energetikorako planetan ezartzen denaren arabera mugaeguna. Horrenbestez, foru-arau honen IV. kapituluaren arautzen den araubidea 2025-2035 bitarteko zergaldietan aplikatuko da (biak barne) pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketan, eta 2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasten diren zergaldietan sozietateen gaineko zergaren ordainketan. Aldi hori amaitutakoan, analisisia egin behar da egoera nolakoa den argitzeko.

Aurrekoa finkatuta, jarraian mugikortasun jasangarriari helduko diogu, eta lehen-lehenik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aldaketak azalduko ditugu.

Hain zuzen ere, i) letra gehitzen zaio pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 17.2 artikuluari; horren bitartez ez da gauzazko ordainsaria izango langileak enplegatzailaren hiriko bizikleta erabiltzea bere ohiko bizilekuaren eta lantokiaren arteko joan-etorrietarako.

Ildo beretik, zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntean, aldatu egiten dira jarduera ekonomikoaren etekin garbia kalkulatzeko arauak. Batetik, eguneratu egiten dira jarduerari lotutako ibilgailuaren gastuen mugak. Bestetik, ibilgailu-kategoria berria sartzen da, hain zuzen ere gutxi kutsatzen duten edo kutsatzen ez duten ibilgailuen kategoria: ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) eta erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH). Ibilgailu horien eskuratze-preziotik, gehienez 40.000 eurok sortuko dute gastuen kenkaria aplikatzeko eskubidea; gainerako ibilgailuetan 30.000 euro izaten dira. Horiek guztiak direla eta, zergaren foru-arauaren 27. artikuluen 5. arauaren apartatu batzuk aldatu behar izan dira.



Halaber, gauzako errentak balioesteko arauei dagokienez, zergaren foru-arauaren 60. artikulua aldatzen da, eta horren arabera, oraindik aurrera aurreko paragrafoan aipatzen diren ibilgailu erabilien balioespena (eskurapen-prezioaren 100eko 20) ehuneko 30 murriztu ahal izango da, are lagatzailearen jabetzakoa ez denean ere.

Beste alde batetik, zergaren kuotaren kenkariak direla eta, VII. tituluari VI ter kapitulua gehitzen zaio (Kenkariak mugikortasun jasangarrian eta efizientzia eta trantsizio energetikoan), eta horren barruan 91 quinques artikulua gehitzen da («Kenkaria ingurumena errespetatzen duten ibilgailua eskuratzeagatik»). Horren arabera, zenbait baldintza betetzen dituen ibilgailu berri bat (bakarra) erosteagatik horren eskurapen-balioaren 100eko 5 kendu ahal izango da, ibilgailua honelakoa izanez gero: ibilgailu elektriko bateriaduna (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoa (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoa (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (EPIEH). Zergadunak bere ibilgailu bat txatarrerako utzi badu arauz ezartzen den bezala, kenkaria 100eko 10 izango da. Kenkari honen gehieneko oinarria 10.000 euro izango da motozikleten kasuan eta 40.000 euro gainerako ibilgailuen kasuan. Horrez gainera, kontuan eduki behar da erosketarekin parekatuko dela errentamendua, baldin eta errentatzaileak zergadunaren esku jartzen badu arestian aipatu diren ibilgailuetako bat eta trukean kuota hitzartu batzuk jasotzen baditu aldi jakin batez. Edozelan ere, erosi ondoren ibilgailua jarduera ekonomiko bati lotuta geratzen bada, galdu egingo da egindako kenkaria aplikatzeko eskubidea.

Aurreko kenkariarekin estu lotuta dago VI ter kapituluaren 91 sexies artikuluan arautzen den kenkari berria: kenkaria ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntua instalatzeagatik. Horren arabera, zergadunak bere gauzetarako erabiltzen duen bere ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntua bere finka batean edo jabea den aldetik partaidetza-kuota ordaintzen duen garaje komunitario batean instalatzeko ordaindutako zenbatekoaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatu dezake. Zergadun bakoitzaren kenkari-oinarria 5.000 euro izango da gehienez instalazio bakoitzeko, eta kargatzeko puntuaren instalazioa amaitu eta abian ipintzen den zergaldian aplikatuko da.

Beste alde batetik, sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren 31. artikulua aldatzen da. Aldaketa horren arabera, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, jarduerari lotutako ibilgailuaren gastuen mugak eguneratzen dira eta ibilgailu-kategoria berri bat sartzen da, hain zuzen ere gutxi kutsatzen duten edo kutsatzen ez duten ibilgailuen kategoria. Ibilgailu horien eskurapen-preziotik, gehienez 40.000 eurok sortuko dute gastuen kenkaria aplikatzeko eskubidea; gainerako ibilgailuetan 30.000 euro izaten dira.

Mugikortasun jasangarria sustatzeko neurrien artean, berrikuntza garrantzitsua dago enpresa txikiak babesteko: sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren 21. artikuluari g) letra gehitzen zaio, eta horren arabera mikroenpresek eta enpresa txikiek nahi duten bezala amortizatu ahal izango dituzte ibilgailu horietan egiten dituzten inbertsioak. Enpresa ertainek ibilgailu horiek azkar amortizatu ahal izango dituzte honako koefiziente hau aplikatuz: zergaren foru-arauan ezartzen den amortizazio-koefiziente handiena 1,5ez biderkatzearen emaitza.

Nolanahi ere, aurreko kasuetan garraio-elementuak erabiltzeari buruz 31. artikulua-ren 3. apartatua ezartzen diren arauak ez zaizkie aplikatuko ibilgailu horien amortizazioagatik kontabilizatutako gastuei.

Beste alde batetik, 66 nonies artikulua gehitzen da, mugikortasun jasangarria sustatzeko lan-arloan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 17.2 artikulua-ren i) letra berriaren osagarri. Horren arabera, enpresek kenkaria aplikatu ahal izango dute langileek etxearen eta lantokiaren arteko joan-etorrietan erabiltzeko hiriko bizikletetan egiten dituzten inbertsioengatik. Kenkaria 100eko 10 izango da, eta kenkariaren oinarriak mugak edukiko ditu, bai bizikletako, bai guztirako inbertsioan, entitatearen tamainaren arabera; 15.000 euro urtean zergaldiko mikroenpresa eta enpresa txikientzat, eta 20.000 euro gainerako entitateentzat. Kenkari-ehuneko bera aplikatuko zaie hiriko bizikletak aparkatzeko azpiegitura egokitueta egiten diren inbertsioei; kasu horretan, kenkariaren oinarria 10.000 euro izan daiteke gehienez.

Azkenik, mugikortasun jasangarriaren arloan, tokiko tributazioan zenbait zergaren arautegiak aldatzen dira (ondasun higiezinaren gaineko zerga, jarduera ekonomikoaren gai-



neko zerga eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga) eta aukerako hobariak ezartzen dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioen inguruan: gehiezez kuotaren 100eko 50.

Fiskalitate berdearen erronkaren funtsezko beste alderdi bat etxebizitzaren birgaitze energetikoa da. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 91 quater artikulua berriarazten da kenkaria aplikatu ahal izango dela ohiko etxebizitzaren edo etxebizitza-beharrizana asetzeko errentan hartutako etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzeko eta energia berriztagarriak ezartzeko obrak egiteagatik: berokuntza eta hozkuntza gutxiago erabiltzeko obrak, berriztagarria ez den energia primarioaren kontsumoa hobetzeko obrak eta batez ere bizileku modura erabiltzen diren eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko egiten diren birgaitze energetikorako obrak.

91 quater artikulua 2. apartatuan, kenkarirako onartuko diren obra eta instalazio motak zehazten dira, eta ezartzen da komunitate energetikoek kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dutela, baldintza batzuk betez gero. Gainera, hau ere arautzen du: baliabide berriztagarrien bitartez energia termikoa edota elektrikoa sortzeko proiektuak gauzatzea sozietate-xedetzat duten entitateen kasuan, haien funts propioen akzioak, partaidetzak edo beste partaidetza-tresna batzuk eskuratzea, ekipo horietan inbertsioak eginez.

Kenkariaren urteko gehieneko oinarria 20.000 euro izango da, jasotzen diren dirulaguntzak zenbatu gabe, eta kenkaria 100eko 15 izango da. Kuota osoa nahikoa izan ez eta aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, eta zenbait agiri eskatuko dira pizgarria jasotzen duen obraren edo inbertsioaren arabera.

Fiskalitate berdearen barruko hirugarren eremua trantsizio energetikoa da, hau da, ekoizpen-eredua aldatzea ingurumenaren babesarekin eta garapen jasangarriarekin lotutako parametroak txertatzeko. Horren ildotik, fiskalitatearen bidez ekoizpena deskarbonizatzen lagundu dezaketen enpresa-jokabide batzuk sustatu nahi dira.

Hain zuzen ere, sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren 62. artikulua 4. apartatuan ezartzen da kenkaria aplikatu ahal izango dela ikerketa eta garapeneko jarduerengatik: zergaldian ikerketa eta garapeneko jardueretan egindako gastuen 100eko 35, baldin eta jardura horien xedea zergadunaren jardueren ingurumenaren sortzen duten eragin kaltegarria nabarmen murriztea bada eta foru-arauaren 65.1 artikuluan aipatzen diren motetakoak badira.

Pizgarri-ildo beretik, c') eta d') letrak gehitzen zaizkio 62. artikulua 4. apartatuari. Letra horietan ezartzen denez, kenkari gehitua (100eko 20) aplikatu ahal izango da jardueren ingurumenaren sortzen duten eragin kaltegarria nabarmen murriztea xede duten ikerketa eta garapeneko jarduerak egiten dituzten mikroenpresak eta enpresa txikiak kontratatzeke gastuengatik eta ikerketa eta garapeneko jarduerak egiten dituzten enpresa berritzaileak kontratatzeke gastuengatik.

Azkenik, fiskalitate berdearen arloan aipatu behar da beste era batera eratzten dela sozietateen gaineko zergaren foru-arauaren 65. artikulua arautzen den kenkaria. Gaur egun, kenkari hori bi eremutan aplikatzen da. Batetik, Teknologia Garbiena Euskal Zerranda onartzen duen Eusko Jaurlaritzako dagokion sailaren aginduan zehazten diren ekipo osoetan egindako inbertsioengatik 100eko 30eko kenkaria aplikatu daiteke. Bestetik, ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioengatik eta lurzoru kutsatuak garbitzeko gastuengatik eta garapen iraunkorrerako eta ingurumena zaintzeko eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko behar diren ibilgetu materialeko aktibo berrietan egiten diren beste inbertsio batzuetatik 100eko 15eko kenkaria aplikatu daiteke.

Kenkaria ezarri zenetik orain arte urrats garrantzitsuak eman dira hura sortzeko funtsezkoa izan zen helburua lortzeko, hau da, garapen jasangarria sustatzeko jokabide proaktiboetarako pizgarriak emanez. Horregatik, foru-arau honetan, kenkari-konzeptuak egungo egoera berrira egokitzen dira, industria deskarbonizatzeke jokabideak sustatu nahian.



Horrenbestez, zergadunek kuota likidotik kendu ahal izango dute honako inbertsio eta gastu hauen zenbatekoaren 100eko 35: iturri berriztagarriak erabiliz energia sortzeko instalazioak diren ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak; iturri berriztagarrien energia kontsumitzen duten ekipamendu energetikoki efizienteak eta instalazioak diren ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak; iturri berriztagarrien energia bakarrik garraiatzeko eta banatzeko ekipamendu energetikoki efizienteak eta instalazioak diren ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako gastu eta inbertsioak; Teknologia Garbien Euskal Zerrendako (TGEZ) ekipamendu eta instalazioetan egindako inbertsioak; emisioak atzitzeko (erabili, banatu, garraiatu, biltegitatu edo transmititzeko) ekipamendu energetikoki efizienteak eta instalazioak diren ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, betiere helburua energia berriztagarria sortzea edo prozesu berriztagarrietan erabiltzea bada, eta ekonomia zirkularra sustatzeko hondakinak murriztu, birziklatu eta balorizatzeko ekipamendu energetikoki efizienteak eta instalazioak diren ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak.

Beste alde batetik, orain arte bezala, ibilgetu materialeko aktibo berrietan egiten diren inbertsioen eta lurzoru kutsatuak garbitzeko egiten diren gastuen 100eko 15 ken daiteke, eta 65. artikulua 2. apartatuaren b) letra aldatzen da honako hauek gehitzeko: balorizazio materialik ezin egin dakiekeen hondakinaren balorizazio energetikoa; naturagunee-tako ingurumena biziberritzea; uraren kontsumoa minimizatzea eta ura araztea; egungo ekipamenduak eta instalazioen ordez energia eta baliabideak efizientzia handiagoarekin erabiltzen dituztenak ezartzea, eta teknika erabilgarri onenak dituzten ekipo eta instalazioak erostea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauan xedatutakoaren arabera. Zuzentaru hori industria-emisioei eta azienda-hazkuntzaren eta mugikortasun eta garraio jasangarriaren ondoriozko emisioei buruzkoa da, lehorreko garraioa alde batera utzita.

Tokiko tributaziora etorrira, jarduera ekonomikoen gaineko zergan eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan hautazko hobari bana arautzen da, kuotaren 100eko 50 udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, kasu batean ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako jarduera ekonomikoa egiten badute, eta bestean eraikuntza, instalazio edo obran ekonomia zirkularrarekin lotutako jarduera ekonomikoa egiten bada.

Foru-arau honen bidez aurre egiten zaion bosgarren erronka gehikortasuna da, hau da, zerga-karga zergapekoen ahal ekonomikora egokitzea. Agerikoak diren arrazoiengatik, erronka honi aurre egiteko erantzunaren ardatza pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga da, horixe baita zerga-sistemaren birbanatze-efektuan eraginik handiena daukan zerga pertsonala.

Horren ildotik, lan pertsonalaren hobaria eraldatzen da eta oraindik aurrera lanbide arteko gutxieneko soldata edo hortik beherako soldata jasotzen duten pertsonen zerga-kuota zero izango da. Hain zuzen ere, 8.000 euroko hobaria aplikatu ahal izango da lanaren etekin guztien baturaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa 14.800 euro edo gutxiago denean; hobari txikiena 3.000 eurokoa izango da, aurrean aipatutako diferentzia 23.000 eurotik gorakoa denean. Kolektibo zaurgarri batzuek aplikatu ditzaketen hobari-ehuneko gehituak lehengo berak dira, zergaren foru-arauaren 23. artikulua arabera.

Aurrekoarekin estu lotuta, eta kontuan edukita aurrean aipatutako lanaren etekinen hobariak osagarri bat behar duela zergaren karga zergadunen ahal ekonomikora egokitzeke, zergaren foru-arauaren 102. artikuluan ezartzen da muga bakarra (20.000 euro urtean) aplikatuko zaie lanaren etekin gordinei, banakako tributazioan, eta baterakoan halako errentak izan dituen zergadun bakoitzarentzat, eta hortik gorakoak izanez gero aitorpena egiteko betebeharra izango dela. Lehen bezala, kapitalaren etekin gordinen eta ondare-irabazien urteko muga 1.600 euro izango da (salbuetsiak barne, bi kasuetan). Halaber, aldaketa horrekin bat etorritik eta zerga errazago kudeatu ahal izateko, aitorpena aurkeztu beharra ezabatzen da zenbait kasutan, bai eta aitorpen laburra aurkezteko aukera ere.



Hori guztia osatzeko, aitorpena aurkeztu beharrera egokitutako atxikipen-taula berria eratu beharko da, eta erregelamenduz onetsiko da.

Azkenik, zergaren gehikortasuna sendotzeko, aurrezkiaren likidazio-oinarriari aplikatuko zaion tarifa berria ezartzen da foru-arauaren 76. artikuluan: oraindik aurrera bederatzi izango dira (orain arte, bost).

Etxebizitzaren alokairuaren merkatuan dauden tentsio koiunturalak direla eta, errenta-maila apala duten zergadunei izugarri zailtzen zaie alokatzea. Hori dela eta, 2025etik 2029ra bitarteko ekitaldietan alokairuagatik kenkaria itzultzeko aukera ematen zaie aitorpena egin beharrik izan gabe aitorpena aurkeztu eta behin-behineko likidazioan kuota osoa nahikoa ez izateagatik kenkari hori aplikatu ezin duten pertsonen.

Seigarren erroka, azkena, ekoizpen-sektorea babestea eta bultzatzea da. Erronka horren bitartez lortu nahi da Bizkaia lurralde erakargarria izatea talentuarentzat eta inbertsioentzat, ekonomia lehiakorra izatea eta lanpostu onak sortzea, arreta enpresa-eragile txikietan ipinita.

Horretarako, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren foru-arauaren 41. artikulua aldatzen da ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo aurreko edo ondorengo ahaide baten alde enpresen edo partaidetzen kostu gabeko eskualdaketez ondare-irabazirik sortzen ez dutenerako: oraindik aurrera, bi urteko epealdia egongo da, eskualdaketa egiten denetik, akzioen eskualdatzaileak zuzendaritza-lanei uzteko, enpresa arian-arian errazago pasa dadin eskuratzailen eskura. Horren ondorioz oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren foru-arauaren 43.4.b artikulua aldatzen da, hobaria aplikatu ahal izateko banakako enpresa, negozio profesional edo entitate baten partaidetza «mortis causa» eskuratzen denean.

Beste alde batetik, sozietateen gaineko zergan, aldaketen xede nagusiak, lehen adierazi den bezala, neurriak direla eta garatzeko zailtasun handiak dauzkaten entitateak dira.

Horren ildotik, gastuen arloan, mikroenpresek badute aukera erabiltzeko beren taimainak eragiten dituen zailtasunen zerga-konpentsazio gisa zerga-oinarrian gastu gisa aplika dezaketen kenkariaren ehunekoaren gehikuntza (% 10etik % 15era), eta sine die finkatzen da aukera hori (zergaren foru-arauaren 32. artikulua 4. apartatua ezarri zen COVID-19aren eta Ukrainako gerraren ondorioak arintzeko).

Beste alde batetik, ezabatu egiten da 55. artikulua 1. apartatua mikroenpresei eta enpresa txikiei likidatu edo autolikidatu gabeko zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko aplikatzen izan zaien 100eko 70eko muga; beraz, oraindik aurrera ez dute edukiko mugarik eta zerga-oinarria zero izatea lortu ahal izango dute.

Gutxieneko tributazioa dela eta, 56.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasan zergak ordaintzen dituzten entitateentzako konfigurazioa berrikusten da, baldin eta entitate horiek enplegua mantentzen edo handitzen ez badute eta zerga osagarrian jasotako substantzia-irizpideekin bat datozen aktiboetan inbertsiorik egiten ez badute.

Azkenik, zenbait aldaketa egiten dira kooperatiben zerga-araubidean (6/2018 Foru Araua, abenduaren 12koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzkoa): batetik, bereziki babestutako etxebizitzaren kooperatibatza jotzen dira bazkideei etxebizitzaren erabilera eta gozamina lagapen bidez ematen dizkieten etxebizitzaren kooperatibak, betiere kooperatibak ez badizkie bazkideei ostalaritza-industriaren berezko zerbitzu osagarriak ematen; bestetik, oraindik aurrera pertsona fisikoek onura publikoko kooperatiben eta gizarte-ekimeneko kooperatiben alde egiten dituzten emariei eta ekarpenei 4/2019 Foru Araua aplikatu ahal izango zaie (4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzkoa).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikulua 1. eta 3. apartatuetan xedatutakoa betez, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, baita genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena ere.



Halaber, bete dira Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen 87/2021 Foru Dekretuak ezarritako izapideak (Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretua, ekainaren 15ekoa).

I. KAPITULUA

FAMILIA, BERDINTASUNA, KONTZILIAZIOA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA

1. artikulua. — *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Bat. f) letra gehitzen zaio 16. artikuluari, eta eduki hau du:

«f) Telelanaren modalitatean egindako lanaren ondorioz langileak jasandako gastuen konpentsazio gisa haren esku jarritako zenbatekoak, salbu eta Hitzarmen Kolektiboak unean-unean ezarritako zenbatekoak gainditzen ez dituztenak, gastu horien merkatuko balioaren mugaraino.»

Bi. h) letra gehitzen zaio 17. artikulua 2. apartatuari, eta eduki hau du:

«h) Enplegatzaileak bere lan-jarduerarako beharrezkoak diren ekipoak, erremintak eta bitartekoak ematea, telelanaren modalitatean, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.»

Hiru. Berridatzi egiten da 25. artikulua 5. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«5. Jarduera ekonomiko batean hasten diren zergadunek 100eko 10 murriztu ahal izango dute jarduera horren etekin garbi positiboa, eta 100eko 15, berriz, emakumeak badira, aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ondoren, hala badagokio, etekina positiboa den lehen zergaldian eta hurrengo zergaldian, betiere etekin garbi positibo hori lortzen den lehen zergaldia jarduera hasi ondorengo lehen bost zergaldietan barruan gertatzen bada.

Horri dagokionez, ez da ulertuko jarduera ekonomiko bat hasten denik, baldin eta zergadunak aurretik jarduera hori bera zuzenean edo zeharka egin badu. Zergadunak aurretik jarduera berean jardun duela joko da jarduera hori talde berean sailkatuta badago ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifetan.

Murriztapen hau ez da aplikatuko baldin eta jarduera hasi aurreko urtean zergadunak lanaren etekinak jaso bazituen pertsona edo entitate batengandik eta hasitako jarduera ekonomikoaren ondoriozko sarreraren 100eko 50 baino gehiago pertsona edo entitate horrengandik lortutakoak badira.»

Lau. Berridatzi egiten da 73. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«73. artikulua. — *Murriztapena batera tributatzeagatik*

Foru-arau honen 98. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako tributazioa hautatuz gero, urteko 4.800 euroko murriztapena egin ahal izango da aitorten bakoitzeko zerga-oinarri orokorrean.»

Bost. Berridatzi egiten da 80. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«80. artikulua. — *Kenkaria ondorengoan mantentzeko urtekoak ordaintzeagatik*

Epailen erabakiz bigarren gradura arteko ondorengoan mantentzeko urtekoak modu eskusiboan ordaintzen dituzten zergadunek kontzeptu horregatik ordaintzeko kopuruen ehuneko 15eko kenkaria egiteko eskubidea dute. Ondorengo bakoitzeko muga hau aplikatuko da: aurreko artikulua 1. apartatua ondorengo bakoitzarentzat ezartzen den kenkariaren ehuneko 30.»



Sei. 83 bis, 83 ter, 83 quater eta 83 quinquies artikulua gehitzen dira VII. tituluko II. kapituluaren barruan; hona testuak:

«83 bis artikulua. — *Kenkaria adingabeak eta mendekotasun- edo desgaitasun-gradu jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik*

1. Pertsona jakin batzuk zaintzeko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutako langileak mugagabe kontratatzeagatik zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunek 250 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute zergaldi bakoitzeko.

Bi zergadunek edo gehiagok kenkari hori aplikatzeko eskubidea badute, zenbatekoa zati berdinetan hainbanatuko da.

2. Kenkaria aplikatu ahal izango da honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Zergaduna 12 urtetik beherako pertsona batekin edo batzuekin bizi bada, direla haren ondorengoak, adoptatuak, harreran hartutakoak edo tutoretzapean hartutakoak, eta foru-arau honen 79. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten bizikidetzak- eta errenta-arloetako baldintzak betetzen badituzte.

b) Zergaduna pertsona hauetako batekin edo batzuekin bizitzea: ondorengoak, adoptatuak, harreran edo tutoretzapean hartutakoak eta aurreko ahaideak, zuzeneko lerrokoak, odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasun edo adopzio bidezkoak, bigarren gradura artekoak, betiere pertsona horiek %65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua badute, edo mendekotasun-egoera aitortua badute edozein gradutan, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, eta foru-arau honen 79. eta 81. artikuluetan ezarrita dauden ondorengoengatik edo aurreko ahaideengatik kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten bizikidetzak- eta errenta-arloetako baldintzak betetzen badituzte.

c) Zergadunak edo haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak aurreko b) letran aipatutako mendekotasun- edo desgaitasun-graduren bat aitortua izatea.

3. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Kontratazioa dela-eta zenbatekoak ordaintzen dituzten zergadunetako bat Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea familia-etxe baten titularra den enplegatzaile gisa, eta pertsona bati edo batzuei kontratu mugagabea egitea eta pertsona horiek direla-eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian kotizatzea kenkaria aplikatu nahi den aldi.

Ondorio horietarako, aurreko baldintza betetzat joko da kontratazioa etxean laguntza eta zaintza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituzten enpresen bitartez formalizatzen bada.

Kontratazioa egiten den edo lan-harremana amaitzen den zergaldian, kontratua- ren gutxieneko iraupena 183 egun izango da.

b) Zergadunek eta, hala badagokio, haien ezkontideek edo izatezko bikoteek beren konturako edo besteren konturako jarduerak egin behar dituzte, zeinengatik ekitaldian lanaren edo jarduera ekonomikoen ziozko etekinak jasotzen baitituzte, salbu eta foru-arau honen 82. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen desgaitasun- edo mendekotasun-graduren bat aitortua badute.

4. Aurreko 1. apartatuan ezarritako kenkariaren zenbatekoa 500 euro izango da zergaldi bakoitzeko, zaintzailea aurreko 2. apartatuko b) eta c) letretan aipatzen diren pertsonak zaintzeko profesionala bada, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.



83 ter artikulua. — *Kenkaria adingabeak zaindu ondoren lan-merkatura itzultzeagatik*

1. Emakume zergadunek, adingabeko ondorengoak edo adoptatuak zaintzeagatik lan-, enpresa- edo lanbide-jarduera gelditu edo utzi ondoren, lan-merkatura itzultzen diren ekitaldian, 1.500 euroko kenkaria aplikatu ahal izango dute jaiotzagatiko edo adingabeak zaintzeagatik baimen ordainduak eta legez aitortuak amaitzen direnetik lanera itzuli arte igarotzen den jardueraren geldiarazte- edo uzte-urte bakoitzeko.

Erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan, kenkari hori 100eko 50 gehituko da.

2. Kenkaria aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Gizarte Segurantzaren alta emanda egon izana, besteren konturako edo norberaren konturako langile gisa, kooperatibako bazkide langile gisa edo funtzionario gisa, gutxienez 9 hilabetez, jaiotzaren edo adopzioa formalizatu aurreko 18 hilabeteetan.
- b) Jaiotzagatiko edo adingabeak zaintzeagatik baimen ordainduak eta legez aitortuak amaitu ondorengo 12 hilabeteetan gutxienez jarduera ordaindurik ez egitea.
- c) Lan-merkatura itzuli izana aurreko b) letran ezarritako 12 hilabeteko gutxieneko epea amaitzen denetik kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen adingabeak hiru urte betetzen dituen egunaren ondorengo 12 hilabeteetara bitarteko aldian.

Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan enplegu- eta zerbitzu-eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonak ere lan-merkatura itzuli direla joko da, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

3. Orobat, aurreko apartatuko b) letran aipatzen den betekizuna betetzat joko da, zergadunak bere lan-jarduerarekin jarraitu badu letra horretan aipatzen den aldian, baina aldi horretan lanaldi murriztuko modalitate bati heldu badio eta gehienez ere bere lanpostuko lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 67 lan egin badu.

Apartatu honetan adierazitako egoera gertatzen denean, zergaduna bere lanpostuko lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 85 gutxienez egiten hasten denean ulertuko da zergaduna lan-merkatura itzuli dela, aurreko apartatuko c) letran aipatzen den moduan.

Halako kasuetan, artikulua honen 1. apartatuan ezarritako kenkaria hainbanatu egingo da aplikatzen den lanaldi-murrizketaren ehunekoaren arabera.

4. Jarduera gelditzea edo uztea urte-zati batean luzatu bada, kenkariaren zenbatekoa proportzionala izango da urte-zati horrek urte osoaren gainean duen egun-kopuruarekiko.

Guraso edo adoptatzaile bat baino gehiago bizi badira kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen adingabearekin, kenkaria erdibana zatituko da haietako bakoitzaren aitopenean.

5. Lan-merkatura itzuli den zergaldian kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak hurrengo bost zergaldietako aitopenetan aplikatu ahal izango dira.

6. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengoan parekotzat joko dira adopzioa egiteko tutoretzaren, familia-harrera iraunkorraren edo zaintzaren bidez zergadunari lotutako pertsonak, baldin eta adingabeen babesaren arloan eskumena duen entitate publikoaren aurrean formalizatu bada tutoretza, harrera edo zaintza.»

«83 quater artikulua. — *Kenkaria adingabeko ondorengoak edo adoptatuak zaintzeagatik lan-, enpresa- edo lanbide-jarduera gelditu edo utzi ondoren lan-merkatura itzultzeagatik*

1. Gizonezko zergadunek, lau urtetik beherako adingabeko ondorengoak edo adoptatuak zaintzeagatik lan-, enpresa- edo lanbide-jarduera gelditu edo utzi ondoren lan-merkatura itzultzen diren ekitaldian, 200 eurorainoko kenkaria aplikatu ahal izango dute jaiotzagatiko edo adingabeak zaintzeagatik baimen ordainduak eta legez aitortuak amaitzen direnetik lanera itzuli arte igarotzen den jardueraren geldiarazte- edo uzte-urte bakoitzeko, artikulua honetan aurreikusitako baldintzetan.

Era berean, kenkari hori aplikatu ahal izango da zergadunak bere lan-jardueran jarraitu badu, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako pertsonaren bat zaintzeagatik lanaldi murriztuko modalitate bati heldu badio eta gehienez ere bere lanpostuko



lanaldi osoari dagokion denboraren ehuneko 67 lan egin badu, betiere lanaldi osoa legez ezarritako lanaldiaren %50 baino txikiagoa ez bada. Kasu horietan, apartatu honen lehen paragrafoan aurreikusitako kenkaria hainbanatu egingo da aplikatzen den lanaldi-murrizketaren ehunekoaren arabera.

Kenkaria ehuneko 50 areagotuko da erditze edo adopzio anizkoitzen kasuan.

Kenkari hori aplikatzeko eskubidea bi gizonena bada, kenkariaren zenbatekoa zati berdinetan hainbanatuko da.

2. Kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea, besteren konturako edo norberaren konturako langile gisa, kooperatibako bazkide langile gisa edo funtzionario gisa, gutxienez 9 hilabetez, jaiotza-dataren edo adopzioa formalizatu aurreko 18 hilabeteen barruan.

3. Jarduera gelditzeak edo uzteak edo lanaldi-murrizketak urte-zati bat bakarrik iraun badu, kenkariaren zenbatekoa proportzionala izango da urte-zati horrek urte osoaren gainean duen egun-kopuruaren arabera.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria eta 83 bis artikuluan aurreikusitako kenkariak ezin dira batera aplikatu, baldin eta adingabe bera zaintzen bada, bat datozen egunetan.

5. Artikulu honen ondorioetarako, ondorengo parekotzat joko dira adopzioa egiteko tutoretzaren, familia-harrera iraunkorraren edo zaintzaren bidez zergadunari lotutako pertsonak, baldin eta adingabeen babesaren arloko eskumena duen entitate publikoaren aurrean formalizatu bada tutoretza, harrera edo zaintza.»

«83 quinquies artikulua. — *Alarguntasunagatiko kenkaria*

1. Zergadun alargun bakoitzari 200 euroko kenkaria aplikatuko zaio.

Kenkari hori aplikatzeko, zergadunak 20.000 euroko edo gutxiagoko zerga-oinarria izan behar du.

2. 20.000 eurotik gorako eta 30.000 eurotik beherako zerga-oinarria duten zergadunek 200 euroko kenkaria aplikatuko dute, honako hau kenduta: zerga-oinarriari 20.000 euro gutxitu eta ateratzen den zenbatekoa 0,0200ez biderkatuta lortzen den zenbatekoa.

3. Artikulu honen ondorioetarako, zerga-oinarritzat hartuko da foru arau honen 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako zerga-oinarri orokorrak eta aurrezkikoak batzearen emaitza. Zerga-oinarri orokorrak saldo negatiboa badu, zerotzat hartuko da aipatutako batuketaren ondorioetarako.

4. Kenkari hori bateraezina da foru arau honen 83. artikuluan aurreikusitako kenkariarekin.»

Zazpi. Berridazten dira 89. artikuluko 1. apartatua eta 3. apartatuaren lehenengo paragrafoa; honela idatzita geratzen dira:

«1. Zergadunek 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 1.200 euroko gehieneko mugarekin, eta 100eko 15eko kenkaria emakumeak badira, urteko 1.800 euroko gehieneko mugarekin, lan egiten duten entitateko edo sozietate-taldeko beste edozein entitatetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindu dituzten kopuruengatik.»

«3. Halaber, zergadunek 100eko 10eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 6.000 euroko gehieneko mugarekin, eta 100eko 15eko kenkaria emakumeak badira, urteko 9.000 euroko gehieneko mugarekin, lan egiten duten entitateko edo sozietate-taldeko beste edozein entitatetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindu dituzten kopuruengatik, baldin eta funts horiek euskal administrazio publikoek eraturako funtsen maileguetatik badatoz.»

Zortzi. Berridatzi egiten da 90. artikuluen 1. eta 2. apartatuetako lehen paragrafoa; honela idatzita geratzen dira:

«1. Zergadunek 100eko 25eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, edo 100eko 30ekoa emakumeak badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertain-



tzat jotzen diren enpresetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik edo eskurazteagatik ordaindutako zenbatekoengatik; gainera, kapitalari aldi baterako ekarpena egiteaz gain, inbertitzen duten entitatea garatzeko egokiak diren enpresa- edo lanbide-ezagutzak ere eman ahal izango dituzte, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio-akordioan ezarritako baldintzetan.

2. Aurreko apartatuan ezarritako kenkaria ordaindutako kopuruen 100eko 35ekoa izango da, eta 100eko 40koa emakumeen kasuan, enpresa berritzaileen akzioak edo partaidetzak harpidetzen edo eskuratzen badira, edo xede soziala zilarrezko ekonomiarri zuzenean lotua duten enpresenak, baldin eta mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat jotzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.»

Bederlatzi. VII bis kapitulua gehitzen zaio VII. tituluari, VII. kapituluaren ondoren, eta eduki hau du:

«VII bis kapitulua.—Zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko araubide berezia 93 bis artikulua.—*Zergadunek kenkari jakin batzuk aplikatzeko araubide berezia*

1. Zergadunek foru-arau honen 86. artikuluan jasotako kenkariari dagozkion zenbatekoak kendu ahal izango dituzte, baldin eta zenbateko horiek ezin izan badira kendu aplikatzeko eskubidea sortu zen zergaldian kuota osoa nahikoa ez izateagatik, jatorrizko zergaldirako ezarritako ehunekoak, mugak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

Era berean, 36 urtetik beherako zergadunek foru-arau honen 79 eta 87. artikuluetan jasotako kenkariei dagozkien zenbatekoak kendu ahal izango dituzte, baldin eta kenkari horiek ezin izan badira kendu aplikatzeko eskubidea sortu zen zergaldian kuota osoa nahikoa ez izateagatik, jatorrizko zergaldirako ezarritako ehunekoak, mugak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

Aurreko paragrafoetan adierazi diren kendu gabeko kopuruak jatorrizko zergaldiaren hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldien aitortpenetan aplikatu ahal izango dira, eta ezin izango dira aplikatu bost urteko epetik kanpo hurrengo ekitaldietan aplikatu gabe geratzen diren kenkariei metatuta.

Era berean, 79. eta 87. artikuluen babesean sortutako kenkarien kasuan, kenkaria aplikatzen den zergaldian, zergadunak 36 urte baino gutxiago izan beharko ditu zergaren sortzapen-datan.

2. Aurreko 1. apartatuan xedatutakoa kuota osoa nahikoa den lehen zergaldian aplikatuko da, eta aplikatzeke dauden kenkariak osorik edo partzialki aplikatuko diren zergaldian kontzeptu horiengatik sortutako kenkariak aplikatu aurretik.»

Hamar. VII ter kapitulua gehitzen zaio VII. tituluari, VII bis kapituluaren ondoren, eta eduki hau du:

«VII ter kapitulua.—Kenkariak aplikatzeko arau orokorrak 93 ter artikulua.—*Kenkariak aplikatzeko arau orokorrak*

1. Foru-arau honetan aurreikusitako kuota osoaren kenkariak, kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu ez badira, baina hurrengo zergaldietan egiteko ahalmena ezartzen bada, hurrengo ekitaldietako bakoitzak ahalbidetzen duen gehieneko zenbatekoan aplikatu beharko dira, jatorrizko zergaldirako ezarritako ehunekoak, mugak eta gainerako baldintzak errespetatuz, eta ezin izango da egin ekitaldi bakoitzean aurreikusitako gehieneko epetik kanpo hurrengo ekitaldietan aplikatu gabe geratzen diren kenkariei metatuta.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa kuota osoa nahikoa den lehen zergaldian aplikatuko da, eta aplikatzeke dauden kenkariak osorik edo partzialki aplikatuko diren zergaldian kontzeptu bakoitzeko sortu den kenkaria aplikatu aurretik.

3. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez zaio aplikatuko foru-arau honen 88. artikuluan aurreikusitako kenkariari, zeina artikulua horretan ezarritako baldintzetan aplikatuko baita.»



Hamaika. Ezabatzen da 97. artikulua 1. apartatuko hirugarren paragrafoa.

Hamabi. Berridatzi egiten da 98. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«98. artikulua. — *Familia-unitatearen modalitateak*

1. Hauek dira familia-unitateak:

- A) Legez banandu gabeko ezkontideek osatutakoa, bai eta izatezko bikoteko kideek osatutakoa, eta honako hauek ere bai (halakorik badago):
 - a) Seme-alaba adingabeek, gurasoak edo adoptatzaileak ados egonik haiengandik aparte bizi direnek izan ezik.
 - b) Adinez nagusi diren seme-alabek, baldin eta, Kode Zibilaren XI. tituluaren xedatutakoaren esparruan, ordezkapen-ahalmena duen kuradoretzaren pean badaude, eta kuradoretza gurasoek edo adoptatzaileek baliatzen badute.
 - c) Adopzioa egiteko harrera iraunkorraren edo zaintzaren bidez zergadunari lotutako adingabeek, baldin eta adingabeen babesaren arloan eskumena duen entitate publikoaren aurrean formalizatu badira harrera edo zaintza.
- B) Guraso, adoptatzaile edo hartzaile bakarra dagoen familia-unitatea, aurreko A) letrako a), b) eta c) letretan aipatzen diren pertsonekin batera.
- C) Zergadunak edo zergadunek eta aurreko A) letrako a), b) eta c) letretan aipatzen diren pertsonen osatutakoa, zeinen zaintza zergadunari esleitu baitzaio etxeko indarkeriagatik edo genero-indarkeriagatik, erregelamendu bidez ezarritako moduan egiaztatuta. Ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko D) letran aipatzen den mendekotasun ekonomikoa, zaintzapean dauden pertsonena.
- D) Halaber, senar-emazteak legez banantzen direnean edo ezkontza-loturarik nahiz izatezko bikoterik ez dagoenean, edo ebazpen judiziala eman denean, familia-unitatea hauek osatuko dute: guraso batek edo adoptatzaileak edo harrera-egileak eta ekonomikoki modu eskusiboan haren mende dauden eta A letrako a), b) eta c) letretako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

Kontrakoaren frogarik ezean, bi gurasoek, adoptatzaileek edo harrera-egileek seme-alabak edo harreran hartutakoak ekonomikoki mantentzen dituztela joko da.

Ondorio horietarako, honako hauek ez dira guraso, adoptatzaile edo harrera-egile bakar batek mantentze ekonomikoki eskusiboa egiten duelako frogatzat hartuko: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena modalitate indibidualean aurkeztea; bikoteko batek mantentze ekonomikoki horretan parte hartzen ez duela dioen zinpeko aitortpena aurkeztea; bikotekide bati gastuak modu artifizialean esleitzea; bikotekide bati guraso-ahala kentzea; bikotekide bat familiako gainerako kideekin bizi ez izatea; edo bikotekide batek mantentze ekonomikoki hori egiteko aukera ez izatea zorrak edukitzeagatik konkurtso-legediaren arabera.

Erregelamendu bidez, aurreko paragrafoan ezarritako kasuez gainera, beste batzuk ere ezarri ahal izango dira.

Aurrekoa gorabehera, letra honetan aipatzen diren kasuetan, agintaritzak judizial eskudunak ebazten duena bete beharko da, eta mantentze ekonomikoki eskusibo hori benetan eta behar bezala egiten dela frogatu.

2. Inor ezingo da bi familia-unitatetako kide izan aldi berean.

3. Familia-unitatea nork osatzen duten zehazteko urte bakoitzeko abenduaren 31n dagoen egoera hartuko da kontuan.

Urtean zehar familia-unitateko kideren bat hiltzen bada, familia-unitateko gainerako kideak edo kideek baterako tributazioa hautatu ahal izango dute, eta beren aitortpenaren sartuko dituzte hildakoaren errentak. Gainera, familia-unitateko kide izan den hildakoak foru-arau honetan ezarritako kenkarietarako eskubidea sortu badu, kenkari horiek ere sartu ahal izango dituzte aitortpenaren, haien zenbatekoa egun horretara arte proportzionalki murriztu gabe. Foru-arau honen 73. artikuluan aipatzen den baterako tributazioaren ziozko murriztapenaren zenbatekoa ere ez da proportzionalki murriztuko.»



Hamahiru. h) eta i) letrak gehitzen zaizkio 99. artikulua 2. apartatuari, eta eduki hau du:

- «h) Foru-arau honen 93 bis artikulua ezarritako kasuetan, aplikatzeko dauden kenkariak aplikatuko diren zergaldian baterako tributazioa egitea hautatzen bada eta aipatutako kenkariak aplikatzeko eskubidea duten hainbat pertsona badaude, batzuk 36 urtetik beherakoak, eta beste batzuk 36 urtetik gorakoak, 93 bis artikulua horren 1. apartatua xedatutakoa aplikatuko da.

Familia-unitateko kide diren zergadunek banakako tributazioa hautatu duten aurreko zergaldietan sortutako kenkariak (lekualdatu daitezkeenak) baterako tributazioan aplikatu ahal izango dira, jatorrizko zergaldirako ezarritako ehunekoak, mugak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

Ondorengo banakako tributazioaren kasuan, foru-arau honen 93 bis artikulua xedatutakoaren arabera aplika daitezkeen kenkariak aplikatzeko eskubidea sortu duten zergadunek aplikatu ahal izango dituzte, eta, hala badagokio, hurrengo paragrafoan aipatzen den aplikatu gabeko kenkariaren banaketa-erregela aplikatu ahal izango da.

Zergak baterako modalitatearen bidez ordaindu diren zergaldian sortu badira kenkariak eta zergaldi horretan ezin izan badira kendu kuota osoa nahikoa ez izateagatik, ondorengo banakako tributaziorako ondorioetarako, zergadun bakoitzak aplikatu ahal izango du sortu duen eta aplikatu gabe dagoen kenkariaren zenbatekoa. Familia-unitateko kide bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztu ezin denean, adinez nagusiak diren familia-unitateko kideen artean banatuko da kopuru bera.

- i) Baterako tributazioa aukeratzen den kasuetan, foru-arau honetan aurreikusitako kuota osoaren kenkariak aplikatuko dira, baldin eta kenkari horiek sortzen diren zergaldien hurrengo zergaldietan egiteko ahalmena ezartzen bada, haietako bakoitzean ezarritako baldintzetan, betiere kuota nahikoa ez izateagatik familia-unitatea osatzen duten zergadunek ez badituzte aplikatu banakako tributazioa egin duten zergaldien aurreko zergaldietan, jatorrizko zergaldirako ezarritako ehunekoak, mugak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

Kenkari horiek aplikatu ahal izango dira, soil-soilik, kenkari horiek sortu dituzten zergadunek gerora banakako tributazioa egiten badute. Familia-unitateko kide bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztu ezin denean, adinez nagusiak diren familia-unitateko kideen artean banatuko da kopuru bera.»

Hamalau. Berridatzi egiten da 101. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Aurreko apartatua jasotako kasuan, heriotza-egunean amaituko da zergaldia eta zergaren sortzapena ere egun horretan gertatuko da, alde batera utzi gabe foru-arau honen 98. artikulua 3. apartatua baterako tributazioa hautatzen denarako xedatutakoa.»

Hamabost. Berridatzi egiten da hamahirugarren xedapen iragankorren azken paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Halaber, aurreko paragrafoan adierazitako aldiari, foru-arau honen 98.1 A) artikulua b) letran xedatutakoaren ondorioetarako, familia-unitateko kide izango dira luzatutako edo birgaitutako guraso-ahalaren mende dauden seme-alaba adindunak.»

2. artikulua. — *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako aldaketa hauek egiten zaizkio Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauari:

Bat. 66 sexies artikulua gehitzen zaio V. tituluko III. kapitulari, eta eduki hau du:

«66 sexies artikulua. — *Kenkaria bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ezartzeagatik*

1. Zergaren kuota likidoan kenkari bat aplikatzeko eskubidea emango du, ondorengo apartatueta ezarritako baldintzetan, zergadunek bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ezartzeak.



2. Honako hauek joko dira bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko neurritzat:
 - a) Ordutegia malgutzeko neurriak.
 - b) Lanaldi jarraituaren modalitaterako aukera ezartzea aurretik lanaldi zatituaren modalitatearen pean dauden lanpostuen kasuan.
 - c) Telelanaren modalitatearen aukera ezartzea edo zabaltzea.
 - d) Lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartzeko aukera ematen duten kasu berriak sartzea.
 - e) Langileen esku jartzea, zuzenean edo hirugarren batzuen bidez, doako haurtzaindegi-zerbitzu bat.
 - f) Langileek bizilekutik lantokira bitartean egiten dituzten joan-etorriak errazteko neurriak ezartzea.
3. Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren zenbatekoa honako ehuneko hauen araberakoa izango da:
 - a) Zergadunaren kuota likidoaren ehuneko 5, aurreko apartatuaren a) letratik f) letrara bitartean aipatutako neurriren bat jasotzen duen kontziliazio-plan bat ezarzen den ekitaldian, 2.500 euroko mugarekin.
 - b) Zergadunaren kuota likidoaren ehuneko 15, aurreko apartatuaren a) letratik f) letrara bitartean aipatutako eta kontziliazio-planean jasotako neurriren bati gutxienez plantillaren heren bat atxikitzen zaion lehen ekitaldian, 7.500 euroko mugarekin.

Foru-arau honen 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresek eta enpresa txikiek ehuneko 5 puntu gehituko dizkiete apartatu honen a) eta b) letretan ezarritako ehunekoei.

4. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko ezarritako neurri berriak zergadunaren kontziliazio-planean jasota egotea, aplikatzekoa den lege-esparruan ezarri eta nahitaez bete beharreko gutxienekoak gainditzea eta aplikatu ditzaketen langile guztientzat eskuragarri egotea.

Aurreko paragrafoak xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

5. Erregelamendu bidez zehaztuko dira kenkari hau aplikatzeko betekizunak eta baldintzak, eta entitate motaren arabera bereizi ahal izango dira.»

Bi. 66 decies artikulua gehitzen da, eta eduki hau du:

«66 decies artikulua.—*Kenkaria emakumeen eta 36 urtetik beherako enplegua sortzeagatik*

1. Kuota likidotik kendu ahal izango da kontratu amaigabearekin kontratatutako emakume bakoitzeko edo 36 urtetik beherako pertsona bakoitzeko hurrengo paragrafoan ezarritako kopurua, zergaldian zehar, artikulu honetan aurreikusitako baldintzetan.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den kenkaria urteko soldata gordinaren ehuneko 35 izango da, kontratatutako pertsona bakoitzeko, eta kenkariaren muga izango da kontratatzeko unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa eta aplikatzeko muga langileak egindako lanaldiaren araberakoa izango da, lanaldi osoari dagokiona kontuan hartuta.

3. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, kontratazioaren unean, kenkarirako eskubidea sortzen duen pertsonaren soldatak lanbidearteko gutxieneko soldataren ehuneko 10 gainditu beharko du gutxienez, eta, kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo 3 urteetan amaitzen den zergaldia amaitutakoan, jasotzen duen soldatak une horretan indarrean dagoen gutxieneko soldata profesionalaren ehuneko 70 gainditu beharko du gutxienez.



Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako eskakizunak langileak egindako lanaldiaren arabera izango dira, lanaldi osoari dagokiona kontuan hartuta.

4. Artikulu honetan xedatutako kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da, batetik, kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan-kontratu mugagabea duten langile kopurua ez dadila murriztu hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta, bestetik, langile kopuru hori kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea eta dagoen hazkundera, gutxienez, kenkarirako eskubidea eman duten kontratuen kopurua bestekoa izatea.

5. Lan-harremana eteten bada edo lanaldia murrizten bada (Langileen Estatutuko 47. artikulua aipatutako kasuak), eskakizunak betetzeko betebeharra geroratuko da, harik eta lan-harremanaren eteteak edo lanaldiaren murrizketak ondorioak sortzeari utzi arte.

Halaber, lan-kontratu mugagabea duten langile kopuruaren murrizketa ez da konputatuko, baldin eta enpresak langile kopuru bera kontratatzen badu lan-harreman bakoitza azkendu denetik bi hilabete pasatu baino lehen.

6. Ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez-betetze hori gertatzen den zergaldiko autolikidazioan sartu beharko du kenkariaren ondoriozko kuota, bai eta horri guztiari dagozkion berandutze-interesak ere.

7. Kenkarirako eskubidea sortzen duen kontratua formalizatu den zergaldia bukatu osteko hiru urteetan hasten diren zergaldietan zergadunak lan-kontratu berria egiten baldin badu, kontratu horrek kenkarirako eskubidea sortzeko betekizunak betetzen baditu eta beharrezkoa baldin bada aurreko ekitaldi batean sortutako kenkaria aplikatzeko eskubidea finkatzeko, orduan lan-kontratu horrek ez du kenkarirako eskubiderik sortuko, finkatze horretarako beharrezkoa den zatian. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, batera tratatuko dira foru-arau honen 66.1 artikuluko hirugarren paragrafoko eta artikulu honetako kenkarirako eskubidea sortu duten kontratuak.

8. Kenkari hori egiaztatzeko, foru-arau honen 66. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa aplikatuko da.»

II. KAPITULUA

ETXEBIZITZA

3. artikulua.— *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Bat. Berridatzi egiten da 32. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«32. artikulua.— *Gastu kengarriak eta hobaria*

1. Hurrengo 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan aipatutako etxebizitzak ez beste batzuetatik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, betiere higiezin horietan jarduera ekonomikorik egon gabe, higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen 100eko 20ko hobaria aplikatuko da.

Era berean, kengarritzat hartuko da, soil-soilik, etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatze-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, bai eta gainerako finantzaketa-gastuak ere. Horretarako, ordaindutako zenbatekoei kendu egin behar-ko zaie zergadunak aipatu diren kontzeptuei aurre egiteko jaso dituen dirulaguntzen zenbatekoa, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudia- ren arabera.

Hobariaren eta gastu kengarriaren baturak ezin izango du ekarri etekin garbi negati- borik ondasun higiezin bakoitzerako.



2. Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritako moduan errentamenduan jarritako etxebizitzatik datozen kapital higiezinaren etekin kasuan, higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen 100eko 30eko hoberia aplikatuko da.

Era berean, kengarritzat hartuko da, soilik:

- a) Etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatzehalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, bai eta gainerako finantzaketa-gastuak ere. Horretarako, ordaindutako zenbatekoei kendu egin beharko zaie zergadunak aipatu diren kontzeptuei aurre egiteko jaso dituen dirulaguntzen zenbatekoa, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera.
- b) Errentamendua dela-eta zergadunari eskubidez dagozkion errentak ez ordaintzea osorik edo partzialki estaltzen duten kreditu-aseguruen primen zenbatekoa, 300 euroko mugarekin.

Hobariaren eta gastu kengarrien baturak ez du ekarriko etekin garbi negatiborik ondasun higiezin bakoitzerako.

3. Kapital higiezinaren etekinak baldin badatoz Eusko Jaurlaritzaren «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programatik —Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez arautua— eta Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko «ASAP» bitartekaritza-programatik —Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren bidez arautua— edo antzeko beste etxebizitza-plan eta -programa autonomiko, foral edo udaleko plan batzuetatik; orduan, ehuneko 70eko hoberia aplikatuko da programa horiei etxebizitza alokatzeagatik edo lagatzeagatik higiezin bakoitzak lortutako etekin osoen gainean.

Era berean, kengarritzat hartuko da, soilik, etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatzehalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, bai eta gainerako finantzaketa-gastuak ere. Horretarako, ordaindutako zenbatekoei kendu egin beharko zaie zergadunak aipatu diren kontzeptuei aurre egiteko jaso dituen dirulaguntzen zenbatekoa, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera.

Hobariaren eta gastu kengarrien baturak ez du ekarriko etekin garbi negatiborik ondasun higiezin bakoitzerako.

4. Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan arabera etxebizitza-errentamendutik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, etxebizitza bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratu batean kokatuta badago eta alokairu-errentaren zenbatekoa erreferentzia-indizeen muge barruan badago, 100eko 70eko hoberia aplikatuko da higiezin bakoitzak lortutako etekin osoen gainean.

Era berean, honako hauek bakarrik izango dira kengarriak:

- a) Etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatzehalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, bai eta gainerako finantzaketa-gastuak ere. Horretarako, ordaindutako zenbatekoei kendu egin beharko zaie zergadunak aipatu diren kontzeptuei aurre egiteko jaso dituen dirulaguntzen zenbatekoa, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera.
- b) Errentamendua dela-eta zergadunari eskubidez dagozkion errentak ez ordaintzea osorik edo partzialki estaltzen duten kreditu-aseguruen primen zenbatekoa, 300 euroko mugarekin.

Hobariaren eta gastu kengarriaren baturak ezin izango du ekarri etekin garbi negatiborik ondasun higiezin bakoitzerako.

5. Era berean, 3. eta 4. apartatuetakoa aplikatuko da, baldin eta errentatzaileak erreferentzia-indizeetara edo bitartekaritza publikoko prezioetara mugatu badu alokairu-errenta.



6. Aurreko apartatueta sartu gabe dauden kapital higiezinaren etekin kasuan, etekin osoa gastu kengarri hauen zenbatekoan gutxituko da:

- a) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gastuak, barnean sartuta etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatzeko-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen zenbatekoa, eta gainerako finantzaketa-gastuak ere bai.
- b) Etekinen iturri diren ondasunek haiek erabiltzeagatik edo denbora igarotzeagatik jasandako narriaduraren zenbatekoa, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Erabiltze- edo gozatzeko- eskubide edo -ahalmenen titulartasunetik datozen etekin kasuan, kengarria izango da, balio-galera gisa, ordaindutako eskurapen-balioen zati proportzionala, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Gastu kengarrien baturak ezin izango du ekarri ondasun etekin garbi negatiborik higiezin bakoitzerako.»

Bi. Berridatzi egiten da 39. artikulua 2. apartatuaren hirugarren paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Zenbaki honetako lehenengo paragrafoan xedatzen dena gorabehera, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan aipatzen den etxebizitzaren azpierreantamendutik datozen etekinak direnean, etekin garbia lortzeko soilik izango da kengarria azpierreantatzaileak errentamendu gisa ordaindutako zenbatekotik azpierreantant hartutako elementuari dagokion parte proportzionala, eta, gainera, 100eko 30eko hobarria aplikatuko zaio azpierreantant emandako higiezin bakoitzeko lortutako etekin osoen eta gastu kengarri gisa konputatutako zenbatekoaren arteko diferentziari.»

Hiru. Berridatzi egiten da 49. artikulua 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Zergadunaren ohiko etxebizitza eskualdatzean lortutako ondare-irabaziak zergapetu gabe geratu ahal izango dira, baldin eta etxebizitzaz aldatzea arrazoituen duen inguruabarren bat badago eta eskualdatze horretan lortutako zenbateko osoa beste ohiko etxebizitza bat eskuratzeko berriz inbertitzen bada, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

Etxebizitzaz aldatzea arrazoitzen duten inguruabartzat honako hauek hartuko dira: eskualdatutako etxebizitza zergadunaren edo bizikideen familia-premietarako desegokia izatea; lantokiz aldatzea edo lehen enplegua edo enplegu berria lortzea; ezkontzea edo izatezko bikotea eratzea; ezkontideak banantzea edo izatezko bikotea desegitea; etxebizitza ordaintzea eragozten duten inguruabar ekonomikoak edo antzeko beste inguruabar batzuk.

Erregelamendu bidez, aurreko paragrafoan ezarritako inguruabarrez gainera, beste batzuk ere ezarri ahal izango dira.»

Lau. Berridatzi egiten da 63. artikulua a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Foru-arau honen 32. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatueta adierazten diren etxebizitzetatik datozen kapital higiezinaren etekinak.»

Bost. Berridatzi egiten da 86. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«86. artikulua. — *Kenkaria ohiko etxebizitza alokatzeagatik*

1. Artikulu honen 2. apartatua adierazitako kolektiboetan sartuta ez dauden zergadunek, baldin eta zergaldian zehar ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen badute, zergaldian ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 20ko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 1.600 euroko mugarekin.

2. Honako hauek zergaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 35eko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 2.800 euroko mugarekin:

- a) Familia ugariaren titular diren zergadunek.
- b) Foru-arau honen 98.1 artikuluko B) eta C) letretan aipatutako familia-unitateko kide diren zergadunek.
- c) 36 urtetik beherako zergadunek.



d) %65eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua edo mendekotasun-graduren bat aitortuta daukaten zergadunek –Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun-egoera baloratzeko baremoa onartzen duen otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera–, eta haiekin bizi direnek.

e) Erregelamenduz ezartzen den moduan egiaztatutako etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren biktimatzat hartzen diren zergadunek.

3. Aurreko apartatuetan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, ordaindutako zenbatekoari kendu egin beharko zaio zergadunak etxearen alokairurako jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, betiere salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera.

4. Kapitulu honetan jasotakoaren ondorioetarako, aurreko 2. apartatuan adierazitako egoerak zehazteko, zerga sortzen den egunean dagoen egoerari begiratuko zaio.

5. Baterako tributazioa hautatuta, kenkaria aplikatzeko eskubidea duten pertsonak bat baino gehiago badira eta horien arteko batzuek betetzen badituzte aurreko 2. apartatuko kenkariaren ehuneko gehitua aplikatzeko baldintzak, baina beste batzuek ez, orduan, apartatu horretan ezarritako ehunekoa eta muga aplikatuko dira.

6. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio familiaren etxebizitzaren alokairua ordaintzeko betebeharra, hark eskubidea izango du aitorpenean aplikatzeko artikulua honetan arautzen den kenkaria. Betebehar hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzaren aitorpenean egingo da, bakoitzari dagokion proportzioan, artikulua honen 1. eta 2. apartatuetako lehenengo paragrafoek ezarritako ehunekoa eta muga aplikatuta, haietako bakoitzari dagokionaren arabera.

7. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak izango dira erabilera lagatzeko araubideko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohiko etxebizitzat hartzen badira eta kanon-errentok etxebizitza-kooperatibetako edo bestelako elkarte-moduetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkartetako bazkideek ordaindu badituzte, betiere hotel-industriari dagozkion zerbitzu osagarriak ematen ez badira; adibidez, jatetxea, arropa garbitzea edo antzeko beste batzuk, edo gizarte-laguntzako edo osasuneko zerbitzuak.

Baina ez dira izango ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak erabilera lagatzeko araubideko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohikotzat hartzen badira etxebizitza horiek eta erosteko aukera-eskubidea edo jabetza transferitzeko klausula badute; ez eta etxebizitza-kooperatibetako edo bestelako elkarte-moduetako bazkideek edo irabazi-asmorik gabeko elkartetako kideek ordaindutako beste kopuru batzuk ere, baldin eta Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badira.

Babes publikoko etxebizitzaren sustapenak administrazio publiko baten jabetzako lursailen gaineko azalera-eskubide bat eratzearen bidez gauzatzen badira, erabilera-eskubidearen izaera mugagabea betetzat joko da bazkideen erabilera-eskubidearen iraupena bat badator aipatutako azalera-eskubidearen iraupenarekin.

8. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, zergadunak 68.000 euroko edo zenbateko txikiagoko likidazio-oinarri orokor bat izan beharko du, eta, hala bada, gorkio, zenbateko bereko aurrezkiaren likidazio-oinarri bat.»

Sei. Berridazten dira 87. artikulua 4. apartatua eta 5. apartatuko b) letra, eta 10. apartatua gehitzen da; honela idatzita geratzen dira:

«4. Zergadunak 36 urte baino gutxiago baditu, honako berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan ezarritako ehunekoak 100eko 23koak izango dira.

b) 2. apartatuan ezarritako kenkaria gehienez 1.955 eurokoa izango da urtean. Hala ere, ez da aplikatuko urteko gehieneko kenkariaren muga ohiko etxebizitzaren erosketari formalizatzen den zergaldian.



Aurreko letretan xedatutakoa, b) letraren azken esaldia izan ezik, foru-arau honen 86. artikuluko 2. apartatuaren a), b), d) eta e) letretan adierazitako zergadunek aplikatuko dute, artikuluko honen 5. apartatuko b) letrean ezartzen diren kasuetan izan ezik.

Baterako tributazioa hautatuta, kenkaria aplikatzeko eskubidea duten pertsonak hainbat badira eta pertsona horietako batzuek apartatu honetan ezarritakoaren arabera betetzen badituzte kenkariaren ehuneko gehituak aplikatzeko baldintzak eta beste batzuek ez, orduan, apartatu honetan ezarritako ehunekoak eta muga aplikatuko dira.»

«b) Erregelamendu bidez ezarritako formalizazio- eta erabilera-baldintzak betetzen dituzten kreditu-entitateetako kontuetan gordailutzen diren kopuruak, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen badira, kontua ireki denetik 6 urte igaro baino lehen.

Hala ere, aurreko paragrafoan ezarritako epea 10 urtekoa izango da kontuaren titularrak 36 urte baino gutxiago badauzka kontua irekitzen duenean.

Ez da urratutzat hartuko erabiltze-baldintza, baldin eta kenkarirako eskubidea sortu duten diru-kopuruak berriro osorik sartzen badira kreditu-entitate berean edo beste kreditu-entitate batera osorik eramaten badira zergaren sortzapena gertatu baino lehen.

Orobat, ez da urratutzat hartuko etxebizitza-kontuko diru-kopurua ohiko etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabiltzeko baldintza, baldin eta zergaduna hiltzen bada letra honetako lehen eta bigarren paragrafoetan adierazitako epeak amaitu aurretik.

Ezin izango da berriro kenkaririk egin letra honetan aipatzen diren kontuetan gordailututako diru-kopuruak direla eta, aurrez kenkarirako eskubidea sortu badute, ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabiltzen direnean.»

«10. Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, zergadunak 68.000 euroko edo zenbateko txikiagoko likidazio-oinarri orokor bat izan beharko du, eta, hala bada, gorkio, zenbateko bereko aurrezkiaren likidazio-oinarri bat.»

Zazpi. Berridatzi egiten da VII. tituluko IV. kapituluaren titulua, eta honela idatzita geratzen da:

«IV. kapitulua. — Etxebizitzagatik kenkariak»

Zortzi. 87 bis artikulua berria gehitzen zaio VII. tituluko IV. kapitulari, eta eduki hau du:

«87 bis artikulua. — *Kenkaria babestutako birgaitzeagatik*

Kapital higiezinaren etekin garbia foru-arau honen 32. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan xedatutakoaren arabera zehazten duten zergadunek errentamendurako den etxebizitza birgaitzeko ordaindutako kopuruen 100eko 18ko kenkaria aplikatu ahal izango dute, urteko 3.000 euroko mugarekin.

Ondorio horietarako, birgaitzetat hartuko dira jabeak errentan emandako etxebizitzan egindako obrak, baldin eta ebazpen batek jarduketa babestu gisa kalifikatu edo deklaratu baditu obra horiek, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu hori ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa da), edo babesteko moduko jarduketa gisa kalifikatu badira abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak edo hura ordezkatzan duten antzeko arauak xedatutakoaren arabera.

Orobat, birgaitzetat hartuko da ohiko etxebizitzan egokitzapenerako egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikinaren elementu erkideak aldatzeko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hiri-lurreko finkaren eta bide publikoaren artean, hala nola eskailerak, igogailuak, pasabideak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai; eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen zentzumeneko komunikaziorako edo haien segurtasunaren sustapenerako oztopoak gainditzeko gailu elektronikoak ezartzeko beharrezko direnak, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.»



Bederatzi. Hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta eduki hau du:

«Hogeita Hemeretzigarren Xedapen Gehigarria. — *Ohiko etxebizitza erosteko kontuetan gordailututako zenbatekoak gauzatzeko epea luzatzea, halako kontu bat irekitzen denean 36 urte baino gutxiago dituztenen kasuan*

Foru-arau honen 87. artikuluko 5. apartatuaren b) letrako lehen paragrafoan aipatutako etxebizitza-kontua irekitzeko unean zergaduna 36 urtetik beherakoa bada eta 2024ko abenduaren 31n amaitu ez bada manu horretan adierazitako 6 urteko epea, ohiko etxebizitza erosteko gordailututako zenbatekoak gauzatzeko epea 10 urtekoa izango da, kontu hori irekitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Etxebizitza-kontuan aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan gordailututako kopuruek eskubidea emango dute foru-arau honen 87. artikuluan jasotzen den kategoria aplikatzeko.»

Hamar. Berrogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta eduki hau du:

«Berrogeita Hirugarren Xedapen Gehigarria. — *Etxebizitza-merkatuaren tentsionamendua*

Foru arau honen 86. artikuluko 8. apartatua eta 87. artikuluko 10. apartatua aurreikusitako muga erregelamendu bidez aldatu ahal izango da, etxebizitzaren merkatuan tentsionamendu-egoerak gertatzen badira.

Ondorio horietarako, ulertzen da etxebizitza-merkatuan tentsionamendu-egoera dagola 2026tik 2030era bitartean, biak barne.»

4. artikulua. — *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako aldaketa hauek egiten zaizkio Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauari:

Aldatzen da 32. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Aurreko apartatua aipatzen den entitatearen sarreraren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikulua 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan adierazten diren higiezinetatik lortu diren kapital higiezinaren etekinak baldin badaude, ondare-sozietateek apartatu horietan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienez.

Halaber, entitatearen sarreraren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikulua 1. apartatua adierazten diren ondasun-higiezinaren gaineko erabiltze- eta gozatze-eskubideak lagatzetik edo eratzetik eratorritako etekinak badaude, higiezin bakoitzetik lortutako sarrera osoen 100eko 10 jo ahal izango da kengarrizat, bai eta etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatze-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen eta gainerako finantzaketa-gastuen zenbatekoa ere. Zenbateko kengarri bi horien baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.

Entitatearen sarreraren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 32. artikulua 6. apartatua adierazten diren ondasun-higiezinaren gaineko erabiltze- eta gozatze-eskubideak lagatzetik edo eratzetik eratorritako etekinak badaude, higiezin bakoitzetik lortutako sarrera osoen 100eko 30 jo ahal izango da kengarrizat, bai eta etekinak sortzen dituzten ondasunak, eskubideak edo erabiltze- nahiz gozatze-ahalmenak erosteko, birgaitzeko edo hobetzeko inbertitu diren besteren kapitalen interesen eta gainerako finantzaketa-gastuen zenbatekoa ere. Zenbateko kengarri bi horien baturak ez du ekarriko, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbi negatiborik.



Entitatearen sarreren artean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 34. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak badaude, ondare-sozietateek foru-arau horretako 9. artikulua 24. zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango dute errenta horiei dagokienez.

Hala ere, ondare-sozietateek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 66. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute.»

5. artikulua. — Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren aldaketa

Aldaketa hauek egiten zaizkio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauari:

Bat. Aldatu egiten dira 13. artikulua b) eta c) letrak, eta honela idatzita geratzen dira:

«b) Goiko paragrafoan xedatutakoak badu salbuespen bat: oro har, etxebizitzaren eskualdaketen %4ko karga-tasa izango dute, eta haien barruan sartuko dira bai garaje plazak (gehienez bi unitate) eta bai etxebizitzaren eranskinenak ere, baldin eta denak eraikin berekoak badira, 13 eta denak batera eskualdatzen badira. Nolanahi ere, negozio lokalak ez dira hartuko etxebizitzaren eranskintzat, nahiz eta harekin batera eskualdatu.

Halaber, %4ko karga-tasa izango dute etxebizitzaren, haien garaje plazak (gehienez bi unitate) eta eranskinen gaineko eskubide errealek eraketak eta lagapenak (salbu bermeko eskubide errealek), baldin eta denak eraikin berekoak badira, eta denak batera eskualdatzen badira. Horrez gainera, karga-tasa beraz ordainduko da etxadiaren eta haren jabegoen jabari osoa edo haien bizi bitarteko gozamenaren enborreko ahaideei kostu bidez eskualdatzea, zeina Euskal Zuzenbide Zibilean arautzen baita.

Letra honetan aurreikusitako zerga-tasa aplikatu ahal izateko, eskuratzailerak ez du 5 etxebizitza baino gehiagoren titularrak izan behar, % 50etik gorako portzenta-jean etxebizitza bakoitzean. Horretarako, eskuratzailerak erantzukizunpeko adierazpena egingo dio zerga-administrazioari, inguruabar hori jasota gera dadin, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan, zerga-administrazioak egiaztatzea eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintza betetzen ez bada, etxebizitzaren eskualdaketak 100eko 6ko zerga ordainduko du.

- c) 1.a Honako etxebizitza hauen eskualdaketak 100eko 2,5ean tributatuko du:
- Gehienez 120 metro koadroko azalera eraikia duten etxebizitzak, bai eta aurreko b) letran adierazitako garajeak eta eranskinak ere, eskuratzailerak kopurua edozein dela ere.
 - Gehienez 120 metro koadroko azalera eraikia duten familia bakarreko etxeak, zeinen partzelaren azalera (eraikinak hartzen duen zatia barne) ez baita 300 metro koadrotik gorakoa, eskuratzailerak kopurua edozein dela ere.
- c) letra honen ondorioetarako, familia bakarreko etxebizitzatzen sarrera independentea duena joko da, eta bakartua, binakakoa, atxikia edo ilarakoa izan daiteke.
- Azalera eraikia, berriz, hemen ezarritakoa izango da: hiri- edo landa-izaerako osagaiak dauzkaten ondasun higiezinak zerga-ondorioetarako balioztatzeke arau teknikoaren 5. arauko 2. apartatuan ezarritakoa (arauok uztailaren 2ko 87/2024 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren).
- 2.a Halaber, honako etxebizitza hauen eskualdaketak 100eko 2,5ean tributatuko du, eskuratzailerak familia ugariaren titularrak bada:
- Etxebizitzak eta aurreko b) letran adierazitako garajeak eta eranskinak ere, eskuratzailerak kopurua edozein dela ere.



— Familia bakarreko etxebizitzak, eskuratzaille-kopurua edozein dela ere. Letra honetan jasotako ondorioetarako, negozio-lokalak ez dira hartuko etxebizitzaren eranskintzat, nahiz eta etxebizitzarekin batera eskualdatu.

100eko 2,5eko tasa aplikatzeko, betekizun hauek bete behar dira:

1. Eskuratzaillea ez izatea beste etxebizitza baten jabe ehuneko 25etik gorako portzentajea, eskuratu nahi den etxebizitza dagoen udalerraren barruan.

Baldintza hori ez da urratutzat joko jabea beste etxebizitza baten titularra denean, baldin eta etxebizitza hori bi urteko epean eskualdatzen bada, letra honetan aurreikusitako tasan zergapetu den etxebizitza erosi denetik zenbatzen hasita. Etxebizitza adierazitako bi urteko epean eskualdatzen ez bada, 100eko 2,5eko tasa aplikatzeko eskubidea galduko da, eta, orduan, tributu-egoera erregularizatu beharko da, dagozkion berandutze-interesak barne.

2. Etxebizitza eskuratzaillearen ohiko etxebizitza legez erabiltzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.

Betekizun hori betetzen dela frogatzen duen dokumentazioa etxebizitza eskuratzen denetik hamabi hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da, edo, hala badagokio, aurreko 1. zerbakian jasotako betekizunean aipatzen den etxebizitza eskualdatzeko gehieneko epea igarotzen denetik. Hori egiaztatzeko, zuzenbidean onartuta dauden frogabideak erabili daitezke. Nolanahi ere, preskripzio-epetaren barruan egiaztatzen bada etxebizitza ez dela ohiko etxebizitza legez erabiltzen, tasa 100eko 4ra igoko da.

Zergapekoa pertsona fisikoa bada eta jarduera ekonomiko bati afektatuta ez dagoen lokal bat etxebizitzarako gaitzen badu, zerga-administrazioak, aurretik egin zaion eskaerari erantzunez, itzuli egingo du bi kopuru hauen arteko diferentzia: batetik, zerga dela-eta benetan ordaindutako zenbatekoa, eta, bestetik, eskuratutako higiezinari b) eta c) letretan adierazten direnetatik dagokion zerga-tasa aplikatuz ateratzen den kopurua. Nolanahi ere, tasa hori aplikatzeko ezartzen diren baldintzez gainera, zergapekoak eskualdatzea egin denetik 18 hilabete igaro baino lehen frogatu behar du lokala etxebizitza legez lehenengoz erabiltzeko edo okupatzeko lizentzia daukala. Itzulketa horrek ez du sortuko berandutze-interesik.»

Bi. 46. apartatua gehitzen zaio 58. artikuluari, eta eduki hau du:

«46. Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erabilera egonkor eta iraunkorrerako etxebizitzaren errentamenduak.»

6. artikulua.— Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren aldaketa

Honako aldaketa hau egiten zaio Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauari:

10. apartatua gehitzen zaio 12. artikuluari, eta eduki hau du:

«10. 36 urtetik beherako zergadunen alde dirutan egiten diren dohaintzak, haien ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurreko ahaideek, ondorengoek edo hirugarren mailara arteko albo-ahaideek (ahaidetasunaren jatorria odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotea eratzearen ondoriozko harremana edo adopzioa edo harrera iraunkorra izan daiteke) dohaintza-hartzaileak ohiko etxebizitza jabetzan eskura dezan egiten dituztenak.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko eskubidea ematen duten dohaintzen multzoaren gehieneko zenbatekoa 30.000 euro izango da dohaintza-hartzaile bakoitzeko.



Apartatu honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Zerga honen autolikidazioa aurkeztea foru-arau honen 69.1 artikuluaen hirugarren paragrafoan ezarritako epean; autolikidazioarekin batera, agiri publiko edo pribatu bat aurkeztu beharko da, zeinean berariaz adieraziko baita dohaintzan hartutako zenbatekoa dohaintza-hartzaileak ohiko etxebizitza erosteko erabiliko dela, bai eta eskualdaketa egiaztatzen duen agiria ere.
- b) Dohaintza-hartzaileak 2 urteko epean eskuratu behar du etxebizitza, dohaintza-datatik zenbatzen hasita, edo, dohaintza bat baino gehiago badaude, lehenengo dohaintza-datatik zenbatzen hasita.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat joko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 87. artikuluaen 8. apartatuan eta foru-arau hori garatzeko erregelamenduan ezarritakoa betetzen duena.»

7. artikulua.—Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren aldaketa

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauari:

Bat. Aldatu egiten da 10. artikuluaen 5. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«5. Ordenantza fiskalek zerga-kuota osoaren 100eko 99ra arteko hoberia arautu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzaren «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programaren —Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez arautua— eta Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko «ASAP» bitartekaritza-programaren —Eusko Jaurlaritzaren irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren bidez arautua— edo antzeko beste etxebizitza-plan eta -programa autonomiko, foral edo udaleko plan batzuen arloan lagatzen diren ondasun higiezinatarako.»

Bi. Aldatu egiten da 10. artikuluaen 9. apartatuko lehenengo paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«9. Ondasun higiezinak bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean —hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez—, udalek 100eko 150erainoko errekarua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.»

III. KAPITULUA

GIZARTE-AURREIKUSPENA

8. artikulua.—Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Bat. 38. apartatua gehitzen zaio 9. artikuluari, eta eduki hau du:

«38. Foru-arau honen 18. artikuluko a) letran jasotako prestazioak, arau horren 19. artikuluko 2. apartatuaren b) letraren hirugarren paragrafoan eta 70. artikuluan aurreikusitako gertakizunak eta egoerak gertatzeagatik jasotakoak, salbu eta 1., 2. eta 4. zenbakietan ezarritako prestazioak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako sistema gisa jarduten dutenean, eta 6. zenbakian jasotakoak, errenta gisa jasotzen direnean, foru-arau honen 37. e) artikuluan aipatzen diren etekinei dagokien zatian.



Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatzeko, beharrezkoa izango da eraturako errenta biziartekoa izatea, edo, aldi baterako errenta bada, gutxienez 15 urteko iraupena eta zenbateko konstantea izatea, arrazoi teknikoek edo finantzarioek zenbatekoari eragindako aldaketak gorabehera.»

Bi. Aldatu egiten da 18. artikulua a) letrako lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Honako prestazio hauek, non eta foru-arau honetan ez zaien beste kalifikazio bat ematen:»

Hiru. Berridatzi egiten da 19. artikuluko 2. apartatuaren b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Foru-arau honen 18.a) artikuluan ezarritako prestazioak —6. zenbakikoak kanpoan utzita— kapital gisa jasotzen badira, jasotako zenbatekoa 100eko 100ean integratuko da.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, kapital gisa jasotako zenbatekoa, foru-arau honen 37.e) artikuluan aurreikusitako etekinei ez dagokiena, 100eko 70ean integratuko da, kontingentzia bakoitzagatik jasotzen den lehenengo prestazioa bada, betiere bi urte baino gehiago igaro badira lehenengo ekarpena egin zenetik. Bi urteko epea ez da eskatuko baliaezintasuna edo mendekotasuna dela eta jasotzen diren prestazioetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko 18.a) artikuluko 1., 2. eta 4. zenbakietan adierazitako prestazioei, zeinak kapital gisa jaso baitira, kasu horretan gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide bereziaren ordezkotako sistema gisa jarduten badute. Kasu horietan, aurreko a) letran aurreikusitakoaren arabera ordainduko da zerga.

Letra honetan ezarritako tratamendua gaixotasun larriaren eta iraupen luzeko langabeziaren kasuetan jasotako zenbatekoei ere aplikatuko zaie, bai eta eskubide ekonomikoen edo eskubide kontsolidatuen erreskatearen edo borondatezko edo nahitaezko bajaren kasuetan jasotakoei ere.

Letra honetan ezarritako ondorioetarako, zergaldi berean kapital gisa jaso diren kopuruen batura hartuko da jasotako lehenengo kopurutzat.»

Lau. e) letra gehitzen zaio 37. artikuluari, eta eduki hau du:

«e) Foru-arau honen 18. artikulua a) letran adierazitako prestazioak jasotzean agerian jartzen den gizarte-aurreikuspeneko sistemai egindako ekarpen eta enpresa kontribuzioetatik zuzenean eratorritako etekin positiboak, salbu eta 1., 2., 4. zenbakietako prestazioak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide bereziaren ordezkotako sistema gisa jarduten dutenean, eta 6. zenbakikoak.

Ondorio horietarako, etekintzat hartuko da zergadunaren eskubide ekonomikoen eta aurreko paragrafoko prestazioak jasotzen diren unean egindako ekarpen eta kontribuzioen artean dagoen alde positiboa.»

Bost. Aldatu egiten da 39. artikuluko 3. apartatuaren lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Hala ere, foru-arau honen 37. artikuluko a), b), c) eta d) letretan adierazitako etekinetatik datorren etekin garbia 100eko 60n integratuko da, bi urtetik gorako epean sortu bada eta aldizka edo noizean behin lortu ez bada. Integrazio-portzentajea 100eko 50 izango da, sorrera-aldia bost urtetik gorakoa bada edo etekinak erregelamendu bidez hartzen badira denboran era irregular nabarmenean lortutakotzat.»

Sei. Aldatu egiten da 63. artikulua b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Foru-arau honen 34., 35. eta 36. artikuluetan eta 37. artikuluko e) letran ezarritako kapital higigarriaren etekinak. Hala ere, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan izan ezik, 35. artikuluan adierazitako kapital higigarriaren etekinak, zergadunarekin lotutako entitateetatik datozenak —Sozietateen gaineko Zergari



buruzko Foru Arauaren 42. artikulua eta foru-arau honen 54. artikulua hiru paragrafoen ildoan— errenta orokorraren parte izango dira.»

Zazpi. Aldatu egiten da 70. artikulua 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«Zergadunak osorik edo partzialki erabiltzen baditu artikulua honetan jasotako gizarte-aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak, pentsio-plan edo -funtzen araudian jasotakoak ez beste kasu batzuetan edo borondatezko edo ezinbesteko bajaren kasuetan eta entitatearen likidazioaren kasuetan, berriro jarri beharko ditu, dagozkien zergaldietan, zerga-oinarri orokorrean oker egin dituen murriztapenak, zeinei sortutako berandutze-interesak gehitu beharko baitzaizkie.

Jasotako kopuruek, egindako ekarpenen zenbatekoa gainditzen badute, sustatzailerak egotzitako kontribuzioak barne, lan-etekin gisa tributatuak dute jasotzen diren zergaldian, foru-arau honen 37. artikuluko e) letran xedatutakoa aplikatzeko denean izan ezik.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak errenta gisa jasotzen badira, ez da aplikatuko foru-arau honen 9. artikuluko 38. zenbakian xedatutakoa.»

Zortzi. Berridatzi egiten da 71. artikulua 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«71. artikulua.— *Murriztapenen mugak gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik*

1. Halakoen berariazko araudian jasotako muga finantzarioen kalterik gabe, muga hauek izango dituzte gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik egin daitezkeen murriztapenek:

- a) Urteko 5.000 euro: bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuak aurreko artikuluan aipatuta dauden eta hurrengo letretan aurreikusita ez dauden gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen baturarako.
- b) Urteko 8.000 euro, bazkide babesleek, aurreko artikuluko 1. apartatuaren 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio-planen sustatzaileek, edo enpresen gizarte-aurreikuspeneko tresna gisa edo enpresaren gizarte-aurreikuspeneko planetan hartzaile gisa jarduten duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek edo mendekotasuneko aseguru kolektiboek bazkide, partaide, aseguratu edo mutualisten alde egin eta haiei egotzitako enpresa-kontribuzioen baturarako, bai eta bazkide, partaide, aseguratu edo mutualista horiek aipatu diren gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen baturarako, ekarpenok direla negoziazio kolektiboan adostutakoak, direla planaren erregelamendutik eratorritakoak —bazkide langileen kasuan edo kooperatiba- edo lan-sozietateen lanaren kasuan—, direla langilearen erabaki baten ondoriozkoak.

Ulertu behar da muga horren barruan sartuta daudela enpresaburu indibidualak edo profesionalak gizarte-aurreikuspeneko plan edo mutualitateei, aurreko artikuluko 1. apartatuaren 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren enpleguko pentsio-planeei edo enpresen gizarte-aurreikuspeneko planeei edo mendekotasuneko aseguru kolektiboek egindako ekarpen propioak, baldin eta enpresaburua, aldi berean, sustatzailea eta partaide, edo mutualista, hartzailea edo bazkide babeslea eta onuraduna bada, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, betiere ekarpen horiek proportzionaltasun-maila jakin bat badute enpresaburu indibidualak edo profesionalak bere ardurapean dituen langileen alde egiten dituen kontribuzioekiko, soldata-portzentaje bat, proportzio ekonomiko bat edo antzeko beste inguruabar batzuk kontuan izanik.

Gizarte-aurreikuspeneko planeei egindako ekarpenek —aurreko paragrafoan aipatuak— erregelamendu bidez ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

- c) Urteko 4.000 euro, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenen baturarako, sistema horietako partaide edo bazkide osoak beren konturako langileak edo autonomoak diren kasurako.



Beren ardurapean langilerik ez duten beren konturako langileek edo langile autonomoek enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako ekarpenak muga horren barruan daudela ulertuko da.

Hala ere, c) letra honetan aurreikusitako mugatik kanpokotzat hartuko dira bazkide langileek egindako ekarpenak edo kooperatiba- edo lan-sozietateen lan-ekarpenak.

- d) 1. apartatu honetako aurreko a), b) eta c) letretan ezarritakoa gorabehera, eta haietan ezarritako mugak betez, enpresek gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik murriztapenen baturak 10.000 euroko muga izango du, urtean; lehentasuna izango dute enplegu-sistemei egindakoek.»

Bederatzi. VI bis kapitulua gehitzen zaio VII. tituluari, eta eduki hau du:

«VI bis kapitulua.—Kenkariak gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik

91 bis artikulua.—*Kenkaria borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako ekarpenengatik*

1. Zergadunek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratuta dauden gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egiten dizkieten ekarpenek zergaren kuota osoan kenkari bat egiteko eskubidea emango dute, honako baldintza hauetan:

- Enpresaren ekarpen eta kontribuzio guztiak batera entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 3 edo gehiago eta 100eko 5 baino gutxiago badira, kenkariaren ehunekoa 100eko 15 izango da.
 - Enpresaren ekarpen eta kontribuzio guztiak batera entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 5 edo gehiago eta 100eko 8 baino gutxiago badira, kenkariaren ehunekoa 100eko 20 izango da.
 - Enpresaren ekarpen eta kontribuzio guztiak batera entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 8 edo gehiago badira, edo zergaduna zergaren sortzapen-datan 36 urte baino gutxiago baditu, kenkariaren ehunekoa 100eko 25 izango da.
2. Kenkariaren oinarria zergadunak negoziazio kolektiboaren ondorioz egindako ekarpenen baturak osatuko du, ekarpen horiek zerga-oinarria foru-arau honetan ezarritako moduan murriztu badute.
3. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo 5 zergaldietako aitopenetan aplikatu ahal izango dira.

91 ter artikulua.—*Kenkaria enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako ekarpenengatik, sistema horietako partaide eta bazkide osoak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak badira, eta beren ardurapean langilerik ez duten norberaren konturako langileek edo langile autonomoek enplegu-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik*

1. Zergadunek enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egiten dizkieten ekarpenek 100eko 10eko kenkaria izango dute zergaren kuota osoan. Sistema horietan, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetako legediaren babesean sortutakoak barne, partaide edo bazkide osoak norberaren konturako langileak edo autonomoak izango dira.

Aurreko paragrafoan ezarritako portzentajea 100eko 15 izango da ekarpenak zergaren sortzapen-datan 36 urte baino gutxiago dituzten zergadunek egiten badituzte edo ekarpenak gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planei egiten zaizkienean.



Beren ardurapean langilerik ez duten beren konturako langileek edo langile autonomoek enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako ekarpenei ere aplikatuko zaie aurreko paragrafoetan xedatutako kenkaria.

2. Kenkariaren oinarria zergadunak egindako ekarpenen batura izango da, ekarpen horiek foru-arau honetan aurreikusitakoaren arabera zerga-oinarria murriztu badute.

3. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo 5 zergaldietako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.»

Hamar. Aldatu egiten da hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarriaren c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«c) Zergadunak osorik edo partzialki erabiltzen baditu artikuluko honetan jasotako gizarte-aurreikuspeneko sistemetatik eratorritako eskubide kontsolidatuak eta eskubide ekonomikoak, pentsio-plan edo -funtsen araudian jasotakoak ez beste kasu batzuetan edo borondatezko edo ezinbesteko bajaren kasuetan eta entitatearen likidazioaren kasuetan, berriro jarri beharko ditu, dagozkien zergaldietan, zerga-oinarri orokorrean oker egin dituen murriztapenak, zeinei sortutako berandutze-interesak gehitu beharko baitzaizkie.

Jasotako kopuruek, egindako ekarpenen zenbatekoa gaintitzen badute, sustatzaileak egotzitako kontribuzioak barne, lan-etekin gisa tributatuko dute jasotzen diren zergaldian, foru-arau honen 37. artikuluko e) letran xedatutakoa aplikatzea denean izan ezik.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak errenta gisa jasotzen badira, ez da aplikatuko foru-arau honen 9. artikuluko 38. zenbakian xedatutakoa.»

Hamaika. Gehitzen dira hiru xedapen gehigarri, berrogeigarrena, berrogeita batgarrena eta berrogeita bigarrena; hona testuak:

«Berrogeigarren Xedapen Gehigarria. — *Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako ekarpenak*

2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, zergadunek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako ekarpenek, negoziazio kolektiboaren ondorioz egin badira eta zerga-oinarri orokorra murriztu badute, zergaren kuota osoan 100eko 10eko kenkaria egiteko eskubidea sortuko dute, baldin eta enpresak egindako ekarpen eta kontribuzio guztiak entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordinaren 100eko 3 baino gutxiago badira.

Kenkariaren oinarria zergadunak negoziazio kolektiboaren ondorioz egindako ekarpenen baturak osatuko du, ekarpen horiek zerga-oinarria foru-arau honetan ezarritako moduan murriztu badute.

Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo 5 zergaldietako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.

Berrogeita Batgarren Xedapen Gehigarria. — *Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planak ez diren enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako ekarpenen araubidea*

Foru-arau honen 91 bis eta 91 ter artikuluetan eta berrogeigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planak ez diren enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako ekarpenei ere aplikatuko zaie, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetako legediaren babesean sortutakoak barne, baldin eta beren zehaztapenekin bat etorrita betetzen badituzte borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planen aplikatu beharreko araudian ezartzen diren baldintzak.



Berrogeita Bigarren Xedapen Gehigarria. — *Gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioetatik zuzenean eratorritako etekin positiboak*

Indarrean dauden informazio-betebeharren kalterik gabe, betebeharreko entitateek zerga-administrazioaren esku jartzen ez badute gizarte-aurreikuspeneko sistemetan txertatutako eskubide ekonomikoetatik foru-arau honen 37. e) artikuluan aipatzen diren etekinei dagokien zatiari buruzko informazioa, betiere lehen ekarpena 2026ko urtarrilaren 1 baino lehen egin bazaio aurreikuspen-sistemari, aipatutako etekinak honela kalkulatu dira: 100eko 1eko portzentajea aplikatuko zaio aipatutako aurreikuspen-sistemako prestazioak jasotzen dituen pertsonak sistema horretan duen antzintasun-urte bakoitzeko jasotako prestazioaren zenbatekoari, aipatutako prestazioen 100eko 35eko mugarekin.

Ondorio horietarako, aurreikuspen-sistemako prestazioen hartzailearen antzintasuna zehazteko, prestazioa errenta gisa jasotzea aitortu arteko urte kopurua zenbatuko da.

Halaber, indarrean dauden informazio-betebeharren kalterik gabe, informazioa emateko betebeharra duten entitateak ez badute zerga-administrazioaren esku jartzen jasotzaileak gizarte-aurreikuspeneko sistemari duen antzintasunari buruzko informazioa, aurreko paragrafoan adierazitako etekinak kalkulatu dira jasotako prestazioaren zenbatekoari 100eko 25eko portzentajea aplikatuta.

Erregelamenduz ezarri ahal izango dira xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatzeko arau gehigarriak.»

Hamabi. Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorra gehitzen da, eta eduki hau du:

«Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorra. Foru-arau honen 18. artikuluko a) letran ezarri eta kapital moduan jasotako prestazioetarako aldi baterako araubidea (6. zenbakian ezarritakoak izan ezik).

Zergadunek aplikatu ahal izango diote 19. artikulua 2. apartatuko b) letran ezarritako araubidea —2025eko abenduaren 31n indarrean zegoen idazketan— foru-arau honen 18. artikulua a) letran ezarri eta kapital gisa jasotako prestazioen zatiari, 6. zenbakian ezarritakoak izan ezik, baldin eta enpresak 2026ko urtarrilaren 1 baino lehen egindako ekarpen eta -kontribuzioetatik badatoz.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuetan, ez da aplikatuko foru-arau honen 37. artikuluko e) letran eta 63. artikuluko b) letran xedatutakoa.»

9. artikulua. — *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, honako aldaketa hauek egiten zaizkio Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauari:

Bat. 66 septies eta 66 octies artikulua gehitzen zaizkio V. tituluko III. kapitulari; hona testuak:

«66 septies artikulua. Kenkaria borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako enpresa-kontribuzioengatik.

1. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako enpresa-kontribuzioek zergaren kuota likidoan kenkari bat egiteko eskubidea emango dute, honako letra hauetan aurreikusitako baldintzetan:

a) Egindako eta langileei fiskalki egotzitako enpresa-kontribuzioek entitate enplegatzailleak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 1,5 edo gehiago eta 100eko 2,5 baino gutxiago badira, kenkariaren ehunekoa 100eko 15 izango da.



- b) Egindako eta langileei fiskalki egotzitako enpresa-kontribuzioek entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 2,5 edo gehiago eta 100eko 4 baino gutxiago badira, kenkariaren ehuneko 100eko 20 izango da.
- c) Egindako eta langileei fiskalki egotzitako enpresa-kontribuzioek entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 4 edo gehiago badira, edo 36 urtetik beherako pertsonen aldekoak badira, kenkariaren ehuneko 100eko 25 izango da.

2. Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei fiskalki egotzitako kontribuzioen batura izango da.

66 octies artikulua. — *Kenkaria enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako enpresa-kontribuzioengatik*

1. Enpresek foru-arau honen 66 septies artikuluan jasotakoez bestelako enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioek eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan 100eko 10eko kenkaria egiteko, betiere enpresaren kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 1,5 edo gehiago badira edo 36 urtetik beherakoen alde.

Artikulu honetan araututako kenkaria baldintza berdinetan aplikatuko zaie Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetako lege-diaren babesean sortutako aurreikuspen-sistemei egindako kontribuzioei, baldin eta beren zehaztapenekin bat etorrira betetzen badituzte aurreko paragrafoan jasotako aurreikuspen-sistemei aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzak.

2. Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei fiskalki egotzitako kontribuzioen batura izango da.»

Bi. Hiru xedapen gehigarri gehitzen dira, hogeita hamaikagarrena, hogeita hamabigarrena eta hogeita hamahirugarrena; hona testuak:

«Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarria. — *Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako kontribuzioak*

2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, 66 septies artikuluan adierazitako gizarte-aurreikuspeneko lehentasunezko planei egindako kontribuzioek, baldin eta langileei fiskalki egotzi bazaizkie eta negoziazio kolektiboaren ondoriozkoak badira, eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan 100eko 10eko kenkaria egiteko, betiere enpresa-kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 1,5 baino gutxiago badira.

Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei fiskalki egotzitako kontribuzioen batura izango da.

Kenkari horri foru-arau honen 59. eta 67. artikuluetan ezarritako erregelak aplikatuko zaizkio.

Hogeita Hamabigarren Xedapen Gehigarria. — *Enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioak*

2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioek (foru-arau honen 66 octies artikuluan aipatuak), baldin eta langileei fiskalki egotzi bazaizkie eta negoziazio kolektiboaren ondoriozkoak badira, eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan 100eko 5eko kenkaria egiteko, betiere enpresa-kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak ordaintzen duen urteko soldata gordin osoaren 100eko 1,5 baino gutxiago badira.



Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei fiskalki egotzitako kontribuzioen batura izango da.

Kenkari horri foru-arau honen 59. eta 67. artikuluetan ezarritako erregelak aplikatuko zaizkio.

Hogeita Hamahirugarren Xedapen Gehigarria.— *Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planak ez diren enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako kontribuzioen araubidea*

66. septies artikuluan eta hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoa borondatezko aurreikuspen-entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planak ez diren enpleguko aurreikuspen-sistemei egindako kontribuzioei aplikatuko zaie, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetako legediaren babesean sortutakoak barne, baldin eta beren zehaztapenekin bat etorrira betetzen badituzte borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko aurreikuspen-planak aplikatu beharreko araudian ezarritako baldintzak.»

IV. KAPITULUA FISKALITATE BERDEA

10. artikulua.— *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025etik 2035era bitarteko (biak barne) zergaldietarako ondorioekin, aldaketa hauek egiten zaizkio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari:

Bat. 17.2 artikuluari i) letra gehitzen zaio, eta eduki hau du:

«i) Enplegatzailearen jabetzakoak diren hiriko bizikletak erabiltzea langileak beren ohiko bizilekutik lantokira edo alderantziz joateko. Ondorio horietarako, kontuan hartzen dira pedalei eragiteko motor elektrikoaren laguntza duten bizikletak, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako definizioaren arabera.»

Bi. Aldatzen dira 27. artikuluko 5. erregelaren bigarren eta hirugarren apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«Bi. Zergadunak frogatzen badu berak erabiltzen duen ibilgailua, egindako jardueraren izaeraren ondorioz, oso garrantzitsua dela eta eskuarki erabili behar duela diru-sarrerak lortu ahal izateko, aipatutako gastuetan 100eko 50 izango da kengarria. Hala ere, ibilgailu bakar baten gastuak soilik kendu ahal izango dira, eta honako muga hauekin:

a) 3.000 euro edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 30.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean, arestian adierazitakoaren ordez, 4.000 euro aplikatuko dira, edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 40.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

b) 30.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzen duten parte proportzionala, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada, ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuei dagokienez.



Aurreko a) letrako bigarren paragrafoan aipatutako ibilgailuak badira, 40.000 euro aplikatuko dira.

- c) 3.600 euro gainerako kontzeptuak direla eta, elementuon erabilerarekin lotuta badaude, ibilgailu eta urte bakoitzeko edozelan ere.

Hiru. Zergadunak modu sinesgarrian frogatzen duenean ibilgailua eskusiboki afektatu zaiola beraren jarduera ekonomikoari, gastu horiek kengarriak izango dira, baina honako muga hauekin:

- a) 6.000 euro edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 30.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean, arestian adierazitakoaren orde, 8.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 40.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta.

- b) 30.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzan duten parte proportzionala, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada, ibilgailuok eskuratzearan ondoriozko finantza-gastuei dagokienez.

Apartatu honetan a) letrako bigarren paragrafoan aipatzen diren ibilgailuak badira, 40.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzan duten parte aplikatuko da, baldin eta zenbateko hori handiagoa bada.

- c) 7.200 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik.

Zergadunak ez badu urteko aldi batean ibilgailu hori erabiltzen, erabili duen denboraren arabera kalkulatu da erregela honetan aipaturiko mugak.»

Hiru. Berridatzi egiten da 60. artikulua 2. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

- «b) Pertsona edo entitate ordaintzailearen jabetzako automobilak eta haien erremolkeak, motorrak, motozikletak, laketontziak edo itsas kiroletako ontziak zein aireontziak erabili edo ematen diren kasuetan:

— Ibilgailua eman egiten bada, ibilgailu horren eskurapen-kostua hartuko da, eragiketa kargatzen duten tributua barne.

— Ibilgailua erabili egiten bada, aurreko paragrafoan aipatzen den kostuaren 100eko 20 hartuko da urteko.

Erabilerari dagokion balorazioa ehuneko 30 murriztu ahal izango da ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean.

— Ibilgailua erabili eta, horren ondoren, eman egiten bada, azken horren balorazioa aurreko erabileraren ondorioz ateratzen den balorazioa kontuan hartuz egingo da.

Ordaintzailearen jabetzakoak ez diren garraiobideak erabiliz gero, ordaintzaileari dakarkioten kostua hartuko da kontuan, tributua eta gastuak barne.

Aurreko paragrafoan ezarritako balorazioa ehuneko 30 murriztu ahal izango da ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean.

Goian aipaturiko kasu guztietan, pertsona edo entitate ordaintzaileak ordaintzen dituen ibilgailua erabiltzeari berez dagozkion gastuak (hala nola konponketak, erregaia, aparkalekua eta ordainpeko autobideak), horrek guztiak ordaintzaileari dakarkion kostua hartuko da kontuan.



Ibilgailua lanerako zein helburu partikularretarako erabiltzen denean, gauzazko ordainketaren balorazioa izango da letra honetan jasotako erregelak dena delako kasuari aplikatu ondoren ateratzen den emaitzaren 100eko 50.»

Lau. VI ter kapitulua gehitzen zaio VII. tituluari, eta eduki hau du:

«VI ter kapitulua.—Kenkariak mugikortasun jasagarriaren, efizientiaren eta energia-trantsizioaren esparruan

91 quater artikulua.—*Kenkaria etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko eta energia berriztagarriak integratzeko obrak egiteagatik*

1. Zergadunek obra edo instalazio hauengatik ordaindutako zenbatekoen 100eko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute:

- a) Bere ohiko etxebizitzan edo une horretan errentan emanda daukan bere titulartasuneko beste edozein etxebizitzatan berokuntza- eta hozte-eskaria murrizteko egindako obrak, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- b) Ohiko etxebizitzan edo une horretan errentan emanda daukan bere titulartasuneko beste edozein etxebizitzatan energia primario berriztaezinaren kontsumoa hobetzeko egindako obrak, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- c) Nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinetan energia-efizientzia hobetzeko egindako energia-birgaikuntzako obrak, baldin eta eraikin horietan zergaduna etxebizitza baten jabe bada, dela ohiko etxebizitza, dela une horretan errenta emanda daukan etxebizitza bat, Hiri-errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Kenkari horren ondorioetarako, honako obra eta instalazio hauek bakarrik hartuko dira kontuan:

- a) Energia berriztagarriak erabiltzea ahalbidetzen duten sorkuntza-ekipo hauek instalatzea:
 - a') Biomasa-galdarak, eraikinaren edo etxebizitzaren bero-eskariari (berokuntza eta etxeko ur beroa) erantzuteko.
 - b') Aerotermia-, hidrotermia- eta geotermia-sistemak eraikinaren edo etxebizitzaren bero-eskariari (berokuntza eta etxeko ur beroa) erantzuteko.
 - c') Eguzki-instalazio fotovoltaikoak eraikinaren edo etxebizitzaren autokontsumorako, dela banakakoa, dela partekatua.
 - d') Eguzki-instalazio termikoak eraikinaren edo etxebizitzaren etxeko ur beroaren eskariari erantzuteko.

Aurreko letretan aipatutako ekipoen instalazioarekin parekatuko da entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratzea, bazkide, akziodun, elkartekide, partaide edo antzeko gisa, baldin eta entitateon helburu soziala bada, nagusiki, baliabide berriztagarrietatik energia termikoa edo elektrikoa sortzen laguntzen duten proiektuak egikaritzea, aipatutako ekipoetan inbertsioak eginez. Tresna horiek bai entitatea eratzen denean, bai eratu eta hurrengo bost urteetan egindako kapital-gehikuntza batean harpidetu beharko dira.

Zergadunaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza ezin izango da entitatearen kapital sozialaren edo haren boto-eskubideen 100eko 10 baino handiagoa izan. Zergaduna familia-unitate batean integratuta dagoenean, muga hori aplikatzeko, familia-unitateko kide guztien partaidetzak hartuko dira kontuan.

- b) Eraikin osoan egindako banakako edo taldeko jarduketan bidez etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzea helburu duten proiektuak, baldin eta energia primario berriztaezinaren kontsumoa gutxienez 100eko 30 murriztea badakarte, edo, bestela, etxebizitzaren edo eraikinaren energia-kalifikazioa hobetzea helburu duten proiektuak, «A» edo «B» motako energia-maila lortzeko.



3. Kenkariaren oinarrian artikuluko honen 2. paragrafoan aipatutako obra eta instalazioengatik ordaindutako kopuruak sartuko dira.

Ondorio horietarako, obra eta instalazioengatik ordaindutako kopurutzat hartuko dira haiek egikaritzeko beharrezkoak direnak, barne direla zerbitzu-sariak, proiektu teknikoak idazteko kostuak, obra-zuzendaritza, obrak edo instalazioak egikaritzeko kostua, ekipo eta materialetan egindako inbertsioa eta haiek garatzeko beharrezkoak diren beste gastu batzuk, bai eta energia-efizientziaren ziurtagiriak ematea ere. Berebat, kenkariaren oinarrian sartuko dira entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratzeko ordaindutako kopuruak, aurreko 2. apartatuaren a) letrako azken bi paragrafoetan aipatutakoaren arabera. Nolanahi ere, kopuru horietan ez dira kontuan hartuko jatorri fosileko erregaiak erabiltzen dituzten instalazioetan ekipoak instalatzeko edo ordeztzeko kostuak.

Jabeen erkidego batek egindako obren kasuan, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria osatuko duen zenbatekoa kalkulatzeko, zergadunak erkidego horretan duen partaidetza-koefizientea aplikatuko zaie jabeen erkidegoak ordaindutako kopuruei (aurreko paragrafoan aipatuak).

Urteko gehieneko oinarri kengarria 20.000 euro izango da.

Laguntza publikoaren programa baten bidez dirulaguntzak jaso direnean edo jasotzeko daudenean, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudia- ren arabera, aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren ondorioz ateratzen den oinarri kengarriari dirulaguntza horien zenbatekoa kenduko zaio.

4. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik aplikatzen ez diren kenkariak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitortpenetan aplikatu ahal izango dira.

5. Kenkari hori bateraezina da, inbertitutako kopuru berberei dagokienez, foru-arau honen 87. artikuluan jasotako kenkariarekin.

6. Artikulu honetan jasotako kenkariak aplikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Artikulu honetako 2. apartatuaren a) letran aipatutako sorkuntza-ekipoak instalatuz gero, zergadunaren erantzukizunpeko adierazpena, zeinean jasoko baita instalatutako ekipoaren deskribapen zehatza, instalatzailearen ziurtagiriarekin batera eta, hala badagokio, instalazioa organo eskuduneari erregistratu izanaren ziurtagiriarekin batera.

Eraikinaren edo etxebizitzaren autokontsumorako (banakakoa edo partekatua) eguzki-instalazio fotovoltaikoei dagokienez, aurrekoek gainera, instalazio elektrikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren arabera (edozein motatako instalazio elektrikoetan), enpresa instalatzaileak emana eta organo eskudunak bideratua, bai eta sorkuntza-elementuak zerbitzuan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena ere, organo eskudunaren zigiluarekin.

Helburu nagusitzat 2.a) apartatuan jasotako instalazioen bidez baliabide berriztagarrietatik energia termikoa edo elektrikoa sortzea duten entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratuz gero, kenkaria egiaztatzeko, entitateak berak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, zeinean adieraziko baita bai entitateak berak, bai akzioak edo partaidetzak eskuratu dituen pertsonak baldintzak betetzen dituztela, eta, gainera, entitatearen beraren eguzki-instalazio fotovoltaikoen energia elektrikoaren autokontsumoaren administrazio-erregistroan duten inskripzioaren identifikazioa erantsiko da, edo, hala badagokio, aipatutako erantzukizunpeko adierazpena.

b) Artikulu honetako 2. apartatuaren b) letran aurreikusitako proiektuen kasuan, etxebizitzaren edo eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriak, teknikari eskudunek emanak proiektuak egin aurretik eta ondoren, letra horretan jasotako betekizunak egiaztatzeko.



Energia-efizientiaren ziurtagiriek Eraikinen Energia-efizientzia Ziurtatzeko Oinarrizko Prozedura onartzen duen ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emanak eta erregistratuak izan beharko dute.

Kenkari hori aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, baliozkoak izango dira obrak hasi aurretik emandako ziurtagiriak, baldin eta bi urte igaro ez badira ziurtagiriak eman ziren egunetik obrak hasi arte.

- c) Artikulu honetan aurreikusitako obretan inbertituriko kopuruei dagozkien fakturak. Helburu nagusizat 2.a) apartatuan jasotako instalazioen bidez baliabide berriztagarrietatik energia termikoa edo elektrikoa sortzea duten entitateen funts propioetan parte hartzea dakarten akzioak, partaidetzak edo beste edozein tresna eskuratuz gero, haiek harpidetzeko ordaindutako kopuruen frogagiriak.

7. Ez du kenkari hori aplikatzeko eskubiderik emango artikulu honen 2. apartatuan aurreikusitako ekipo eta entitateetan inbertitutako kopuruek, jarduera ekonomikoak egiteko erabiltzen badira, ezta etxebizitzan jarduera ekonomikoei afektatuta dagoen partean egindako obrek ere.

8. Artikulu honen 3. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe, kenkaria zergaldian aplikatzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen direla frogatzen denean egingo da:

- Baldin eta zergaldi horretan, energia berriztagarriak sortzeko edo erabiltzeko eki-poak eskuratu ondoren, dagozkion ziurtagiriak lortu badira, edo entitateen funts propioetako akzioak edo partaidetzak eskuratu badira, 2. apartatuaren a) letran aurreikusitako kasuetan.
- Baldin eta zergaldi horretan energia-efizientiaren ziurtagiria eman bada, 2. apartatuaren b) letran aurreikusitako kasuetan.

91 quinquies artikulua. — *Kenkaria ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk eskuratzearagatik*

1. Zergadunek ibilgailu berri baten eskurapen-balioaren 100eko 5 kendu ahal izango dute, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

- 1) Ibilgailuak kategoria hauetakoren batekoak izango dira:
 - a) M1 turismoak: gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatuak eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain gehienez zortzi plaza dituztenak.
 - b) L6e kuadriziklo arinak: kuadriziklo arinak, 425 kg-ko edo gutxiagoko tara dutenak, baterien masa kenduta, eta, fabrikazioz, gehienez 45 km/h-ko edo gutxiagoko abiadura hartzen dutenak eta gehienez 6 kW-eko edo gutxiagoko potentzia dutenak.
 - c) L7e kuadriziklo astunak: lau gurpileko ibilgailuak, 450 kg-ko edo gutxiagoko abiada-masa dutenak (baterien pisua kenduta) bidaiariak garraiatzeko ibilgailuen kasuan, eta 600 kg-ko edo gutxiagokoa salgaiak garraiatzeko ibilgailuen kasuan, baldin eta kuadriziklo arintzat sailkatu ezin badira.
 - d) L3e, L4e, L5e motozikletak: bi gurpileko ibilgailuak, edo ibilgailuaren luzetarako erdiko ardatzarekiko simetrikoak edo asimetrikoak diren hiru gurpil dituztenak, 50 cm³ baino gehiagokoak direnak edo 50 km/h-tik gorako abiadura dutenak, baldin eta ibilgailuaren pisu gordina gehienez tona bat bada.
- 2) Ibilgailuen modeloek Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) ibilgailuen datu-basean jasota egon beharko dute, eta honako baldintza hauek bete:
 - a) M1 kategoriako ibilgailuek mota hauetakoren batekoak izan behar dute:
 - i. Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), motor elektrikoek bidez erabat eta esklusiboki bultzatuak. Motor elektriko horiek baterien elektrizitatetik lortzen dute energia, partzialki edo osorik, eta, bateria horiek berriz kar-



- gatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia erabiltzen da; adibidez, sare elektrikoarena.
- ii. Autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), motor elektrikoen bidez erabat eta eskusiboki bultzatuak. Motor elektriko horiek baterien elektrizitateak lortzen dute energia, partzialki edo osorik. Bateria horiek berriz kargatzeko, ibilgailutik kanpoko iturri baten energia erabiltzen da, eta, horrez gain, gasolinazko edo gasoliozko barne-errekuntzako motorra ere badute bateriok berriz kargatzeko.
 - iii. Erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE): ibilgailu elektrikoak, ibilgailu barruko hidrogenoa baliatzen duen erregai-pila baten bidez sortutako energia elektrikoak berriz erabiltzen ez duena.
 - iv. Erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoa (EPIEH): erregai-piladun ibilgailu elektrikoak, bateria elektriko kargagarriak ere badituena.
- b) L kategoriako ibilgailuetarako honako hau eskatzen da:
- i. Motor elektrikoek soilik bultzatuak izatea eta ibilgailu elektriko gisa homologatuta egotea.
 - ii. Motozikleta elektriko berriek (L3e, L4e eta L5e kategoriakoak) litiozko bateriak izan behar dituzte, motorraren potentzia 3 kW-ekoa edo handiagoa duten motor elektrikoak, eta gutxienez 70 km-ko autonomia.
- 3) Ibilgailuak ezin izango dira ezein jarduera ekonomikori afektatuta egon.
- 4) Lehen aldiz Espainian matrikulatuak izan beharko dute, zergadunaren izenean.
2. Aurreko paragrafoan jasotako kenkaria eskurapen-balioaren 100eko 10 izango da, zergadunak bere titulartasuneko ibilgailu bat txatartegira eraman duenean, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.
3. Kenkari horren oinarria ibilgailuaren eskurapen-balioa izango da, eskurapenari datzekion gastu eta tributuak barne.
- Kenkari horren gehieneko oinarria 10.000 euro izango da L3e, L4e eta L5e motozikleten kasuan, eta 40.000 euro gainerako kasuetan.
- Laguntza publikoen programa baten bidez dirulaguntzak jaso direnean edo jasotzeko daudenean, betiere dirulaguntza horiek salbuetsirik badaude zerga honen araudiaren arabera, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioz ateratzen den oinarriari dirulaguntza horien zenbatekoa kenduko zaio.
- Zergadunak apartatu honetan jasotako kenkaria aplikatu ahal izango du aurreko 1. apartatuan aipatutako ibilgailuetako baten erosketa bakar batengatik.
4. Kenkari horren ondorioetarako, errentamendua eskurapenaren parekotzat joko da baldin eta haren bidez errentatzaileak aurreko 1. apartatuan aipatutako ibilgailuetakoren bat jartzen badu zergadunaren esku, adostutako kuotak aldi jakin batean ordaintzearen truke.
- Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuan, kenkariaren oinarria zergaldian ordaindutako kuota guztiek osatuko dute, betiere aurreko 3. apartatuan ezarritako gehieneko oinarria kontuan hartuta.
5. Aurreko apartatuetan aipatutako ibilgailuak eskuratu ondoren jarduera ekonomiko bati afektatzen bazaizkio, galdu egingo da egindako kenkarirako eskubidea, eta tributu-egoera erregularizatu beharko da afektazio hori gertatzen den ekitaldiari dagokion aitorpenean. Erregularizazioak dagozkion berandutze-interesak ere jaso beharko ditu.

91 sexies artikulua.—*Kenkaria ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzegatik*

1. Zergadunek ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahal izango dute beren jabetzako finkan edo komunitateko garajeetan beren jabetzakoak diren eta xede partikularretarako erabiltzen dituzten ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko ordain-



dutako kopuruetan, baldin eta finka edo garaje horren jabe gisa partaidetza-kuotarik badute.

2. Aurreko 1. apartatuan aipatutako kenkariaren oinarriaren gehieneko muga, zergadun bakoitzeko, 5.000 euro izango da instalazio bakoitzeko, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntua finkan edo garaje komunitarioan instalatzeko lanak amaitu eta instalazioa abian jartzen den zergaldian aplikatuko da.

3. Kenkariaren oinarria osatzen duten kopuruei zergadunak kontzeptu kengarri horrengatik jasotzen dituen eta zerga honetatik salbuetsita dauden dirulaguntzen zenbatekoa kenduko zaie.»

11. artikulua.— *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietarako baka-
rriki, honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko
abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

Bat. 21. artikulua 1. apartatuari g) letra gehitzen zaio, eta eduki hau du:

«g) Atal honetako b) letran aurreikusitako alde batera utzi gabe, ibilgailu elektriko bateriadun (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektriko (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektriko (EPIE) eta erregai-piladun ibilgailu elektriko hibrido (EPIEH) berrietan egindako inbertsioak, foru-arau honen 13. artikuluan aipatutako mikroenpresek eta enpresa txikiek eginak.

Zergaldi guztietan zerga-oinarritik kentzen den amortizazio-zenbatekoa ezin izango da 20.000 eurotik gorakoa izan ibilgailu bakoitzeko. Hala ere, goian azaldutako muga barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzako ordainsari gisa egotzi zaiolako (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 60. artikuluan ezarritako arauari jarraituz), edo zergadunak modu sinesgarrian frogatzen badu ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen, muga hori 40.000 euro izango da.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, garraio-elementuak erabiltzetik eratorritako gastuak direla eta 31. artikulua 3. paragrafoan ezarritako erregelak ez zaizkie aplikatuko ibilgailu horien amortizazioari dagozkion gastu kontabilizatuen zenbatekoei.

Baldin eta pertsona berak letra honetan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago erabiltzen badu aldi berean, pertsona eta urteko aplikatuko dira letra honetan ezarritako muga, zenbanahi ibilgailu erabilita ere.»

Bi. Lau paragrafo gehitzen zaizkio lehenengoaren ostean 21. artikulua 2. apartatuari, eta eduki hau du:

«Apartatu honetako aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ibilgailu elektriko bateriadun (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektriko (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektriko (EPIE) eta erregai-piladun ibilgailu elektriko hibrido (EPIEH) berrietan egindako inbertsioak, foru-arau honen 13. artikuluan aipatzen diren enpresaertainek eginak, amortizatu ahal izango dira foru-arau honen 17. artikuluan jasotako taulan ezarritako gehieneko amortizazio-koefizientea bider 1,5 eginez ateratzen den koefizientearen arabera.

Zergaldi guztietan zerga-oinarritik kentzen den amortizazio-zenbatekoa, aurreko paragrafoan aipatua, ezin izango da 20.000 eurotik gorakoa izan ibilgailu bakoitzeko. Hala ere, goian azaldutako muga barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzako ordainsari gisa egotzi zaiolako (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 60. artikuluan ezarritako arauari jarraituz), edo zergadunak modu sinesgarrian frogatzen badu ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen, muga hori 40.000 euro izango da.



Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, garraio-elementuak erabiltzetik eratorritako gastuak direla-eta 31. artikulua 3. paragrafoan ezarritako erregelak ez zaizkie aplikatuko ibilgailu horien amortizazioari dagozkion gastu kontabilizatuen zenbatekoei.

Baldin eta pertsona berak letra honetako bigarren paragrafoan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago erabiltzen badu aldi berean, pertsona eta urteko aplikatuko dira apartatu honetan ezarritako mugak, zenbanahi ibilgailu erabilita ere.»

Hiru. Aldatu egiten da 31. artikulua 3. apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Automobilak eta haien atoiak, motorrak eta motozikletak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo balio-galerarekin zerikusia duten gastuen eta ibilgailu horien erabilerari lotutako beste guztien 100eko 50 kendu ahal izango da. Gehieneko muga hau izango da: batetik, 3.000 euro edo zergadunak erabili duen amortizazio-portzentajea bider 30.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta; bestetik, 3.600 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik. Kasu guztietan, ibilgailu bakoitzeko eta urteko zenbatekoak hartuko dira kontuan. Aipatutako ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuengatik kenkariak muga hau izango du ibilgailuaren prezioa 30.000 eurotik gorakoa denean: 30.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzeko duten parte proportzionalaren 100eko 50.

Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean, arestian adierazitakoaren ordezkari, letra honetan adierazitako gastuei 100eko 50eko kenkaria aplikatu ahal izango zaie, eta kenkariaren gehieneko muga hau izango da: batetik, 4.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 40.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta; bestetik, 3.600 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik.

Aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetan, aipatutako ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuengatik kenkariak muga hau izango du ibilgailuaren prezioa 40.000 eurotik gorakoa denean: 40.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzeko duten parte proportzionalaren 100eko 50.

Baldin eta pertsona berak letra honetan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago erabiltzen badu aldi berean, pertsona eta urteko aplikatuko dira muga horiek, zenbanahi ibilgailu erabilita ere.

Baldin eta ibilgailu bat ez bada urte osoan erabili, ibilgailu hori erabili den denboraren arabera kalkulatuko dira letra honetan kenkarirako ezartzen diren gehieneko mugak.

Hala ere, letra honetan aipatutako gastuak osorik izango dira kengarriak, eta kenkariaren gehieneko muga hau izango da: batetik, 6.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 30.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta; bestetik, 7.200 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik, baldin eta, foru-arau honen 128. artikuluan adierazitako moduan, goian azalduetako muga barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzazko ordainsari gisa egotzi zaiolako (Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 60. artikuluan ezarritako arauari jarraituz), edo zergadunak modu sinesgarrian frogatzen bada ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen.

Aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetan, aipatutako ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuengatik kenkariak muga hau izango du ibilgailua-



ren prezioa 30.000 eurotik gorakoa denean: 30.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzeko duten parte proportzionala.

Ibilgailu elektriko bateriadunak (IEB), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (AHIE), erregai-piladun ibilgailu elektrikoak (EPIE) edo erregai-piladun ibilgailu elektriko hibridoak (EPIEH) direnean, arestian adierazitakoaren ordezkari, letra honetan aipatutako gastuak osorik izango dira kengarriak, eta kenkariaren gehieneko muga hau izango da: batetik, 8.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio-portzentajea bider 40.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa, baldin eta zenbateko hori txikiagoa bada eta ondare-elementu hori amortizatu egiten bada, alokairu, lagapena edo balio-galera dela eta; bestetik, 7.200 euro, ibilgailuok erabiltzeari loturiko beste kontzeptu guztiengatik, baldin eta, foru-arau honen 128. artikuluan adierazitako moduan, goian azaldutako muga barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzako ordainsari gisa egotzi zaiolako (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 60. artikuluan ezarritako arauari jarraituz), edo zergadunak modu sinesgarrian frogatzen badu ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen.

Aurreko paragrafoan azaldu diren kasuetan, aipatutako ibilgailuok eskuratzearen ondoriozko finantza-gastuengatik kenkariak muga hau izango du ibilgailuaren prezioa 40.000 eurotik gorakoa denean: 40.000 eurok ibilgailuaren eskurapen-prezioan ordezkatzeko duten parte proportzionala.»

Lau. Berridatzi egiten da 62. artikuluan 4. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Kenkari-portzentajeak hauek dira:

- a) Kontzeptu hau dela-eta zergaldiaren barruan egindako gastuen 100eko 30.
- b) Ikerketa- eta garapen-jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuen 100eko 35, baldin eta gastu horiek zergadunek egindako jardueren ingurumen-inpaktu negatiboa nabarmen murriztera bakar-bakarrik bideratuta badaude. Jarduerok foru-arau honen 65.1 artikuluan jasotako motaren batekoak izan behar dute.

Ikerketa- eta garapen-jarduerak egiteagatik zergaldian izandako gastuak aurreko bi urteetan izandako gastuen batezbestekoa baino handiagoak badira, batezbesteko horretara iritsi arte aurreko bi leteretan jasotako portzentajea aplikatuko da, eta batezbesteko horretatik gorako soberakinari, berriz, 100eko 50, aurreko a) letran aipatutako gastuak direnean, eta 100eko 55, b) letran aipatutako gastuak direnean.

Aurreko leteretan xedatutakoaren arabera egin beharreko kenkariaren gain, 100eko 20ko kenkari gehigarria egingo da zergaldi bakoitzeko gastu hauengatik:

- a) Entitatearen pertsonal-gastuen artean ikerketa- eta garapen-jarduerari oso-osorik lotutako ikertzaile kualifikatuei dagozkien gastuak.
- b) Ikerketa- eta garapen-proiektuetan egindako gastuak, proiektua hauetako batekin kontratatuta egonez gero: batetik, unibertsitateak, ikerketako organismo publikoak edo zentro teknologikoak eta berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak, hala onartuta eta erregistratuta daudenak 2008ko abenduaren 19ko 2093/2008 Errege Dekretuaren arabera (errege-dekretu horrek Estatuko zentro teknologikoak eta berrikuntza teknologikorako zentroak arautu eta zentro horien erregistroa sortu zuen); bestetik, 2002ko urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren bidez araututako Teknologiaren Euskal Sarean dauden entitateak (dekretu horrek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea arautzeko oinarri-arauak gaurkotu zituen).
- c) Foru-arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat eta enpresa txikitzat hartzen diren enpresen kontratazio-gastuak, baldin eta ikerketa- eta garapen-jarduerak egiten badituzte zergadunek foru-arau honen 65.1 artikuluan jasotako motetan egindako jardueren ingurumen-inpaktu negatiboa nabarmen murrizteko.



- d') Foru-arau honen 66 bis 2 a) artikuluan xedatutakoaren arabera enpresa be-
rritzailatzat hartzen diren enpresen kontratazio-gastuak, baldin eta ikerketa-
eta garapen-jarduerak egiten badituzte.
- c) Ibilgetu material eta ukiezinako elementuetan egindako inbertsioen 100eko 10,
higiezinak eta lursailak kanpoan utzita, baldin eta ikerketa- eta garapen-jarduerari
bakar-bakarrik afektatuta badaude.»

Bost. Berridatzi egiten da 65. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«65. artikulua. — *Kenkaria garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa,
energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa, trantsizio energe-
tikoa zein ekonomia zirkularra lortzera zuzentzen diren proiektuekin
loturiko inbertsio eta gastuengatik*

1. Zergadunek honako mota hauetako gastu eta inbertsioen zenbatekoaren 100eko
35 kendu ahal izango dute kuota likidotik:

- a) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, aktibo horiek iturri be-
rriztagarriak erabiliz energia sortzeko instalazioak badira.
- b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, erregelamenduz ezar-
tzen diren baldintzetan, aktibo horiek iturri berriztagarrien energia kontsumitzen
duten ekipamendu energetikoki efizienteak eta instalazioak badira.
- c) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako gastu eta inbertsioak, aktibo ho-
riek iturri berriztagarrien energia bakarrik garraiatzeko eta banatzeko ekipamen-
du energetikoki efizienteak eta instalazioak badira.
- d) Teknologia Garbien Euskal Zerrendan jasotako ekipamendu eta instalazioetan
egindako inbertsioak.
- e) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, aktibo horiek emisioak
atzitzeko (erabili, banatu, garraiatu, biltegitatu edo transmititzeko) ekipamendu
energetikoki efizienteak eta instalazioak badira, betiere helburua energia berriz-
tagarriak sortzea edo prozesu berriztagarrietan erabiltzea bada.
- f) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, hondakinak murriztu,
birziklatu eta balorizazio materialerako ekipamendu energetikoki efizienteak eta
instalazioak badira, ekonomia zirkularra sustatzeko.

2. Zergadunek inbertsio hauen zenbatekoaren 100eko 15 kendu ahal izango dute
kuota likidotik:

- a) EAEko organismo ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzeko ekitaldian zehar
ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak eta lurzoru kutsatuak
garbitzeko izandako gastuak.
- b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, baldin eta aktibo ho-
riek beharrezkoak badira honako helburu hauetako bat edo batzuk dauzkaten
proiektuak gauzatzean:
 - a') Balorizazio materialik ezin egin dakiekeen hondakinen balorizazio energe-
tika.
 - b') Naturaguneetako ingurumena biziberritzea, konpentsazio-neurriak betearazi
edo borondatezko beste jarduketa batzuk egitearen ondorioz, arreta berezia
jarrita naturan oinarritutako soluzioetan, ekosistemak biziberritzeko meka-
nismoak diren aldetik.

Ondorio horietarako, ulertuko da jarduketak ez direla borondatezkoak baldin
eta administrazio-ebazpen lotesle edo nahitaezko baten ondorio badira. No-
lanahi ere, kenkarirako eskubidea emango du administrazio-ebazpen horrek
egitera behar duen jarduketa gainditzeko inbertsioen zatiak.

- c') Ur-kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.
- d') Egungo ekipamendu eta instalazioen ordeztasun energia eta baliabideak modu efi-
zienteagoan erabiltzen dituztenak jartzea, eta teknika erabilgarri onenak di-
tuzten ekipo eta instalazioak erostea, Europako Parlamentuaren eta Kontsei-



luaren 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauan xedatutakoaren arabera. Zuzentaru hori industria-emisioei eta azienda-hazkuntzaren ondoriozko emisioei buruzkoa da (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak).

e') Mugikortasun eta garraio jasagarria, lehorreko garraioa alde batera utzita.

3. Kenkariaren oinarria ezin izango da 40.000 eurotik gorakoa izan Teknologia Garbien Euskal Zerrendan jasotako turismo-ibilgailuentzat.

4. Artikulu honen 1. apartatuko d) letran aipatzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunek Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren edo hari atxikitako organismo edo entitate baten txosten arrazoitua aurkeztu ahal izango dute, frogatzeko egindako inbertsioak Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda onesteko emandako aginduan aipatzen diren ekipo osoei dagozkiela.

Artikulu honen 1. apartatuko a), b), c), e) eta f) letretan aipatzen diren kenkariak zergadunak aplikatu behar ditu, baina, zerga-administrazioak eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundian ingurumenaren arloan eskuduna den sailaren ziurtagiria edo Eusko Jaurlaritzaren edo aipatutako entitate horiei atxikitako organismo edo entitate baten txosten arrazoitua aurkeztu beharko du, frogatzeko zergadunak egindako inbertsioek bete egiten dituztela letra horietan ezarritako motak eta xedeak.

Artikulu honetako 2. apartatuko a) letran aipatzen den kenkaria aplikatzeko, zergadunek Eusko Jaurlaritzako sail eskudunaren edo hari atxikitako organismo edo entitate baten txosten arrazoitua aurkeztu ahal izango dute, ziurtatzeko bete egiten dituztela letra horretan ezarritako betekizunak.

Artikulu honen 2. apartatuko b) letran aipatzen den kenkaria zergadunak aplikatu behar du, baina, zerga-administrazioak eskatuta, Bizkaiko Foru Aldundian ingurumenaren arloan eskuduna den sailaren edo hari atxikitako organismo edo entitate baten ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, ziurtatzeko zergadunak egindako inbertsioek bete egiten dituztela letra horretan ezarritako motak eta xedeak.

5. Foru-arau honen 67.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da ez dagoela desafektaziorik baldin eta artikulu honetan araututako kenkariak baliatzen diren aktiboak, legeak hala aginduta, hirugarrenei lagatzen bazaizkie.

6. Foru-arau honen 67. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren kenkariak bateraezinak dira beren artean. Berebat, 1. apartatuan aipatzen diren kenkariak bateraezinak dira artikulu honen 2. apartatuko a) eta b) letretan aipatzen direnekin.

7. Erregelamendu bidez zehaztu ahal izango dira kenkari honen aplikazioa dakarten egitatezko baldintzak, eta hura aplikatzeko prozedura arautuko da.»

Sei. 66 nonies artikulua gehitzen zaio V. tituluko III. kapituluari, eta eduki hau du:

«66 nonies artikulua.—*Kenkaria hiriko bizikletetan inbertitzeagatik eta haiek aparkatzeko egokitutako instalazioetan inbertitzeagatik*

1. Entitateko langileak beren ohiko bizilekutik lantokira edo alderantziz lekualdatzeko hiriko bizikletetan egindako inbertsioek eskubidea emango dute kuota likidoan ehuneko 10eko kenkaria egiteko, hurrengo apartatueta xedatutako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, kontuan hartzen dira pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak, motor elektriko osagarridunak, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan jasotako definizioaren eta ezaugarrien arabera.

Era berean, aurreko paragrafoetan aipatutako hiri-bizikletak aparkatzeko egokitutako instalazioetan egindako inbertsioek eskubidea emango dute instalazio horietarako ordaindutako kopuruen ehuneko 10eko kenkaria egiteko kuota likidoan, hurrengo apartatueta xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako bizikleta motetatik, bizikleta bakoitzeko kenkariaren gehieneko oinarria honako hau izango da:

— Pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak, motor elektriko osagarridunak: 3.000 euro.

— Hiriko beste bizikleta mota bat: 500 euro.



3. Aurreko atalean ezarritako kasuetan, kenkari honen guztizko oinarriak muga hau dauka: 15.000 euro urtean, zergaldiko, mikroenpresa eta enpresa txikientzat, foru-arau honen 13. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, eta 20.000 euro gaine-rako entitateentzat.

Kenkariaren gehieneko oinarria 10.000 eurokoa izango da, aurreko 1. paragrafoan aipatutako hiriko bizikletak aparkatzeko instalazioetan egindako inbertsioen kasuan.

Foru-arau honen 67. artikuluan xedatzen dena gorabehera, kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da kenkariaren oinarritik.

4. Artikulu honetan arautzen den kenkaria aplikatu ahal izateko, egindako inbertsioak ibilgetu materialaren barruan kontabilizatu behar dira, gainerako ondare-elementuetatik bereizita eta ondo identifikatzen dituen epigrafearekin.»

Zazpi. Berridatzi egiten da 128. artikulua 1. apartatuaren j) letra, eta edukia ematen zaio v) letrari; horrenbestez, honela idatzita geratzen dira:

«j) Garraio-gailuak erabiltzeak eragindako gastuengatik gehitutako kenkaria, 31. artikulua 3. apartatuaren a) letrako seigarren eta zazpigarren paragrafoetan arautzen dena.»

«v) Hogeita hamaikagarren eta hogeita hamabigarren xedapen gehigarrietan aurreikusitako gizarte-aurreikuspeneko planetarako kontribuzio jakin batzuenatik kenkariak.»

12. artikulua.—Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren aldaketa

Aldaketa hau egiten da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauaren (2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

10. artikulua 11. apartatua gehitzen zaio; hona:

«11. Zergaren kuota osoaren ehuneko 50eko hoberia, gehienez, ondasun higiezi-nean ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak jarriz gero.»

13. artikulua.—Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren testu bateginaren aldaketa (martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen testu bategin hori)

Aldaketa hau sartzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren testu bateginean (martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemaileak onetsi zuen); 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak:

11.1 artikulua g) eta h) letrak gehitzen zaizkio; hona:

«g) Kuotaren ehuneko 50eko hoberia, gehienez, zerga udal kuotaren bidez ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta jarduera ekonomikoarekin lotutako lokal batean ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak jartzen badute.

Hoberia aurreko letretako hoberiak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

h) Kuotaren ehuneko 50eko hoberia, gehienez, zerga udal kuotaren bidez ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea daukan jarduera ekonomikoa egiten badute.

Hori dela eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutak joko da, baldin hondakinak balorizatzea bada.

Hoberia aurreko letretako hoberiak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.»

**14. artikulua.—*Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 10/1989 Foru Arauaren aldaketa***

Aldaketa hau sartzen da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 10/1989 Foru Arauan:

4.2 artikuluari f) eta g) letrak gehitzen zaizkio; hona:

«f) Ehuneko 90eko hobaria, gehienez, ibilgailu elektrikoak birkargatzeko puntuak ipintzeko egiten diren eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.

g) Ehuneko 50eko hobaria, gehienez, ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutako xedea duten jarduera ekonomikoa egiten den eraikuntzetan, instalazioetan eta obretan.

Hori dela eta, jarduera ekonomiko baten xedea ekonomia zirkularrarekin zuzenean lotutzat joko da, baldin hondakinak balorizatzea bada.

Hobaria aurreko letretako hobariak aplikatuz ateratzen den kuotari aplikatuko zaio.»

V. KAPITULUA**GEHIKORTASUNA ETA ABERASTASUNAREN BANAKETA****15. artikulua.—*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa***

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. Berridatzi egiten da 9. artikulua 5. zenbakiaren azken paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Zenbaki honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 183.600 euro izango da, gehienez.»

Bi. Berridatzi egiten da 23. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«23. artikulua.—*Lanaren etekinaren hobaria*

1. Lanaren etekin osoen gutzirako zenbatekoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa bada, hobari hau aplikatuko da:

a) Diferentzia 14.800 euro edo gutxiago bada, 8.000 euroko hobaria.

b) Diferentzia 14.800,01 - 23.000 euro artekoa bada, 8.000 euroko hobaria, honako hau kenduta: diferentziatik 14.800,00 euro kendu eta ateratzen den emaitzaren zenbatekoa 0,6098az biderkatzearen emaitza.

c) Diferentzia 23.000 euro baino gehiago bada, 3.000 euroko hobaria.

2. Zerga-oinarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen badira eta errentok 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren hobariak gehitu egingo dira kasu hauetan:

a) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada eta beraren desgaitasun-gradua ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada, hobaria ehuneko 100 gehituko da.

b) Zergaduna aktibo dagoen langile desgaitua bada, eta beraren desgaitasuna ehuneko 33 eta 65 bitartekoa bada eta mugitzeko gaitasuna murriztuta badauka, hobaria ehuneko 250 gehituko da. Halakotzat joko dira Desgaitasunaren gradua aintzatesteko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak Mugikortasun-jardueren Mugak Ebaluatzeko ezarritako azpibaremoaren arabera (MJMEB) mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukaten pertsonak Ehuneko bera aplikatuko zaie ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukaten langile aktibo desgaituei ere.



4. Artikulu honetan arautzen den hobaria aplikatu ondoko lanaren etekin garbia ezin da izan negatiboa.»

Hiru. Berridatzi egiten da 76. artikulua 1. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Aurrezkiaren likidazio-oinarriari eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Aurrezkiaren likidazio-oinarriaren muga (€) Base liquidable a horro hasta €	Kuota osoa (€) Cuota integra €	Gainerako likidazio-oinarriaren muga (€) Resto base liquidable hasta €	Aplikatu beharrekoa tasa (%) Tipo aplicable (%)
0,00	0,00	7.500,00	19,00
7.500,00	1.425,00	7.500,00	20,00
15.000,00	2.925,00	15.000,00	22,00
30.000,00	6.225,00	20.000,00	24,00
50.000,00	11.025,00	40.000,00	25,50
90.000,00	21.225,00	30.000,00	26,00
120.000,00	29.025,00	120.000,00	26,50
240.000,00	60.825,00	60.000,00	27,00
300.000,00	77.025,00	Hortik aurrera / en adelante	28,00»

Lau. Berridatzen da 102. artikulua; honela idatzita geratzen da:

«102. artikulua. — *Aitortu beharra*

1. Zergadunek zerga honen aitortpena aurkeztu eta sinatu beharko dute. Mugak eta baldintzak arauz finkatuko dira.

Zergaren aitortpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu behar dira, artikulu honen 6. apartatua ezartzen denarekin bat etorriz.

2. Hala ere, honako iturri hauetako errentak soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute aurkeztu beharko aitortpena:

- Lanaren etekin gordinak, muga honekin: 20.000 euro urtean, banakako tributazioan. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak lortu dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.
- Kapitalaren etekin gordinak eta ondare-irabaziak (salbuetsiak barne, kasu bietan), urteko guztirako batura 1.600 euro baino gehiago ez bada.

Letra honetan xedatzen dena ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko entitateen akzioen edo partaidetzen eskualdaketek edo itzulketek sortzen dituzten ondare-irabaziei, baldin eta, arauz ezarritakoaren arabera, atxikipen-oinarria ez bada zehaztu behar zerga-oinarriari integratu beharreko zenbatekoa aintzat hartuta.

3. Ogasun eta Finantza Sailak emandako aitortpen-zirriborroetatik abiatuta (foru arau honen 104. artikuluan aipatzen dira zirriborro horiek), zergadunek zirriborroetako datuetatik eragiten dieten guztiak aldatu edota osatu behar dituzte, eta ezarritako edo ezartzen diren dokumentuak eta frogagiriak erantsi beharko dizkiete aitortpenei.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 38. artikulua arabera, kausatzaileak egin gabe uzten dituen zerga honen aitortpenak beraren oinordekoek aurkeztu eta sinatu behar dituzte; kausatzaileari zegozkion zehapenak direla-eta, ordea, ez dute betebeharririk izango.

5. Zergadunek bizilekua aldatzen badute, horren berri eman beharko diote zerga-administrazioari, aldaketa horrek zerga galdatzeko eskumenean ere aldaketak eraginez gero.

6. Zerga honen aitortpenak aurkezteko, bai eta zuzenketak edo administrazio-bideko errekurtsioak ere, baliabide informatiko, elektroniko edo telematikoak erabili beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.



Aitorpenak, zuzenketak eta errekursoak Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez aurkezteko prozedurak araudian ezarriko dira. Horrez gainera, araudian zehaztuko da zer kasutan emango dien zerga-administrazioak laguntza pertsonala zergadunei zergaren aitorpenak aurkezteko.»

Bost. Berridatzi egiten da hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 8. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«8. Zerga-oinarrian ez dira sartuko xedapen gehigarri honetan zehazten diren sariak, eta haien zenbatekoa ez da kontuan hartuko foru-arau honen 102. artikuluko 2. apartatuaren b) letran xedatzen diren ondorioetarako. Foru-arau honetan xedatzen denarekin bat etorri aplikatzen diren atxikipenek edo konturako sarrerek ez dute gutxituko zergaren kuota likido osoa, eta ez dira kontuan hartuko foru-arau honen 112. artikuluan xedatzen diren ondorioetarako.»

Sei. Beste xedapen gehigarri bat, berrogeita laugarrena, gehitzen da, eta honala geratzen da idatzita:

«Berrogeita Laugarren Xedapen Gehigarria.— *Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkariaren kuota osoa nahikoa ez izateagatik ordaintzea*

1. 2025-2029ko zergaldietan, foru-arau honen 102. artikuluan xedatutakoaren arabera aitorpena aurkeztu beharrik ez duten zergadunek aurkeztu egiten badute eta egindako behin-behineko likidazioan ez badago kuota nahikorik foru-arau honen 86. artikuluan aurreikusitako ohiko etxebizitzaren alokairuagatiko kenkari osoa edo zati bat aplikatzeko, eskubidea izango dute behin-behineko likidazio horretan aplikatu ez den zenbatekoa jasotzeko.

Ordaindutako zenbatekoa, hala badagokio, foru arau honen 93 bis artikuluan aipatutako baliatzeko dauden kenkarietatik deskontatuko da.

2. Kenkari hori egiteko prozedura eta baldintzak erregelamendu bidez arautuko dira, kenkaria ordaintzeko eskubidea dagoen kasuetan.»

16. artikulua.— *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako eta 2030eko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, 57 bis artikulua berria sartzen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

«57 bis artikulua.— *Aparteko mozkinen gaineko tributazio gehigarria*

Zerga honen zergadunek, foru arau honen 13. artikuluan definitutako enpresa ertainez bestekoek, foru arau honen 56. artikulua 1. apartatuko a) letran eta 6. eta 7. apartatuetan aurreikusitako zerga tasak ordaintzen badituzte, eta zergaldian kontabilitate emaitza positiboa lortzen badute eta emaitza horrek aurreko hiru zergaldietan lortutako kontabilitate emaitza positiboen batez bestekoa 100eko 35ean gainditzen badu, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, gehikuntza izango dute kuota osoan, honako ehuneko hauek aplikatuta:

— Ehuneko 1eko tasa gehigarria aplikatuko zaio aipatutako soberakinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzarekin bat datorren kuota osoaren zatiari, baldin eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaitzen batez bestekoa ehuneko 35 gainditzen badu edo haren ehuneko 50 edo txikiagoa bada.

— Ehuneko 2ko tasa gehigarria aplikatuko zaio aipatutako soberakinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzarekin bat datorren kuota osoaren zatiari, baldin eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaitzen batez bestekoa ehuneko 50 gainditzen badu edo haren ehuneko 75 edo txikiagoa bada.

— Ehuneko 3ko tasa gehigarria aplikatuko zaio aipatutako soberakinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzarekin bat datorren kuota osoaren zatiari, baldin eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaitzen batez bestekoa ehuneko 75 gainditzen badu edo haren ehuneko 100 edo txikiagoa bada.



- Ehuneko 4ko tasa gehigarria aplikatuko zaio aipatutako soberakinaren ondoriozko zerga-oinarriaren gehikuntzarekin bat datorren kuota osoaren zatiari, baldin eta aurreko hiru zergaldietako kontabilitate-emaizten batez bestekoa ehuneko 100 gainditzen badu.

VI. KAPITULUA

EKOIZPEN-SAREA BABESTEVA ETA BULTZATZEA

17. artikulua.— *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren aldaketa*

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauan (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 41.2 artikulua c) letraren bigarren betekizuneko lehen paragrafoa aldatzen da eta bi paragrafo gehitzen dira letraren amaieran; honela geratzen dira:

«Bigarrena. Eskualdatzaileak zuzendaritza-lanak egin izan baditu, eskualdaketaren unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.»

«c) Letra honetan ezartzen dena zergaduna titularra, akzioduna edo partaidea den entitate bakoitzaren eskualdaketa bati bakarrik aplikatuko zaio.

Zergadunak c) letra honetan ezartzen diren eskualdaketetako bat eginez gero, eragiketari buruzko datuak adierazi behar ditu aitorpenean.»

Bi. 89.2 artikuluar g) letra gehitzen zaio, eta eduki hau du:

«g) Kooperatiben kapital sozialera egiten diren ekarpenak nahitaezkoak izan behar dira Euskadiko kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean xedatzen denaren arabera.»

Hiru. Berridatzi egiten da 28.artikulua 1. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Goiko letran aipaturiko diru-sarrera eta gastuen arteko aldea kalkulatu, eta eragiketara horren emaitza jarraian zehaztutako portzentajeetan gutxituko da, amortizazioak, narriaduragatiko galerak eta justifikatzeko gaitzak diren gastuak direla eta.

Ehuneko 20ko portzentajea, aurreko urtean, aurreko letran aipatutako diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 35.000 eurotik gorakoa izan ez bada.

Ehuneko 15eko portzentajea, aurreko urtean, aurreko letran aipatutako diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 35.000 eurotik gorakoa izan bada eta 85.000 eurotik gorakoa izan ez bada.

Ehuneko 10eko portzentajea, aurreko urtean, aurreko letran aipatutako diru-sarreraren eta gastuen arteko aldea 85.000 eurotik gorakoa izan bada.

18. artikulua.— *Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren aldaketa*

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan:

Bat. Berridatzi egiten da 32. artikulua 4. apartatuko lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Foru-arau honen 13. artikulua 1. apartatua aipatzen diren mikroenpresek beren zerga-oinarritik kengarriztat jo ahal izango dute beren zerga-oinarri positiboaren ehuneko 15 (apartatu honetan ezartzen dena aplikatu aurreko zerga-oinarri positiboa), beren tamainari datzekion zailtasunen zerga-konpentsazio gisa.»

Bi. Berridatzi egiten da 55. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Likidatu edo autolikidatu diren zerga-oinarri negatiboak hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako errenta positiboekin konpentsatu ahal izango



dira, muga honekin: konpentsazioa egin aurreko zerga-oinarri positiboaren 100eko 50. Muga hori ez zaie aplikatuko foru-arau honen 13. artikuluan zehazten diren mikroenpresei eta enpresa txikiei.»

Hiru. Berridatzi egiten da 56. artikulua 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Foru-arau honen 14. artikuluan aipatzen diren ondare-sozietateei eskala hau aplikatuko zaie:

Aurrezkiaren zerga-oinarriaren muga (€) Base imponible hasta €	Kuota osoa (€) Cuota integra €	Gainerako zerga-oinarriaren muga (€) Resto base imponible hasta €	Aplikatu beharrekoa tasa (%) Tipo aplicable (%)
0,00	0,00	7.500,00	19,00
7.500,00	1.425,00	7.500,00	20,00
15.000,00	2.925,00	15.000,00	22,00
30.000,00	6.225,00	20.000,00	24,00
50.000,00	11.025,00	40.000,00	25,50
90.000,00	21.225,00	30.000,00	26,00
120.000,00	29.025,00	120.000,00	26,50
240.000,00	60.825,00	60.000,00	27,00
300.000,00	77.025,00	Hortik aurrera / en adelante	28,00»

Lau. Berridatzi egiten da 59. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«59. artikulua. — *Benetako kuota eta gutxieneko tributazioa*

1. Benetako kuota hau da: kuota likidoari titulu honetako III. kapituluaren ezarritako kenkariaren zenbatekoa gutxituta geratzen den zenbatekoa.

2. Benetako kuota ezin da inoiz negatiboa izan.

3. Zerga-oinarri positiboak eduki dituzten zergadunen benetako kuota lortzeko kenkariak aplikatzen bazaizkio kuota likidoari (foru-arau honetako 62.etik 64.era bitarteko artikuluetako eta 64 bis, 65, 66 quater eta 66 quinquies artikuluetako kenkariak izan ezik), eragiketa horretatik ateratzen den zenbatekoa ezin da izan zerga-oinarriaren ehuneko 19 baino gutxiago, oro har. Eta foru-arau honen 56. artikuluko 7. apartatua aipatutako entitateak badira, ehuneko hori ehuneko 13 izango da.

Hala ere, kuota likidoa kenkariak aplikatuta murriztearen ondorioz lortzen den benetako kuota ezin da izan kasu hauetako ehuneko baino txikiagoa:

- Enpresa txikiak edo mikroenpresak: zerga-oinarriaren %15.
- Foru-arau honen 56. artikuluko 3. artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateak: zerga-oinarriaren %11,75.
- Foru-arau honen 56. artikuluko 6. artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten entitateak: zerga-oinarriaren %20,25.
- Foru-arau honen 56. artikuluko 1. apartatuaren a) letran ezarritako karga-tasan tributatzen duten entitateen kasuan, aurreko apartatuaren lehen paragrafoan adierazitako ehuneko orokorra ehuneko 17 izango da, baldin eta, kontratatutako langileak izanik, langile mugagabeen batez besteko kopuruari eusten badio aurreko ekitaldiaren aldean, edo foru-arau honen 61. artikulutik 65. artikulura ezarritako kenkariak sor ditzakeen inbertsioren bat egiten badu zergaldi horretan.

Entitate horiek ehuneko 15 aplikatuko dute bi inguruabar hauetan:

- Kontratatutako langileak izatea, aurreko ekitaldiaren aldean langile mugagabeen batez besteko plantillari eustea eta, gainera, zergaldian foru-arau honen 61.etik 65.era bitarteko artikuluetako kenkariak sor ditzakeen inbertsioren bat egitea.
- Langile mugagabeen batez besteko plantilla handitzea, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.



5. Entitatek kontratupeko langileak badauzka eta plantillan kontratu mugagabea duten langileen batez besteko kopurua mantentzen edo handitzen bada, aurreko 3. apartatuan ezarritako ehunekoak hauek izango dira:

- a) Ehuneko 11, aipatutako apartatuaren lehen paragrafoan ezarritako azken kasurako.
- b) Ehuneko 13, ehuneko 9,75 eta ehuneko 18,25, hurrenez hurren, aipatutako apartatuaren hirugarren paragrafoko a), b) eta c) letretan adierazitako kasuetarako.

6. Aurreko hiru apartatuetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko foru-arau honen 56. artikuluko 2., 4. eta 5. apartatuetan ezarritako karga-tasen arabera tributatzen duten entitateei.»

19. artikulua.— Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauaren aldaketa

2025eko urtarrilaren 1etik hasitako zergaldietarako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko abenduaren 12ko 6/2018 Foru Arauan:

Bat. Berridatzi egiten da 10. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«10. artikulua.— *Etxebizitzen kooperatibak*

Etxebizitzen kooperatibak babes berezikotzat joko dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Kooperatibaren helburua izan behar da bazkideen esku jartzea etxebizitza merkeak, bai jabetza adjudikatuta, bai erabilera eta gozamena lagata.

Horri dagokionez, etxebizitzak merketzat joko dira baldin eta gehienez 120 metro koadroko azalera badute eta, gainera, haien eraikuntza-kostua (egotzi beharreko lurzoruaen kostua gehituta) ez bada Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitzetarako ezarritako gehieneko prezioa 1,8 koefizienteaz biderkatuz ateratzen den kopurua baino gehiago.

Hala ere, etxebizitzok ez diote babespekoak izateari utziko haiekin batera negozioetarako lokalak, zerbitzu osagarriak eta urbanizazio obrak egiten direnean, baldin eta babes publikoko etxebizitzei buruzko legedian ezarritako mugen barruan egiten bada, nahiz eta kooperatibek eraikitako etxebizitzak babes ofizialekoak ez izan.

- b) Kooperatibak eraikitzen dituen etxebizitzak bazkideen ohiko etxebizitzetarako baliatu behar dira. Bazkideek horren berri eman behar dute nahitaez etxebizitzaren adjudikazioari edo haren erabileraren eta gozamenaren lagapenari buruzko dokumentuan. Hala ere, bazkideak ez diren hirugarrenei besterendu ahal izango dizkiete sustatutako etxebizitzak, baldin eta hori beharrezkoa bada kooperatiba-sustapena finantzatzeko, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 117. artikuluan 2. apartatuan arautzen den bezala.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 87.8 artikuluan zehazten duena.

- c) Bazkideei etxebizitza jabetzan ematea helburutzat duten etxebizitzen kooperatiben kasuan, kooperatiba ezin da desegin eraikitako etxebizitzak adjudikatzen edo eskualdatzen diren egunetik bost urte igaro baino lehen, salbu eta epealdi luzeagoa ezartzen badute berme-aldiak eta entitate sustatzaile gisa akats ezkutatuei erantzuteko aurreikusitako legezko epealdiak, zeinak adjudikazioaren edo eskualdatzearen egunetik aurrera zenbatu behar baitira, edo entitate publikoekin sinatutako estatutuek edo lankidetzak-hitzarmenek.

- d) Kooperatibaren estatutuetan beren-beregi adierazi behar da ezen etxebizitzaren jabetza adjudikatzen zaien bazkideek edo haren erabilera eta gozamena lagatzen zaizkien bazkide guztiek bete egin behar dituztela zergen legedian ohiko etxebizitzat jotzeko ezarritako baldintzak, eta beren-beregi ezarri behar da ezen betebeharrak hori betetzen ez duten bazkideek kalte-ordaina eman beharko dituela kooperatibari, etxebizitzaren balioaren 100eko 10 gutxienez.



e) Bazkideei etxebizitza baten erabilera eta gozamina lagatzea helburutzat duten etxebizitzaren kooperatiben kasuan, kooperatibak ezin die eman bazkideei ostalari-zerbitzu berezko zerbitzu osagarriak (jate-zerbitzua, garbiketa, arropa-ikuzketa...), ez eta gizarte-arretako laguntzarik ez osasun-zerbitzurik ere.

2. Babes bereziko kooperatibatzat jotzeko funtsezko baldintza (etxebizitza ohiko bizilekua izatea) betetzen denez egiaztatzeko eskubidearen preskripzio-epealdia Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 87.8 artikuluan aipatzen den hiru urteko aldia amaitutakoan hasiko da zenbatzen.»

Bi. Berridatzi egiten da 53. artikuluan 2. apartatua, eta honela idatzita geratzen da: «2. Sozietateen gaineko zergan, herri onurako kooperatibei eta ekimen sozialeko kooperatibei aplikatzeko moduko zerga-araubidea irabazi-asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arauaren 7.-17. bitarteko artikuluetan ezarritakoa izango da.

Halaber, pertsona fisikoek eta juridikoek egiten dituzten dohaintzei eta ekarpenei eta Herri Onurako Kooperatiben eta Gizarte Ekimeneko Kooperatiben alde egiten diren enpresa-erlako lankidetzako hitzarmenei foru-arau honen III. tituluan II. kapituluaren artikulua eta, gainera, 28. artikulua aplikatuko zaizkie.»

Hiru. Berridatzi egiten da 16. artikuluan 3. apartatua, eta honela idatzita geratzen da: «3. Zerga-oinarri orokorraren gainean zerga-oinarri negatiboaren konpentsazioa aplikatu daiteke — Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 55. artikuluan aipatzen dena, alegia— konpentsazio horren aurreko zerga-oinarri orokor positiboaren ehuneko 50eko mugarekin.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako muga hori ez zaie aplikatuko tamaina txikiko kooperatibei, baldin eta mikroenpresatzat edo enpresa txikitat hartu ahal izateko eskakizunak betetzen badituzte Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

20. artikulua.— Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren aldaketa

Aldaketa hau egiten da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauan:

Berridatzi egiten da 43.4 artikuluan b) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«b) Dohaintza-emaileak zuzendaritza-lanak egin izan baditu, eskualdaketaren unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.»

Xedapen Indargabetzaile Bakarra.— Arauak indargabetzea

Foru-arau honetan xedatzen denaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak indargabetzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehena.— Arauak emateko gaikuntza

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Sailaren titularrari baimena ematen zaie foru-arau honetan xedatzen dena aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken Xedapenetako Bigarrena.— Zenbait zerga-aldaketa

Bat. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua aldatzea.

Lehenengoa. Aldatu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 26. artikuluko 7. apartatua, eta honela idatzita geratzen da:

«7. Autolikidazioak tributu bakoitzaren araudian ezarritako epetik kanpo aurkezten badira, berandutze-interesak eskatuko dira epe hori amaitu zenetik autolikidazioa



aurkeztu den egunera arte, salbu eta aurretiazko errekerimendurik gabe eta epea amaitu ondorengo sei hileko epearen barruan zerga-zorra ordainduta aurkeztutako autolikidazioetan.»

Bigarrena. Aldatu egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 28. artikuluko 2. apartatua; ondorioak izango ditu 2025eko uztailaren 1etik aurrera hasitako zergaldiko zerga-zorretarako, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Betearazpideko erreargua %5ekoa izango da eta automatikoki sortuko da. Erre-kargu hau ordainarazpen-aldia hastearekin batera eskatu ahal izango da, foru-arau honen 60. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, ordainarazpen-aldiko lehen hiru egun baliodunen barruan benetan eta guztia ordaintzen bada, betearazpideko erre-kargua %0,5 izango da.»

Hirugarrena. Gehitu egiten zaio 3. apartatu bat Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 1. artikuluari; ondorioak izango ditu 2023ko azaroaren 24tik aurrera, eta eduki hau du:

«3. Zerga Administrazioak, elkarren laguntzari buruzko araudia dela eta, beste estatu batzuei edo nazioarteko edo nazioz gaindiko entitateei lagunduz gero, araudi horretan ezarritako mugak bete behar ditu.

Bereziki, Europar Batasuneko estatu kideen arteko elkarren laguntzaren eremuan, Zerga Administrazioak hemen ezarritako betebeharrak prozesal eta materialak bete beharko ditu: Kontseiluaren martxoaren 16ko 2010/24/EB Zuzentaraua –zerga, eskubide eta beste neurri batzuei dagozkien kredituak kobratzeko elkarren laguntzari buruzkoa–, eta Kontseiluaren otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua –fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena–.»

Laugarrena. Gehitu egiten zaio bigarren paragrafo bat Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren hogeita zortzigarren xedapen gehigarriari; ondorioak izango ditu 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta eduki hau du:

«Aurreko paragrafoaren azken esaldian xedatutakoa gorabehera, «informazioa eman behar duen plataforma eragile» orok «informazioa eman behar den saltzaile» bakoitza informatu beharko du dagokion estatuari transferitutako «kontraprestazioaz», 2011/16/EB Zuzentaruaren eta xedapen honetan adierazitako nazioarteko erabakien arabera.»

Bi. Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua aldatzea.

Aldatu egiten da Hiri-Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren 5. artikuluko 4. apartatuko lehen paragrafoa; ondorioak izango ditu 2024ko abenduaren 30etik aurrera, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Ordenantza fiskaletan zergaren kuota osoaren 100eko 100era arteko hobari ezar daiteke ondorengo eta adoptatuentzat, ezkontidearentzat edo izatezko bikotekideentzat, eta aurreko eta adoptatzaileentzat egiten diren lur-eskualdaketetan edota jабaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eskualdatzen edo eratzen direnetan, halakoak heriotza dela kausa eta dohainik eginez gero.»

Hiru. Aldatu egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua.

Berridatzi egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 57.2 artikuluko k) letrako 2. apartatua; ondorioak izango ditu 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Zorduna konkurtso-egoeran egonik, kredituaren zenbatekoaren kita erabakitzen duen hitzarmena eraginkorra izatea, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren lehen liburua



VII. tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera. Hala denean, kitaren zerbatekoaren arabera zenbatuko da galera.

Bestela, konkurtso-prozedura amaitzea kreditua ordaindu gabe, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Konkurtso Legearen testu bateginaren 465. artikulua 1., 2., 3., 5. eta 8. zenbakietan aipatutako kausengatik konkurtsoa amaitzea erabakitzen denean izan ezik.»

Lau. Aldatu egiten da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Araua.

Aldaketa hauek egiten zaizkio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauari:

1. Gehitu egiten zaio 3. apartatu bat 56. artikuluari, eta eduki hau du:
«3. Foru-arau honetan eta beste arau batzuek egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako notario-dokumentuen kuota mailakatuaren modalitatean ezarritako salbuespen subjektiboak eta onura fiskalak ez dira aplikatuko subjektu pasiboa foru-arau honen 42. artikuluko bigarren paragrafoaren arabera zehazten den eragiketetan, berariaz besterik xedatzen ez bada.»
2. Berridatzi egiten dira 58. artikuluko 28. zenbakiko hirugarren eta laugarren paragrafoak, eta honela geratzen dira idatzita:
«Mailegua edo kreditua ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko delako presuntzioa hartuko da, baldin eta alderdiek hala adierazten badute eskritura publikoan. Eskuratzaila pertsona fisikoa denean eta etxebizitza gisa gaitutako lokal bat erosteko mailegu edo kreditu bat ordaintzeko berme gisa eraturako hipotekak direnean, zeinaren eskualdatzeari foru-arau honen 13. artikulua c) letraren azken paragrafoan aipatzen den itzulketa aplikatu behar baitzaio, Zerga Administrazioak, eskaera egin ondoren, hipoteka horren eraketa edo ezereztea dokumentatzen duten notario- eskrituren lehen kopiei dagokien zerga itzuliko du, betiere aurreko paragrafoan aurreikusitako presuntzioa aplikatu behar bada. Itzulketak ez du sortuko berandutze korriturik.»
3. Gehitu egiten zaio 47. apartatu bat 58. artikuluari, eta honela idatzita geratzen da:
«47. Hipoteka-maileguaren eskriturak, baldin eta mailegu-hartzaila foru-arau honen edo beste arau batzuen arabera salbuespen subjektiboa duen pertsona edo entitatea bada.»

Bost. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua.

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan, eta ondorioak izango dituzte 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasien diren zergaldietan:

1. Berridatzi egiten da 31. artikulua 1. apartatuko b) letra, eta honela idatzita geratzen da:
«b) Sozietateen gaineko zerga eta zerga osagarria kontabilizatzearen ondoriozkoak. Ez dira sarreratzat hartuko kontabilizazio horretatik datozenak.»
2. Gehitu egiten da hogeita hamalagarren xedapen iragankor bat, eta eduki hau du:
«Hogeita Hamalagarren Xedapen Iragankorra. — *Kenkariak ikerketa- eta garapen-proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik eta ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko arte eszenikoak eta musika-emanaldiak finantzatzen parte hartzeagatik 2024ko urtarrila baino lehen*

Ikerketa- eta garapen-proiektuetan edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik eta ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko arte eszenikoak eta



musika-emanaldiak finantzatzen parte hartzeagatiko kenkariren bat geratzen bada aplikatu barik 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiaren hasieran, 67. artikuluan xedatutakoaren arabera aplikatuko da, 2023ko abenduaren 31ko indarreko idazkuntza kontuan hartuta.»

Sei. Aldatu egiten da Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Araua.

Aldaketa hauek egiten zaizkio Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauari, eta ondorioak izango dituzte 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera:

1. Berridatzi egiten da 6. artikulua bigarren apartatuko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«a) Entitatearen jarduera nagusia ezin da izan ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 21eko 3/1996 Foru Arauko 14. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, entitate horrek ez baditu betetzen beraren aktiboaren erdia balorez osatuta dagoela edo jarduera ekonomikoei lotuta ez dagoela pentsatzeko ezarritako baldintzak, bada, orduan, ulertuko da entitate horrek ez duela kudeatzen ondare higigarri edo higiezin bat eta, beraz, ekonomia-jarduera bat egiten duela.»

Entitate hori beste entitate batzuetako partaide ere badenean, baldintza batzuk bete behar dira ulertzeko entitate horrek ez duela kudeatzen ondare higigarri bat. Baldintzok, hain zuzen ere, hauek dira: lehenengo, kasuan kasuko entitate horrek beste entitateetako bakoitzaren boto-eskubideen ehuneko 5, gutxienez, izan behar du zuzenean, edo ehuneko 3, baldin eta partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatatu batean kotizatzen badute; bigarren, entitate horrek baliabide materialak eta giza baliabideak egoki antolatuz zuzendu eta kudeatu behar ditu partaidetzak, eta betiere partaidetutako entitateen jarduera nagusia ezin da inola ere izan ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa, aurreko paragrafoan zehazten diren baldintzetan.»

2. Berridatzi egiten da 6. artikulua 6. apartatuko c) letra, eta honela idatzita geratzen da:

«c) Aurreko bigarren ataleko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei eta foru-arau honen 20. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontziei dagokien zatiaren kasuan ere ez da aplikatuko, foru-arau honen 18. artikulua.

Lehenengo ataleko azken paragrafoan ezartzen denarekin bat. Letra honetan zehazten den salbuespena ez zaio aplikatuko partaidetzen balioan bigarren mailako merkatuetan kotizatzen duten baloreei dagokien zatiari, zergadunak boto-eskubideen ehuneko 3, gutxienez, badu eta partaidetzok baliabide materialak eta giza baliabideak egoki antolatuz zuzendu eta kudeatzen baditu».

Azken Xedapenetako Hirugarrena. — Indarrean sartzea

Foru-arau hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta bere artikuluetan adierazitako ondorioak sortuko ditu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, hau:

- 3. artikulua hirugarren apartatua xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eskuratzen diren ohiko etxebizitzetarako sortuko ditu ondorioak.
- Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 86. artikulua 8. apartatu berrian (3. artikulua bosgarren apartatua) xedatzen denak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera sinatzen edo luzatzen diren errentamendu-kontratueterako sortuko ditu ondorioak.
- Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 87. artikulua 10. apartatu berrian (3. artikulua seigarren apartatua) xedatzen denak 2026ko



urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren ohiko etxebizitzaren eskuratzeetarako eta 87. artikuluko 5. atalean aurreikusitako antzeko kasuetarako sortuko ditu ondorioak.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 71. artikulua 1. apartatuko d) letran (8. artikulua barruan), lehenengo, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren, seigarren, zazpigarren, hamargarren apartatuetan, eta berrogeita bigarren xedapen gehigarrian, zeina hamakargarren apartatuaren bidez gehitu baita, eta hamabigarren apartatuan (apartatu horiek guztiak foru-arau honen 8. artikulua barruan daude) xedatutakoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.
- 15. artikulua hirugarren apartatuan xedatutakoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta 18. artikulua hirugarren apartatuan xedatutakoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak.
- 18. artikulua laugarren apartatuan xedatutakoak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak».

Bilbon, 2025eko apirilaren 9an.

Lehenengo Idazkaria
JANE EYRE URKIETA ZUZAETA

Lehendakaria
ANA OTADUI BITERI